



www.protokoloa.eus



Hizkuntza
Eskubideak
Bermatzeko
Protokoloa

EUSKAL HERRIKO GARAPENA

AURKIBIDEA



ATARIKOA.....	Or. 5
PROTOKOLOA, KAIERA ETA EUSKAL HERRIKO GARAPENA: ETORKIZUNA MARRAZTEKO ARKATZA	7
PRINTZIPIO OROKORRAK	11
1. EREMUA: ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ETA INSTITUZIOAK.....	15
A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN	16
1. Herritarrek zerbitzuak hizkuntza gutxituan jasotzeko duten eskubidea legez babestuta dago	16
2. Herritarrei zerbitzu guztiak hizkuntza gutxituan ematen zaizkiela bermatzea.	17
3. Kanpo kontratazioa.....	24
4. Lehentasunezko eremuak	26
B. KOMUNIKAZIOA.....	40
C. HIZKUNTZA GUTXITUA ETA LAN-EREMUA	45
2. EREMUA: HEZKUNTZA.....	51
A. HEZKUNTZA FORMALA	52
1. Haur-hezkuntza	52
2. Derrigorrezko hezkuntza: Lehen eta bigarren hezkuntza	58
3. Lanbide-heziketa eta –trebakuntza	69
4. Unibertsitatea eta gainerako goi-mailako hezkuntza.....	75
5. Eskolaz kanpoko jarduerak	81
B. HEZKUNTZA INFORMALA.....	85
1. Aisialdi-zentroak, kirol-talde eta federazioa	85
C. IRAKASLEEN ETA HEZITZAILEEN TREBAKUNTZA	88
1. Irakasleak.....	88
2. Hezitzaileak.....	91
3. Etengabeko prestakuntza.....	93
D. HELDUEK HIZKUNTZA GUTXITUAN IKASTEA.....	94
E. CURRICULUMAK ETA MATERIALAK	99
1. Curriculuma	99
2. Irakas-materiala.....	103

ATARIKOA

	Or.
3. EREMUA: EREMU SOZIOEKONOMIKOA	105
A. ARAUBIDEA	106
1. Herritarrek zerbitzuak hizkuntzan gutxituan jasotzeko eskubidea legez babestuta dago.....	106
B. HIZKUNTZA GUTXITUA KONTSUMO-HARREMANETAN.....	107
1. Osasunaren eta segurtasunaren babesak.....	107
2. Produktu eta zerbitzuei buruzko informazio publikoa.....	109
3. Gatatzak	114
4. Ekonomiako funtsezko sektore eta zerbitzuetako kontsumitzaileen eskubideak hizkuntza gutxituan bermatzen dira.....	115
C. HIZKUNTZA GUTXITUA LAN-EREMUAN ETA LAN-MERKATUAN	116
D. ENPRESEN GIZARTE-ERANTZUKIZUNA.....	119
4. EREMUA: ONOMASTIKA	123
A. ENTITATE AUTONOMO BAT ONOMASTIKA ESTANDARIZATZEKO	124
B. PERTSONA-IZENAK	128
C. LEKU-IZENAK.....	131
5. EREMUA: HEDABIDEAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK	139
A. OINARRIZKO NEURRIAK.....	140
B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA	145
1. Jabetza publikoko hedabideak	145
2. Jabetza pribatuko eta herri-ekimeneko hedabideak	148
3. Ikusgarritasuna sustatzeko neurriak.....	154
4. Edukia.....	157
5. Hedabide berriak.....	160
6. Hedabideetako profesionalak	162
7. Mugaz gaindiko harremanak	164
C. TEKNOLOGIA BERRIAK.....	166
6. EREMUA: KULTURA	175
A. KULTURA JASOTZEKO ESKUBIDEA	176
B. HIZKUNTZA GUTXITUAN SORTUTAKO KULTURA.....	178
1. Sorkuntzarako laguntza.....	178
2. Transmisioa	184
3. Ikusgarritasuna.....	187
C. KANPOKO KULTURA HIZKUNTZA GUTXITUAN.....	192

2016ko abenduaren 17an hogeita hamar hizkuntza-komunitate baino gehiagoko ehundik gora eragileren babesarekin Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa aurkeztu genuen Donostian. Urte batez Europa osoko gizarte eragileen ekarpenak jaso eta landu ondoren, Europako hizkuntza-komunitate guztientzat baliagarria izango den neurri-sorta zehaztea lortu genuen. Lehen aldiz Europan hizkuntza gutxiagotuen berreskurapenaren alde lan egiten dugun eragileok proposamen bateratua egin genuen. Ahalduz historikoaren emaitza izan zen, zalantzarik gabe, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa.

Egun horretan bertan Kontseiluak argi zuen harri bitxi hori landu behar genuela, eta geure betaurrekoekin Protokoloa irakurtzeko gida zehaztu behar genuela. Esan eta egin! Abenduaren 19an bertan ekin genion lanketa horri, hain zuzen ere, Protokoloan jasotzen diren neurriak euskararen betaurrekoetatik ikusteko garapena prestatzeari.

Horretarako, nola ez, Protokoloa egiteko erabilitako estrategia bera baliatu nahi izan genuen, gizarte-eragileen ekarpenak. Pozik esan dezakegu, Protokoloa bezalaxe, Euskal Herriko Garapena ere gizarte eragileen ekarpenekin osatu ahal izan dugula, eta beraz, beste behin lortu dugu euskalgintza eta euskalgintzaz haragoko eragileak ere arikeria baten bueltan jartzea, zertarako eta etorkizuneko euskararen politikak definitzeko baliagarria izango den tresna bat prestatzeko. Hortaz, hemendik aurrera, guztion lana izango da, eskuartean duzuen dokumentu honi ahalik eta etekin handien ateratzea.

Hizkuntza-politika birpentsatu beharra aldarrikatu dugu azken hilabeteotan, bai eta Euskalgintzaren eta instituzioen arteko konplizitateak ehundu beharra ere. Europan inoizko adostasun sozial handiena izan duen dokumentua euskararen betaurrekoetatik garatzeko gidaliburua jarri nahi du Kontseiluak mahai gainean, hain zuzen ere, elkarrekin egin beharreko bidean lagungarria izango delakoan.

Paul Bilbao Sarria
Kontseiluko idazkari nagusia

PROTOKOLOA, KAIERA ETA EUSKAL HERRIKO GARAPENA: ETORKIZUNA MARRAZTEKO ARKATZA

HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEKO PROTOKOLOA

Urte eta erdiko prozesuaren ondoren, Europako 30 hizkuntza gutxituen normalizazioaren aldeko ehunetik gora eragilek helarazitako proposamenekin Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa aurkeztu genuen Donostiako Kursaal jauregian 2016ko abenduaren 17an.

Europar hizkuntza gutxituen alde lan egiten duten gizarte eragileek inoiz egin izan duten ariketarik erraldioenaren ondorioa izan da Protokoloa. Hain zuzen ere, adostasunetik geure eskubideak bermatzeko neurri-zerrenda prestatu genuen, eta elementu hori azpimarratu genuen orduko aurkezpenean. Finean, egoera gutxituan dauden hizkuntzen beharretatik modu independentean lan egiten duten eragileek egindako ekarpenek osatzen dute aipatu dokumentua. Gainera,

Europa mailako nazioarteko sei erakundek bideratu zuten prozesua eta hainbat diziplinako nazioarteko hogeitaz adituren laguntza izan genuen prozesuan zehar.

Horrela, hizkuntza-eskubideak bermatzeko kontuan hartu beharreko 185 neurri biltzen dituen dokumentua da Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa.

Eskubideen definizioari dagokionez, Protokoloak 1996an Bartzelonan onartutako Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala izan zuen abiapuntu, eta bertan jasotako eskubideak ez ezik, Deklarazioaren sailkapena ere baliatu zen neurriak antolatzeke. Horrela, hizkuntza-eskubideak bermatzeko adostu ziren 185 neurriak Printzipio orokorrak izeneko eremuan eta beste sei eremu espezifikotan daude banatuta: Administrazio publikoa eta instituzioak, Hezkuntza, Eremu sozioekonomikoa, Onomastika, Hedabideak eta teknologia berriak, eta Kultura.

Esan dezakegu, beraz, Protokoloak jasotako 185 neurriak betetzeak ondorio bat eragingo lukeela, hain zuzen ere, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak aitortutako eskubide guztiak bermatzen zaizkiola hizkuntza-komunitateari.

KAIERA

Zalantzarik ez dago hizkuntza baten berrreskurapen-prozesua dinamikoa dela, eta horregatik ezinbestekoa da epeak zehaztea, prozesuak denboran amaiera izan behar duela irudikatzea ezinbestekoa da.

Izan ere, arras desberdinak dira egoera gutxiagotuan dauden hizkuntzen egoerak, eta horregatik uste dugu hizkuntza-komunitateek zeinek bere ibilbide-orria zehaztu behar duela, Protokoloa bera erabilgarria izan dadin.

Kaiera Protokoloan jasotako neurrien betetze-maila neurtu, aurrera begirako helburuak ezarri eta horien jarraipena egiteko balio duen tresna malgua da, eta hori egin ahal izateko, neurrien betetze-maila ebaluatu ahal izateko adierazle bana eskaintzen du.

Horrela, hizkuntza-eskubideak gizarte-esparru espezifiko batean edo lurralde-eremu zehatz batean bermatzeko lan egiten duten eragileek Protokoloa neurri batzuk bete daitezten jarriko dute arreta.

Hartara, Kaierak bi erabilera-eredu eskaintzen du. Batetik, Kaieraren erabileraren eredu integrala, Protokoloa neurri guztiekin osatu beharrezkoa. Bestetik, Kaieraren erabileraren eredu partziala. Kasu horretan, gizarte eragileek gizarte-esparru edo lurralde-

de-eremu zehatz bateko neurriei erantzunez erabiltzeko aukera izango dute.

Gainera, Kaierak aukera ematen du neurriak betetzeko tarteko urratsak zehazteko, izan ere, gerta liteke hizkuntza-komunitate batzuei dagokienez, proposatutako neurriaren betetze-maila oso urrun ikustea, eta horretara iristeko bidean hartu beharreko neurriak ere definitu behar izatea.

Horrela, Kaieraren bidez gizarte-eragileek modu ordenatuan zehaztu ahal dute hizkuntza-eskubideen bermeari begira hurrengo urteetako erronkak. Horretarako, neurri bakoitzaren diagnosis egin, epealdi batean beteko diren neurrien hautaketa zehaztu, neurria betetzeko eskumena duen instituzio edo administrazioa identifikatu eta guztia era ordenatuan planifika dezakete.

EUSKAL HERRIKO GARAPENA

Protokoloa eta Kaiera eskutan, beste urrats bat egitea beharrezkoa zela ikusi zuen Kontseiluak, hain zuzen ere, Protokoloa euskararen baurrekoetatik irakurtzen lagunduko duen tresna sortzea.

Arestian esan bezala, hizkuntza-eskubideak bermatzeko 185 neurri biltzen ditu Protokoloak eta Europa osoko hizkuntza gubiruntzat balekoa izatea du helburu. Hortaz, kasu batzuetan, neurriak hizkuntza bakoitzean zer nolako garapena izan dezakeen zehaztu behar da. Hori lortzeko, prozesua zabaldu zuen Kontseiluak Protokoloaren Euskal Herriko Garapena prestatzeko.

Hartara, eskuartearen duzun koadernoak Protokoloaren 185 neurriak eta Kaierak

neurri bakoitzari esleitutako adierazleak jasotzeaz gain, neurri bakoitzean kon-tuan hartu beharreko elementuak biltzen ditu.

Neurri bakoitzaren ezaugarriak zehaztea izan da azken urtean eragileekin egindako lana: neurri bakoitza nola ulertu behar den; neurri bakoitza betetzeak zer ekarri beharko lukeen; neurri bakoitzak zein aurreko baldintzak izan behar dituen beteta. Finean, neurri bakoitza euskararen ikuspegitik nola aplikatu daitezkeen zehazteko balio dute ezaugarri horiek.

Gainera, hori guztia egiteko, laurogei eragile baino gehiagoren ekarpenak jaso dira eta eremukako hainbat lan-bilera antolatu dira.

Egia da, bai, eragileek egindako ekarpenek, zenbaitetan, neurriak berak zehazten zuenaz harago jotzen zutela. Halere, horiek guztiak jasotzeko joera izan dugu. Izan ere, Protokoloak badu nahikoa zehaztuta neurriaren edukia, eta, beraz, Garapenak hori ulertzeko eta neurriak garatzeko moduak eskaintzen dizkigu.

Horixe da, hain zuzen ere, Garapenaren baliorik handiena, Protokoloan jasotako neurriak jomugan jarrita, horiek erdies-terko hartu beharko liratekeen erabakien ezaugarriak biltzea, aldi oro, geure hizkuntza ardatz.

Ondorioz, 2016an aurkeztutako Protokoloa euskarari dagokionez modu eragingarrian aplikatu ahal izateko gidaliburuaren beharri erantzun nahi izan diogu Euskal Herriko Garapenaren bidez.

ETORKIZUNA MARRAZTEKO ARKATZA

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak Protokoloaren jarraipen batzordeko kide eta idazkari izanik, dokumentua aurkeztu eta biharamunetik bertatik ekin zion bere garapenerako hurrengo faseak definitzeari.

Egia da Protokoloak berak badituela ezarrita etorkizuneko lan-ildo nagusienak, hain zuzen ere, inplementazioa barne-politiketan; gizarte-eragile gehiago atxikitzea; Kaieraren bateratzea eta partekatzea; aitortza instituzioetan eta, azkenik, legitimazioa nazioarteko instituzioetan. Lehena ez besteak Kontseiluak koordinatzen duen Jarraipen Batzordearen laguntzarekin egiten dugu.

Protokoloa barne-politiketan inplementatzea, aldiz, gure hurrengo urteetako erronka izango da, eta horretarako ere Protokoloaren Euskal Herriko Garapena tresna nahitaezkoa izango da.

Behin eta berriz esan dugu hizkuntza-politikak birdefinitzeko garaia iritsi dela. Azken hamarkadotan euskarari aplikatu diren politikek zer eman duten ikusi dugu. Horretaz gain, euskararen aldeko gizarte zibil antolatu Euskalgintzak ere itzeleko lana egin du euskararen berreskurapen-prozesuan, hiztunak, tresnak eta espazioak sortuz, bai eta euskaraz bizitzeko eskubidea lau haizetara aldarrikatuz ere.

Egia da, bai, azken urteotan hainbat datu berri dugula eskuartearen. Zalantzarik gabe aurrera egin dugula agertzen dute datuok. Aipatu azterketek normalizazio-prozesuaren bilakaeraren elementu argigarriak jarri dituzte mahaigainean. Halere, nolabaiteko kristalezko sabaia egon badagoela era-

kusten dute. Eta, horregatik guztiarengatik, hizkuntza-politiken sakoneko berrikuspene egin beharra ikusten dugu. Hizkuntza-politikak birpentsatu behar ditugu.

Bide horretan, bada garaia hizkuntza-politikak ikuspegi holistikoarekin eta integratzailearekin garatzeko; bada garaia administrazioari sail eta maila guztietan eraginez, benetako zeharkakotasunez garatuko diren hizkuntza-politikak abiatzeko; bada garaia instituzioen eta euskalgintzako eragileen arteko konplizitatez eraikiko den eta hizkuntza-eskubideen bermea ardatz izango duen hizkuntza-politika abian jartzeko

Ondorioz, Protokoloaren Euskal Herriko Garapenak mugari bat dakarrela esan nahi dugu. Izan ere, dokumentuaz gain, proposamen berri horren bueltan jarri nahi ditugu Euskal Herriko eragileak.

Garapena egiten lagundu diguten eta bestelako eremuetan lanean dauden eragileak ere bidaide eta partaide izan behar ditugu, orain arte bezala.

Izan ere, eremu sozioekonomikoan, hedabideetan, ingurune digitalean, administrazioan, hezkuntzan, kulturean... hartu beharreko neurri-sorta eta horien garapena ditugu eskuartean, eta beraz, aukera guztion artean lehentasunak ezartzeko eta bide-orri bat prestatzeko.

Finean, hizkuntzaren normalizazio-prozesua ez da Euskalgintzak bakarrik jorratu beharreko eremua. Hizkuntzak bizitzako eremu guztietan eragiten digu, hain zuzen ere, hizkuntza fenomeno soziala delako. Zinez uste dugu beste eremuetako eragileak ere euskararen normalizazioaren gurdira ekarri behar ditugula, baina aktibo bihurtuz. Horrexegatik, Protokoloaren Euskal

Herriko Garapena eskuartean horiekin guztiekin aliantzak jorratzeko garaia dela uste du Kontseiluak.

Horrekin batera, nola ez, instituzioekin ere lanketa berezitua egiten hasi behar dugu. Azken boladan instituzioen eta Euskalgintzaren arteko elkarlanaren beharra mahai gaineratu da, eta Kontseiluak elkarrekin bidea egiteko tresna interesgarri bezain eragingarria jarri nahi du mahai gainean. Arestian esan bezala, Europan inoizko adostasun sozial handiena lortu duen dokumentutik sortutako bide-orria.

Euskal Herrian, 2018ko maiatzean

PRINTZIPIO OROKORRAK

Printzipio orokorren izaera dela-eta, ez dute ezaugarririk jasotzen. Hortaz, neurria eta adierazlea besterik ez dira agertzen.

Neurri motak

B/E = bai/ez

D = baliabideak

P = plangintza

% = ehunekoak

K = kopurua

A. HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK

- 1. neurria** Araututa dago hizkuntza-eskubideak giza eskubideak direla.

Adierazlea: Giza eskubide gisa errekonozituta al daude hizkuntza eskubideak? **Mota: B/E**
- 2. neurria** Edozein hizkuntzako hiztunen oinarritzko eskubideei dagokienez, pertsona orok du interprete baten laguntza jasotzeko eskubidea, epaitegian erabiltzen den hizkuntza ulertzen ez badu edo hizkuntza horretan hitz egiten ez badaki.

Adierazlea: Protokoloen bat jarri da eskubide horiek bermatzeko? **Mota: B/E**
- 3. neurria** Edozein hizkuntzako hiztunen oinarritzko eskubideei dagokienez, atxilotu orori berehala jakinarazten zaio, ulertzen duen hizkuntza batean, zergatik atxilotu duten eta zer leporatzen dioten.

Adierazlea: Protokoloen bat jarri da eskubide horiek bermatzeko? **Mota: B/E**

B. HIZKUNTZARENGATIKO DISKRIMINAZIOA

1. **4. neurria** Legearen arabera hizkuntzagatiko diskriminazioa onartezina da.
Adierazlea: Legeak errekonozitzen al du hizkuntzagatiko diskriminazioa? **Mota: B/E**

C. HIZKUNTZAREN ESTATUSA: HIZKUNTZA OFIZIALAK

1. **5. neurria** Legeak errekonozimendu ofiziala eta estatus ofiziala esleitzen dizkio hizkuntza gutxituari.
Adierazlea: Hizkuntza gutxituak ba al du estatus eta errekonozimendu ofizialik? **Mota: B/E**

D. LEGEAK

1. **6. neurria** Administrazioak lege eta araudiak onartu ditu hizkuntza gutxituaren estatus ofiziala garatu eta arautzeko.
Adierazlea: Ba al da lege berezirik estatus ofiziala arautzeko? **Mota: B/E**
2. **7. neurria** Jarduera oro hizkuntza gutxituan egiteko aukera bermatuta dago.
Adierazlea: Errekonozituta al dago jarduera oro hizkuntza gutxituan egiteko aukera? **Mota: B/E**

E. NEURRI ZUZENTZAILEAK

1. **8. neurria** Hizkuntza-komunitatearen hizkuntza gutxituta edo baztertuta badago, Administrazioak neurri zuzentzaile osagarri bereziak hartzen ditu hizkuntza-komunitatearen hizkuntza-eskubideak bermatzeko.
Adierazlea: Errekonozitzen al da Administrazioak neurri zuzentzaileak har ditzakeela? **Mota: B/E**

F. BALIABIDEAK

1. **9. neurria** Baliabide materialak, diru-baliabideak eta giza baliabideak bermatuta daude hizkuntza-komunitatearen eskubideak babesteko.
Adierazlea: Xede horretarako erabilitako giza baliabideak, diru-baliabideak eta baliabide materialak. **Mota: B/E**

G. NEURRI POSITIBOAK

1. **10. neurria** Hizkuntza gutxituak lehentasuna du hizkuntza ofizial eta nagusiaren aurrean.
Adierazlea: Hizkuntza gutxituari lehentasuna aitortzen dion araurik ba al dago? **Mota: B/E**

H. UNIBERTSALTASUN-PRINTZIBIOA

1. **11. neurria** Hizkuntzaren ezagutza unibertsalizatzeko neurriak abian daude, hezkuntzan bereziki.
Adierazlea: Hizkuntza gutxituaren ezagutza unibertsalizatzeko plangintza edo programarik ba al dago, bereziki hezkuntzan? **Mota: B/E**

I. ZEHAR-LERROTASUNA

1. **12. neurria** Zeharkako ikuspegia aplikatzen du Administrazioak bere ekintzetan; erakunde publikoko atal, departamentu eta alor guztietan aplikatze-koak diren neurri eta irizpide orokorrak finkatu eta zehaztu dira, hizkuntza gutxitua jendaurreko hizkuntza eta barne-laneko hizkuntza izan dadin.

Adierazlea: Hizkuntza ikuspegia aplikatzen den departamentuen ehunekoak. **Mota:** B/E

2. **13. neurria** Hizkuntza-eskubideak babestu eta zehar-lerrotasuna bermatzearen, administrazioak hizkuntza-politikari zuzendaritza politikoan leku zehatza esleitzen dio, gainerako atal guztietan eragin zuzen eta esanguratsua izan dezan.

Adierazlea: Ba al da bereziki hizkuntza-politikaz arduratzen den organismoik? **Mota:** B/E

J. HIZKUNTZAREN ARNASGUNEAK

1. **14. neurria** Hizkuntza gutxitua nagusi den eremuetan, Administrazioak eta Institutuzioek errekonozimendu eta lege-babes berezia bermatzen dute.

Adierazlea: Ba al dago araudirik espazio horiek errekonozitu eta babesteko? **Mota:** B/E

K. MEMORIA HISTORIKOA

1. **15. neurria** Administrazio publikoak baliabideak eskaintzen ditu gaur egun hizkuntzaren galerari buruzko ezagutza izateko.

Adierazlea: Xede horretarako erabilitako giza baliabideak, diru-baliabideak eta baliabide materialak. **Mota:** D

1. EREMUA:

ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ETA INSTITUZIOAK

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

1. HERRITARREK ZERBITZUAK HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO DUTEN ESKUBIDEA LEGEZ BABESTUTA DAGO

2. HERRITARREI ZERBITZU GUZTIAK HIZKUNTZA GUTXITUAN EMATEN ZAIZKIELA BERMATZEA

3. KANPO KONTRATAZIOA

4. LEHENTASUNEZKO EREMUA

4.1. Osasungintza

4.2. Justizia-administrazioa

4.3. Polizia

B. KOMUNIKAZIOA

C. HIZKUNTZA GUTXITUA ETA LAN-EREMUA

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

1. HERRITARREK ZERBITZUAK HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO DUTEN ESKUBIDEA LEGEZ BABESTUTA DAGO

- 1.1. **16. neurria** Araututa dago hizkuntza gutxituan ahoz zein idatziz egindako administrazio-prozedurek balio juridiko osoa dutela.

Adierazlea: Araututa al dago?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Hizkuntzaren aitortza ofiziala egotea lege-arauen bidez
- Lege horrek berariaz jasotzea herritarrek euskaraz ahoz zein idatziz egindako prozedurek balio juridiko osoa dutela

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

2. HERRITARREI ZERBITZU GUZTIAK HIZKUNTZA GUTXITUAN EMATEN ZAIZKIELA BERMATZEA

- 2.1. **17. neurria** Administrazioek hizkuntza gutxituan (idatziz zein ahoz) ematen dizkiete beren zerbitzuak herritarrei.

Adierazlea: Herritarrei zerbitzua hizkuntza gutxituan emateko gaitasuna duten Administrazioko departamentuen ehuneko.

Mota: %

EZAUGARRIAK

- Hizkuntza-politika gidatuko duen plangintza orokorra zehaztea, garatzea eta berrikusteko mekanismoak egotea, hizkuntza-eskubideak oinarri
- Zirkuituak departamentu eta sail guztietan egotea tresna gisa
- Protokolo zehatzak egotea zerbitzuak euskaraz eskaintzeko
- Behin-behinekotasunean, itzulpen-zerbitzuak baliatzea
- Hizkuntza-politikaren plangintza orokorrean jasoa egotea
- Zerbitzua ahoz zein idatziz euskaraz jasotzeko lege-babesa egotea

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

2. HERRITARREI ZERBITZU GUZTIAK HIZKUNTZA GUTXITUAN EMATEN ZAIZKIELA BERMATZEA

- 2.2. **18. neurria** Jendaurrean diharduten langileek hizkuntza-gaitasun egokia dutela bermatzen dute administrazioek.

Adierazlea: Hizkuntza gutxituko gaitasuna frogatua duten jendaurreko langileen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Jendaurreko lanpostuei hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data iraungia esleitzea eta betearazteko mekanismoak egotea
- Kontratazio berrietan hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta egotea
- Jendaurreko langileen hizkuntza-gaitasuna neurtzeko prozedurak egotea
- Hizkuntza-politikaren plangintza orokorrean jasoa egotea

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

2. HERRITARREI ZERBITZU GUZTIAK HIZKUNTZA GUTXITUAN EMATEN ZAIZKIELA BERMATZEA

- 2.3. **19. neurria** Zerbitzuak hizkuntza gutxituan emateko, hizkuntza-plangintza orokor bat aplikatzen dute Administrazioko alor guztiek.

Adierazlea: Protokoloaren irizpideak dituen plangintza betetzen da. **Mota:** P

EZAUGARRIAK

- Plangintza orokorrak herritarrei zerbitzuen eskaintza, kanpo kontratazioa, lehentasunezko eremuak (osasungintza / justizia / polizia), komunikazioa eta barne erabilera kontuan hartzea
- Printzipioak honako hauek izatea: Sustapen politika edo neurri positiboak, neurri zuzentzaileak, zehar-lerrotasuna, prebentzioaren ikuspegia (eragin linguistikoa)
- Baliabide-mota hauek egotea: ekonomikoak, espezifikoak, giza baliabideak, baliabide materialak, plangintzaren jarraipenerako protokoloak eta egitura betearazleak
- Departamentu / sail bakoitzaren plangintza berezituak egotea, zerbitzu osoa euskaraz emateko
- Zirkuituak departamentu eta sail guztietan egotea tresna gisa
- Plangintza horiekin guztiekin plan integrala osatzea
- Administrazioko sail eta eremuak euskaldun izendatzea
- Plangintzaren helburuak euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak bermatzeari begirakoak izatea

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

2. HERRITARREI ZERBITZU GUZTIAK HIZKUNTZA GUTXITUAN EMATEN ZAIZKIELA BERMATZEA

- 2.3.1. **20. neurria** Instituzio guztiek (udal, lurralde, erkidego, estatu nahiz beste edozein mailatakoek) plangintza betetzeko egutegi bat zehaztu dute.

Adierazlea: Egutegia duen plangintza duten instituzioen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Plangintzaren epeak araututa egotea
- Plangintza betetzeko epeak publiko egitea
- Plangintza gehienez sei urtekoa izatea
- Jarraipen-batzorde eraginkorrak eratzea
- Jarraipen-batzorde eraginkorrak egon daitezen baliabideak jartzea
- Sentsibilizaziotik eraginkortasunera igaroko diren kanpainak egotea
- Sistematizazioa zeharreko irizpide gisa hartzea
- Kuotak ezarri eta betearazteko mekanismoak egotea

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

2. HERRITARREI ZERBITZU GUZTIAK HIZKUNTZA GUTXITUAN EMATEN ZAIZKIELA BERMATZEA

- 2.3.2. **21. neurria** Zerbitzuak hizkuntza gutxituan emateko helburuak eta hobekuntza-indizeak zehazten dira plangintzan, bai eta plangintzaren garapenaren barneko nahiz kanpoko ebaluazioak ere.

Adierazlea: Plangintzak jasotzen al ditu helburuak, hobekuntza-indizeak eta bere garapenaren barneko nahiz kanpoko ebaluazioak? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Plangintzaren helburu zehatzak definitzea
- Plangintzak epeak edukitzea
- Plangintza gehienez sei urtekoa izatea
- Helburu bakoitzari adierazle bat lotzea
- Helburu/adierazle berdinak erabiltzea sail eta lurralde guztietan
- Adierazleak neurgarriak izatea
- Plangintzaren erdian tarteko ebaluazioa egitea
- Tarteko ebaluazioan bete ez diren helburuek neurri zuzentzaileak izatea
- Tarteko ebaluazioan bete diren helburuei hobekuntza-indizeak jartzea
- Barne- zein kanpo-ebaluazioak egitea tarteko zein amaierako ebaluazioei
- Plangintzaren helburu zehatzek euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak bermatzen dituztela ziurtatzea

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

2. HERRITARREI ZERBITZU GUZTIAK HIZKUNTZA GUTXITUAN EMATEN ZAIZKIELA BERMATZEA

2.3.3. **22. neurria** Administrazioko lanpostuetan hizkuntza gutxituan aritzeko behar diren komunikazio-trebetasunei eta hizkuntza-gaitasunari dagozkion lehenetasunak aztertu, zehaztu eta identifikatzen ditu plangintzak.

Adierazlea: Lehenetasun horiek zehaztu eta identifikatu al dira? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Departamentu / sail bakoitzaren egoera aztertzea, diagnosia egitea
- Lehenetasuneko lanpostuak aukeratzea
- Lanpostuei dagozkien hizkuntza-gaitasunak zehaztuta egotea
- Langile elebarraren euskalduntze-prozesua planifikatzea eta epe zehaztuz kokatzea
- Trebakuntza-saioak eskaintzea
- Formazio orokorraz gain, lanpostu bakoitzerako beharrezkoa den formazio teknikoa eskaintzea
- Beharrezko baliabideak eskura jartzea (gida, protokoloak...)
- Hizkuntza-politikaren plangintza orokorrean jasoa egotea

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

2. HERRITARREI ZERBITZU GUZTIAK HIZKUNTZA GUTXITUAN EMATEN ZAIZKIELA BERMATZEA

2.3.4. **23. neurria** Bai egungo langileek bai langile berriek hizkuntza-gaitasun egokia dutela bermatzen du Administrazioak.

Adierazlea: Hizkuntza-gaitasun egokia bermatua duten lanpostuen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Lanpostuei hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data iraungia esleitzea, eta betearazteko mekanismoak egotea
- Prestakuntza- eta trebakuntza-planak egotea
- Langile berriek hizkuntza-gaitasun egokia dutela bermatzea
- Lanerako gaitasunak euskaraz egiaztatzea
- Hizkuntza-eskakizuna eta -gaitasuna neurtzeko prozedurak egokitzea epealdika (azterketak euskaraz, praktikak euskaraz...)

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

3. KANPO KONTRATAZIOA

- 3.1. **24. neurria** Administrazioek beren zerbitzuak kanpoko enpresei esleitzean, hizkuntza-plangintzako neurriak betetzen direla bermatzen dute, 2.3. puntuarekin bat etorritz.

Adierazlea: Kanpoan kudeatzean zerbitzuetatik, hizkuntza-plangintzako neurriak betetzen dituztenen ehunekoa.

Mota: %

EZAUGARRIAK

- Kanpo-enpresen kontratuetan, hornitzaileekin egiten diren kontratuetan eta esleipenetan hizkuntza-irizpideak ezartzea
- Deialdi publikoetan hizkuntza-irizpideak txertatzea
- Zerbitzu osoa euskaraz emateko gaitasuna ziurtatzea
- Zerbitzu osoa euskarazko maila egokian ematen dela ziurtatzea
- Hizkuntza-plangintzaren helburuek hartzunen hizkuntza-eskubideak bermatzeari zuzenduta daudela ziurtatzea
- Plangintzak ebaluazio-adierazleak eta neurri zuzentzaileak jasotzea
- Administrazioarentzat bakarrik lan egiten duten enpresek baldintza bereziak edukitzea, besteak beste, langileen trebakuntzari dagozkionak
- Hizkuntza-politikaren plangintza orokorrean jasoa egotea

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

3. KANPO KONTRATAZIOA

- 3.2. **25. neurria** 2.3. puntua betetzen ez bada, Administrazioak kontratua eteten du.

Adierazlea: 19. neurria betetzen ez bada, Administrazioak kontratua eteten du.

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Hizkuntza-politikaren plangintza orokorrean jasoa egotea

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

4. LEHENTASUNEZKO EREMUAK

4.1. Osasungintza

- 4.1.1. **26. neurria** Administrazioak kontuan hartzen ditu hizkuntza-eskubideak osasun-zerbitzuak emateko garaian.

Adierazlea: Hizkuntza gutxituan eskuragarri dauden osasun-zerbitzuen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Euskarazko zirkuituak ziurtatzen dira departamentu eta sail guztietan, tresna gisa
- Osasungintzaren arloa lehentasunezko eremu legez izendatzea
- Osasungintza hizkuntza-politikaren plangintza orokorrean atal espezifiko gisa jaso egotea, eta arloko beharrei erantzungo dien neurri egokiak lantzea
- Atal honetako plangintzaren helburuek euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak bermatzeari zuzenduta daudela ziurtatzea

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

4. LEHENTASUNEZKO EREMUAK

4.1. Osasungintza

- 4.1.2. **27. neurria** Egoiliarrei hizkuntza-gaitasun egokia eskatzen zaie.

Adierazlea: Hizkuntza gutxituko gaitasuna frogatua duten egoiliarren ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Sartzen diren egoiliar guztiek zerbitzua euskaraz ahoz emateko gaitasuna, gutxienez, edukitzea
- Gaitasuna ez duten egoiliarrentzat euskalduntze-plana egitea eta diruz hornitzea
- Euskalduntzeko planaren helburua zerbitzua ahoz zein idatziz ematea izatea
- Unibertsitatetik irteten diren profesionalek euskara-maila egokia (teknikoa barne) izateko, administrazioiko beste sailetan urratsak egitea
- Mediki izateko azterketa Euskal Herrira ekartzea
- Lanerako gaitasunak euskaraz egiaztatzea
- Hizkuntza-eskakizuna eta -gaitasuna neurtzeko prozedurak egokitzea epealdika (azterketak euskaraz, praktikak euskaraz)

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

4. LEHENTASUNEZKO EREMUAK

4.1. Osasungintza

- 4.1.3. **28. neurria** A.2.3. atalean jasotzen den plangintza garatzean, administrazioek modu berezian lantzen dute arlo hau, haren ezaugarri bereziak direla-eta, eta planaren jarraipena egiteko sistemaren bat abian jartzen dute.

Adierazlea: 19. neurrian jasotzen den plangintzaren jarraipena egiteko sistemaren bat dago?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Hizkuntza-plangintza zuzendaritza guztien urteko gestio planean sartuta egotea
- Hizkuntza-plangintzako ekintzek arduradun bana eta bakarra edukitzea
- Zuzendaritza guztiek hizkuntza-plangintzaren jarraipena egitea
- Printzipioak honako hauek izatea: Sustapen politika edo neurri positiboak, neurri zuzentzaileak, zehar-lerrotasuna, prebentzioaren ikuspegia (eragin linguistikoa)
- Zirkuituak departamentu eta sail guztietan egotea tresna gisa
- Administrazioiko sail eta eremuak euskaldun izendatzea
- Kanpo-ebaluazioen gomendioak aintzat hartzea
- Hizkuntza-politika orokorraren plangintzan osasungintza atal espezifiko gisa jaso egotea
- Atal honen helburuek euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak bermatzeari zuzenduta daudela ziurtatzea

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

4. LEHENTASUNEZKO EREMUAK

4.1. Osasungintza

- 4.1.4. **29. neurria** Plangintzak honako hauek lehenesten ditu hizkuntza-gaitasun ego-
kia eskatzeko garaian: familia-medikuak, pediatriak, psikologoak eta
psikiatriak, eta zuzenean jendaurrean diharduten langileak.

Adierazlea: Osasun-zentro bakoitzeko familia-mediku, pediatra, psikologo eta psikiatren eta jendaurreko langileetatik, hizkuntza gutxituko gaitasuna frogatua dutenen ehunekoa.

Mota: %

EZAUGARRIAK

- Lehentasuna duten profesional guztien gaitasunak azterketa
- Lanpostu horietan lehentasunak jartzea: zirkuituak bermatzeko, eskualdeetan desorekak ekiditeko, arnasmuneetan euskarazko zerbitzua ziurtatzeko...
- Lanpostuei hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data iraungia esleitzea eta betearazteko mekanismoak egotea
- Prestakuntza- eta trebakuntza-planak egotea
- Langile berriek hizkuntza-gaitasun egokia dutela bermatzea
- Lanerako gaitasunak euskaraz egiaztatzea
- Hizkuntza-eskakizuna eta gaitasuna neurtzeko prozedurak egokitzea epealdika (azterketak euskaraz, praktikak euskaraz...)

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

4. LEHENTASUNEZKO EREMUAK

4.1. Osasungintza

- 4.1.5. **30. neurria** Plangintzako beste alderdi batzuk bat datoz A.2.3. atalean zehaztutakoarekin.

Adierazlea: Osasungintzak ba al du Protokoloko 19-23 neurriak betetzen dituen plangintza orokorrik?

Mota: P

EZAUGARRIAK

- Historia klinikoa euskaraz eskaintzeko baliabideak jartzea
- Gaixo eta profesional euskaldunen identifikazioan sakontzea
- Kanpo-kontratazioan eta zerbitzuak erakunde pribatuetan uztean, hizkuntza-irizpideak txertatzea
- Langile eta profesionalen trebakuntza espezifikoak egotea
- Euskaraz lan egiteko lan-tresnak eskura egotea
- Osasungintza arloko helburu espezifikoek euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak bermatzeari zuzenduta daudela ziurtatzea

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

4. LEHENTASUNEZKO EREMUAK

4.2. Justizia-administrazioa

- 4.2.1. **31. neurria** Administrazioek aintzakotzat hartzen dituzte hizkuntza-eskubideak zerbitzu juridikoak emateko garaian eta, komunitate gutxituen eskubideak errekonozitzeko, justizia-administrazioek lege-prozedurak hizkuntza gutxituan egiteko eskubidea bermatzen diete herritarrei.

Adierazlea: Legez errekonozituta al dago lege-prozedurak hizkuntza gutxituan egiteko eskubidea?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Justiziaren arloa lehentasunezko eremu legez izendatzea
- Justizia hizkuntza-politikaren plangintza orokorrean atal espezifiko gisa jasoa egotea, eta arloko beharrei erantzungo dien neurri egokiak lantzea
- Atal honetako plangintzaren helburuek euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak bermatzeari zuzenduta daudela ziurtatzea
- Euskarazko zirkuituak ziurtatzea izaera guztietako epaitegietan, tresna gisa
- Lege-prozedurak euskaraz egiteko lege-babesa onartua egotea

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

4. LEHENTASUNEZKO EREMUAK

4.2. Justizia-administrazioa

- 4.2.2. **32. neurria** Tratamendu-berdintasunaren printzipioari jarraiki, hizkuntza-komunitateko kideek eskubidea dute ahoz nahiz idatziz zuzenean jarduteko, interpretarik gabe.

Adierazlea: Prozedurak zuzenean egiteko aukera ematen duten zerbitzu eta epaitegien ehunekoa.

Mota: %

EZAUGARRIAK

- Euskarazko zirkuituak ziurtatzea izaera guztietako epaitegietan, tresna gisa
- Arlo bakoitzean, prozedura eta epaiketak euskara hutsean burutzeko langile eskaldunak egotea
- Jurisdikzio-organo guztietan (zigor arloan, arlo zibilean, administrazioarekiko arloan eta gizarte arloan) epaitegiek euskaraz lan egiteko aukera egotea
- Epailleek, justizia administrazioaren letratuek, ofizialek eta fiskalek, besteak beste, euskara ezagutu eta menperatu behar izatea
- Langileen trebakuntza bermatzea
- Langile berrien kontratazioan hizkuntza-irizpidea bermatzea.
- Giza baliabide eta baliabide ekonomikoak helburuen arabekoak izatea
- Hizkuntza-politika orokorrean justizia ataleko plangintza jasota egotea

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

4. LEHENTASUNEZKO EREMUAK

4.2. Justizia-administrazioa

- 4.2.3. **33. neurria** A.2.3. atalean jasotzen den plangintza garatzean, administrazioek modu berezian lantzen dute arlo hau, haren ezaugarri bereziak direla eta, eta planaren jarraipena egiteko sistemaren bat abian jartzen dute.

Adierazlea: Plangintzan modu berezian lantzen al da arlo hau eta jarraipena egiteko sistemarik eratu al da?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Hizkuntza-plangintza justizia departamentu guztien urteko kudeaketa-planean sartuta egotea
- Departamentu guztietan hizkuntza-plangintzaren jarraipena egitea
- Hizkuntza-plangintzako ekintzek arduradun bana eta bakarra edukitzea
- Zirkuituak departamentu eta sail guztietan egotea tresna gisa
- Printzipioak honako hauek izatea: Sustapen politika edo neurri positiboak, neurri zuzentzaileak, zehar-lerrotasuna, prebentzioaren ikuspegia (eragin linguistikoa)
- Administrazioko sail eta eremuak eskaldun izendatzea
- Kanpo-ebaluazioen gomendioak aintzat hartzea
- Hizkuntza-politikaren plangintzan justizia atal espezifiko gisa jasoa egotea.
- Atal honen helburuek euskal hitzunen hizkuntza-eskubideak bermatzeari zuzenduta daudela ziurtatzea

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

4. LEHENTASUNEZKO EREMUAK

4.2. Justizia-administrazioa

- 4.2.4. **34. neurria** Justizia-administrazioak neurri egokiak aplikatzen ditu epaile, fiskal, idazkari eta bestelako profesionalak hizkuntza-gaitasuna eskuratu dezaten.

Adierazlea: Hizkuntza gaitasun egokia bermatua duten lanpostuen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Euskararen derrigorrezko ezagutza ezartzea epaile, fiskal zein idazkariei
- Zirkuituak eratzeko, lehentasunak ezartzea
- Lanpostuei hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data iraungia esleitzea, eta betearazteko mekanismoak egotea
- Prestakuntza- eta trebakuntza-planak egotea
- Langile berriek hizkuntza-gaitasun egokia dutela bermatzea
- Lanerako gaitasunak euskaraz egiaztatzea
- Hizkuntza-eskakizuna eta gaitasuna neurtzeko prozedurak egokitzea epealdika (azterketak euskaraz, praktikak euskaraz...)

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

4. LEHENTASUNEZKO EREMUAK

4.2. Justizia-administrazioa

- 4.2.5. **35. neurria** Justizia-administrazioak neurriak hartzen ditu lege-testuak, kodeak eta antzeko materialak hizkuntza gutxituan daudela bermatzeko.

Adierazlea: Eskuragarri dauden lege-testu eta antzeko materialen artean, hizkuntza gutxituan daudenen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Indarrean dagoen araubidearen hizkuntza-diagnosia egitea
- Legeria eguneratzen denerako prozedura-testuak euskaraz ahalik eta lasterren izateko mekanismoak egotea
- Itzultzeko falta diren testuak euskaratzeko egutegia zehaztu eta baliabideak esleitzea

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

4. LEHENTASUNEZKO EREMUAK

4.2. Justizia-administrazioa

- 4.2.6. **36. neurria** Plangintzako beste alderdi batzuk bat datoz A.2.3. atalean zehaztutakoarekin.

Adierazlea: Justizia sistemak ba al du Protokolo 19-23 neurriak **Mota:** P
betetzen dituen plangintza orokorrik?

EZAUGARRIAK

- Kanpo-kontratazioan eta zerbitzuak erakunde pribatuetan uztean, hizkuntza-irizpideak txertatzea
- Langile eta profesionalen trebakuntza espezifiko egotea
- Euskaraz lan egiteko lan-tresnak eskura egotea
- Justizia arloko helburu espezifikoek euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak bermatzeari zuzenduta daudela ziurtatzea

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

4. LEHENTASUNEZKO EREMUAK

4.2. Justizia-administrazioa

- 4.2.7. **37. neurria** Justizia-administrazioak/Administrazio publikoak neurriak hartzen ditu errolatze ofiziala hizkuntza gutxituan ahalbidetzeko.

Adierazlea: Hizkuntza gutxituan errolatu ahal izatea edozein **Mota:** B/E
erregistro egitea bermatua al dago?

EZAUGARRIAK

- Errolda ofiziala euskaraz egiteko lege-babesa egotea
- Hizkuntza-politikako justizia ataleko plangintzan jasoa egotea
- Baliabide informatikoak eta tresnak euskaraz badaudela egiaztatzea

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

4. LEHENTASUNEZKO EREMUAK

4.3. Polizia

- 4.3.1. **38. neurria** Administrazioak neurriak hartzen ditu poliziako kideak hizkuntza gutxituan aritzeko gai direla bermatzeko.

Adierazlea: Hizkuntza gaitasun egokia bermatua duten lanpostuen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Poliziaren arloa lehentasunezko eremu legez izendatzea
- Polizia hizkuntza-politikaren plangintza orokorrean atal espezifiko gisa jasoa egotea, eta arloko beharrei erantzungo dien neurri egokiak lantzea
- Egun dauden lanpostuetan euskara-gaitasunaren diagnosis
- Euskalduntze-planerako lehentasunak ezartzea
- Lanpostuei hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data iraungia esleitzea eta betearazteko mekanismoak egotea
- Prestakuntza- eta trebakuntza-planak egotea
- Langile berriek hizkuntza-gaitasun egokia dutela bermatzea
- Zirkuituak departamentu eta sail guztietan egotea tresna gisa
- Lanerako gaitasunak euskaraz egiaztatzea
- Hizkuntza-eskakizuna eta -gaitasuna neurtzeko prozedurak egokitzea epealdika (azterketak euskaraz, praktikak euskaraz...)
- Lan-tresnak euskaraz egotea

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

4. LEHENTASUNEZKO EREMUAK

4.3. Polizia

- 4.3.2. **39. neurria** Administrazioak kanpoko enpresak kontratatzen ditutenean zaintzaz edo segurtasunaz arduratzeko, hizkuntza-irizpide batzuk betearazten dizkie.

Adierazlea: Hizkuntza-irizpideak betearazten zaizkien zerbitzu esternalizatuen ehunekoa **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Kanpo-kontratazioan eta zerbitzuak erakunde pribatuetan uztean, hizkuntza-irizpideak txertatzea
- Betetzen ez denerako xehapenak jartzea
- Hizkuntza-plangintzan jasoa egotea

B. KOMUNIKAZIOA

1. **40. neurria** Kanpo- eta barne-komunikazioetan bete beharreko jarraibide lotesle batzuk finkatzen ditu Administrazioak. Alderdi hauek zehazten dira bertan:

Adierazlea: Protokoloaren irizpideak jasotzen dituen komunikazioari **Mota:** P buruzko jarraibideen betetze maila.

EZAUGARRIAK

- Irudi korporatiboaren gidaliburuan hizkuntza-irizpidea txertatzea
- Hizkuntza-irizpideak barne araudian jasotzea
- Kanpo- eta barne-komunikazioa hizkuntza-irizpideen arabera finkatzeko baliabide teknikoak ezartzea (itzultzaileak...)
- Kanpo-kontratazioan eta zerbitzuak erakunde pribatuetan uztean, hizkuntza-irizpideak ezartzea eta betearaztea
- Hizkuntza-plangintza orokorrean jasoa egotea

B. KOMUNIKAZIOA

- 1.1. **41. neurria** Administrazioak hizkuntza gutxitua erabiltzen du bere irudi korporatiboan eta errotulazioan.

Adierazlea: Irudi eta errotuluetatik, hizkuntza gutxituan daudenen ehuneko. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Irudi eta errotuluen identifikazioa eta inbentarioa jasoa egotea
- Irudi korporatiboaren gidaliburuan hizkuntza-irizpidea txertatzea
- Behin betiko eta behin-behineko elementuak kontuan hartzea
- Euskara lehenestea
- Antzeko idazketa dutenean, euskaraz izatea, eta piktogramak baliatzea
- Hizkuntza-plangintza orokorrean jasoa egotea

B. KOMUNIKAZIOA

- 1.2. **42. neurria** Administrazioak hizkuntza gutxitua erabiltzen du bere barne- eta kanpo-komunikazioan.

Adierazlea: Barne- eta kanpo-komunikaziotik, hizkuntza gutxituan dagoenaren ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Inprimakien, formularioen, instantzien, eta antzeko dokumentuen zerrendatzea eta inbentariatzea
- Herritarrei helarazten zaizkien dokumentuak, orokorrak zein pertsonalizatuak euskaraz egotea
- Kartelak eta komunikazio-euskarriak, oro har, aintzat hartzea
- Langileei igortzen zaizkien barne-oharrak, zirkularrak, nominak, kontratuak eta bestelako dokumentuei ere erreparatzea
- Langileekiko ahozko komunikazioa kontuan hartzea
- Herritarrekiko ahozko arreta bermatzea
- Webguneak eta lanerako tresna informatikoak kontuan hartzea
- Pertsona fisikoak eta juridikoak kontuan hartzea zerbitzua eskaintzerakoan (elkarte, enpresa...)
- Kanpo-kontratazioetan eta zerbitzu-esleituetan hizkuntza-irizpideak ezartzea eta betearaztea
- Administrazioak sortze hizkuntza euskara izan dadila bultzatzea
- Argitalpen orokorrak eta berezituak kontuan hartzea
- Hizkuntza-plangintza orokorrean jasoa egotea

B. KOMUNIKAZIOA

- 1.3. **43. neurria** Araituta dago edozein dokumentu zein argitalpen ofizialek balio juridiko osoa izango dutela, soilik hizkuntza gutxituan egon arren.

Adierazlea: Araituta al dago balio osoa izango dutela? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Lege-garapenean balio juridikoaren aipamena egotea

B. KOMUNIKAZIOA

- 1.4. **44. neurria** Administrazioak neurriak hartzen ditu ekitaldi publikoetan hizkuntza gutxitua erabiltzen dela bermatzeko, esaterako, bilera publikoetan, aurkezpen publikoetan...

Adierazlea: Ekitaldi publikoetan hizkuntza gutxituaren erabileraren ehunekoa **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Jendaurreko ekitaldiak kontuan hartzea eta euskararen presentzia lehentasunezko irizpidearen eta progresibitatearen irizpidearen arabera neurtzea
- Teknikak berriak aztertzea eta aplikatzea diskurtsoak bi hizkuntzetan errepikatu behar ez izateko, euskarari lehentasuna emanez
- Ume eta gazteei lotutako ekitaldietan irizpide berezituak egotea, euskara lehenetsiz
- Hizkuntza-plangintza orokorrean jasoa egotea

C. HIZKUNTZA GUTXITUA ETA LAN-EREMUA

1. **45. neurria** Administrazioak bermatu egiten du hizkuntza gutxitua lantokian erabiltzeko aukera, eta lan-eremuan hizkuntza gutxitua ez debekatzea bultzatzen du.

Adierazlea: Hizkuntza gutxituan lan egiteko aukera duten langileen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Langileen barne-mugikortasuna ahalbidetzea administrazioetan arnasmugak sortzeko
- Lan-tresnak euskaraz egotea
- Beharrezko bitartekoak egotea langileei hizkuntza ez aldarazteko
- Arduradun politikoek, idazkari talde buruek eta goi mailako funtzionarioek ziurtatuta duten euskara maila erabilarazteko protokoloak egotea
- Sentsibilizazio-saioak antolatzea
- Euskaraz lan egiteko aukera ez debekatzea
- Baliabide teknikoak egotea
- Hizkuntza-plangintza orokorrean jasoa egotea
- Lana euskaraz egiteko lege-babesa egotea

C. HIZKUNTZA GUTXITUA ETA LAN-EREMUA

2. **46. neurria** Administrazioak neurriak hartzen ditu lan-jarduna eta langileen arteko komunikazio ofizialak hizkuntza gutxituan egin daitezen.

Adierazlea: Ba al dago neurririk lan-jarduna eta langileen arteko komunikazio ofizialak hizkuntza gutxituan egin daitezen? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Arduradun politikoei, idazkari talde-buru eta goi mailako funtzionarioei ziurtatuta duten euskara-maila erabilarazteko protokoloak egotea
- Euskara ulertzen ez dutenekin komunikazio elebiduna bideratzea, besteekin euskara hutsez aritzea
- Lan-taldeetako lan-hizkuntza euskara izatea
- Langile guztiek trebakuntzarako aukera izatea
- Langile guztiek euskarazko gaitasuna izatea (ulermen-maila)
- Langileen barne-mugikortasuna ahalbidetzea administrazioetan arnasguneak sortzeko
- Baliabide teknikoak egotea
- Hizkuntza-plangintzan jasoa egotea

C. HIZKUNTZA GUTXITUA ETA LAN-EREMUA

3. **47. neurria** Administrazio-dokumentuak hizkuntza gutxituan sortzeko aukera ematen du Administrazioak.

Adierazlea: Hizkuntza gutxituan sortutako administrazio-dokumentuen ehunekoa **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Sorkuntzarako trebakuntza-saioak egotea
- Sail guztietan laugarren hizkuntza-eskakizuna duten langileak egotea
- Hizkuntza-plangintza orokorrean jasoa egotea

C. HIZKUNTZA GUTXITUA ETA LAN-EREMUA

4. **48. neurria** Bermatuta dago lan-deialdietako frogak hizkuntza gutxituan egiteko aukera.

Adierazlea: Hizkuntza gutxituan egin litezkeen lan-deialdietako frogen ehunekoa **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Azterketarako dokumentazioa eta prestakuntza guztia euskaraz eskaintzea
- Administrazioetako deialdietan euskaraz egiteko aukera bermatzea
- Hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan, euskararen gaitasuna neurtzeko, lan-deialdietako frogak euskaraz egitea
- Hizkuntza-plangintza orokorrean jasoa egotea
- Lege-garapenean jasotzea

C. HIZKUNTZA GUTXITUA ETA LAN-EREMUA

5. **49. neurria** Lan-eremuan hizkuntza gutxituaren aldeko jarrerak bultzatzen eta saritzen ditu Administrazioak.

Adierazlea: Bultzatzen eta saritzen ditu Administrazioak lan-eremuan hizkuntza gutxituaren aldeko jarrerak **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Garapen profesionalaren aldaketa integral baten barruan, euskararen ezagutza eta erabilera balioztatzea

2. EREMUA:

HEZKUNTZA

A. HEZKUNTZA FORMALA

1. HAUR-HEZKUNTZA
2. DERRIGORREZKO HEZKUNTZA: LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA
3. LANBIDE-HEZIKETA ETA –TREBAKUNTZA
4. UNIBERTSITATEA ETA GAINERAKO GOI-MAILAKO HEZKUNTZA IKASKETA-PLANA IKERKETA
5. ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

B. HEZKUNTZA INFORMALA

1. AISIALDI-ZENTROAK, KIROL-TALDE ETA FEDERAZIOA

C. IRAKASLEEN ETA HEZITZAILEEN TREBAKUNTZA

1. IRAKASLEAK
2. HEZITZAILEAK
3. ETENGABEKO IRAKASKUNTZA

D. HELDUEK HIZKUNTZA GUTXITUA IKASTEA

E. CURRICULUMAK ETA MATERIALAK

1. CURRICULUMA
2. IRAKAS-MATERIALA

A. HEZKUNTZA FORMALA

1. HAUR-HEZKUNTZA

- 1.1. **50. neurria** Zuzenean edo zeharka finantzazio publikoa jasotzen duten ikastetxe guztietan haurrei hizkuntza gutxituan irakasten zaie.

Adierazlea: Haur guztiek hezkuntzaren %75 baino gehiago hizkuntza gutxituan jasotzen duten ikastetxeen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Murgiltze-mantentze ereduaz mintzo garenean honako hau jasotzea: ikastetxe osoaren funtzionamendua euskaraz izango da (irakaskuntza, barne- eta kanpo-harremanak, langileen arteko harremanak, gurasoekin harremanak...)
- Administrazioek murgiltze-mantentze eredu bakarrari, beharrezkoa denean modu progresioan, bide emateko erabakia hartzea
- Murgiltze- eta mantentze-ereduak lege-babesa eta haren aplikaziorako lege-garapenak zein finantzazio-lerroak edukitzea
- Ikasle Euskaldun Eleaniztunak hizkuntza-proiektua aitortzea, homologatzea eta garatzea
- Ikastetxe guztietan eta batez ere murgiltze- edo mantentze-eredua dutenetan, hizkuntza-proiektuak garatzea edo berritzea Ikasle Euskaldun Eleaniztunak proiektuaren irizpide eta markoaren baitan
- Murgiltze- edo mantentze-eredua eskatzen duten guraso kopurua, ikastetxe bat irekitzeko nahikoa ez denean ere, ezaugarri hori bermatzea, horretarako ratioak eta eraikinak egokituz
- Lehen urrats gisa, euskarazko zentroak gurasoen herritik urrun daudenean, diru-laguntzak eskaintzea jangela eta garraiorako
- Ikastetxeak euskararentzat desagokiak diren guneeetan daudenean, baliabide gehiago bermatzea ratioak egokitu ditzaten murgiltze- eta mantentze-eredua eraginkorra izan dadin
- Murgiltze- eta mantentze-eredukoak ez diren beste ikastetxeetan murgiltze ereduranzko bidea planifikatzea, eta administrazioak baliabideak jartzea, prozesu ordenatua eta eraginkorra izan dadin
- Itunpeko edo sare pribatuetako ikastetxeei ere administrazioak oinarriak ezartzea euskararen irakaskuntzari dagokionez
- Murgiltze- eta mantentze-ereduaren beharraz eta onurez informazioa zabaltzea
- Zentroen eta beraien giza unibertsoaren euskararen gaitasunaren arteko erlazioa definituko duen diagnostikoa egitea
- Diagnostikotik jasotako datuen jarraipena eta proposatu beharreko neurri zuzentzaileak definitzeko tresna sortzea
- Euskara bermatzen ez duten ikastetxeei diru- laguntza kentzea
- Hezkuntza euskalduntzeko plangintzan jasoa egotea
- Hezkuntza legean eta dagozkion lege-garapenetan jasoa egotea

A. HEZKUNTZA FORMALA

1. HAUR-HEZKUNTZA

- 1.2. **51. neurria** Lehen urrats gisa, hizkuntza gutxituko hezkuntza eskuragarri dago eskatzen duten familia guztientzat.

Adierazlea: Haur-hezkuntza hizkuntza gutxituan jasotzeko eskatu duten familietatik, eskatutakoa jaso dutenen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Euskarazko eskaintza familia guztiei bermatzeko lege-babes eta baliabideak egotea
- Murgiltze- eta mantentze-eredua eskatzen duten guraso-kopurua ikastetxe bat irekitzeko nahikoa ez denean ere, ezaugarri hori bermatzea, horretarako ratioak eta eraikinak egokituz
- Murgiltze- eta mantentze-ereduaren beharraz eta onurez informazioa zabaltzea
- Lehen urrats gisa, euskarazko zentroak gurasoen herritik urrun daudenean, diru-laguntzak eskaintzea jangela eta garraiorako

A. HEZKUNTZA FORMALA

1. HAUR-HEZKUNTZA

- 1.3. **52. neurria** Eskolaz kanpoko jarduera guztiak eskuragarri daude hizkuntza gutxituan.

Adierazlea: Hizkuntza gutxituan eskainitako jardueren ehunekoa.

Mota: %

EZAUGARRIAK

- Eskolaz kanpoko jarduerak ikastetxeko hizkuntza-proiektuan jasota egotea eta ikastetxeak betetzeaz arduratzea
- Eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen dituzten elkarte eta enpresek hizkuntza-irizpideak betetzea zerbitzua eskaini ahal izateko eta diru-laguntzak jaso ahal izateko
- Eremu horietarako ere langileen lanpostuetan hizkuntza-eskakizunak ezarriak egotea
- Entitate publikoak direnean, administrazio-arduradunak lanean dauden langile-irakasle ez euskaldunak euskaldundu daitezen plangintza egitea eta bitartekoak bermatzea hizkuntza-proiektua bete dezaten
- Ikastetxeko arduradunek eta eskolaz kanpoko jardueretako arduradunek hizkuntza-proiektua elkarrekin osatzea
- Eskola-kirolean ardua duten administrazioek kirolean euskararen erabilera bultzatzea, komunikazio-kanpainak eginez eta trebakuntza-saioak antolatuz
- Guraso-elkarteek egiten dituzten kontratazioetan hizkuntza-irizpideak jasotzea
- Dagokion administrazioak begirale-hezitzaileen kontratazioak egiterakoan hizkuntza-irizpidea jasotzea, euskaldun izatea ezinbesteko baldintza bezala jasoz
- Hizkuntza-proiektuan jasoa egotea

A. HEZKUNTZA FORMALA

1. HAUR-HEZKUNTZA

- 1.4. **53. neurria** Ikastetxeko langileek hizkuntza gutxituan aritzeko gaitasuna dute.

Adierazlea: Hizkuntza gutxituan aritzeko ahozko eta idatzizko gaitasuna frogatu duten langileen ehunekoa.

Mota: %

EZAUGARRIAK

- Sarbide-probak, lehiaketak eta oposizioak euskaraz egitea
- Administrazioek sarrera-profilak zehaztu eta arautzea
- Kontratu berri gutzietako baldintzetan euskararen eskaera jasoa izatea
- Egun dauden langile ez euskaldunak euskaldundu behar dutela erabakitzea eta bitartekoak jartzea
- Dagokion epean langileek hizkuntza-gaitasuna lortu ezean, administrazioak lanpostu-aldaketa edo bestelako erabakiak hartu ahal izatea
- Langile guztiei trebakuntza jasotzeko aukera bermatzea
- Haurren heziketa-prozesuan lanean dihardutenean euskalduntze progresiboa planifikatzea aurrez aurreko harremana dutenengandik hasita
- Lanpostu guztiek gutxienez B2/C1 mailakoak izatea lanpostuaren beharren arabera
- Hizkuntza-proiektuan jasoa egotea
- Hezkuntza legean jasoa egotea

A. HEZKUNTZA FORMALA

1. HAUR-HEZKUNTZA

- 1.5. **54. neurria** Baliabide osagarriak eskaintzen zaizkie eskolak hizkuntza gutxituan jasotzen dituzten taldeei.

Adierazlea: Hizkuntza gutxituan aritzeko ahozko eta idatzizko gaitasuna frogatu duten langileen ehunekoak.

Mota: %

EZAUGARRIAK

- Baliabide osagarriak euskaraz egotea hainbat esparrutan: materialgintza, eremu digitala, joko didaktikoak, giza baliabideak, pedagogia berritzaileak...
- Testuinguru formal eta informaletarako baliabideak bereiztea
- Ikastetxeak euskararentzat desegokiak diren guneeetan daudenean, baliabide gehiago bermatzea ratioak egokitu ditzaten murgiltze-mantentze eredia eraginkorra izan dadin
- Hizkuntza-proiektuan jasoa egotea
- Administrazioek baliabide osagarrietarako lerro espezifikoak sortzea

A. HEZKUNTZA FORMALA

1. HAUR-HEZKUNTZA

- 1.6. **55. neurria** Komunikazioari dagokionez, Administrazio Publikoaren ataleko 40-44 neurriak ikastetxe guztietan aplikatzen dira.

Adierazlea: Ba al da komunikazioari buruzko jarraibide loteslerik? Betetzen al dira Administrazioaren 40-44 neurriak?

Mota: P

EZAUGARRIAK

- Irudia eta errotulazioa euskaraz egotea
- Euskararen presentzia bermatzea, gutunetan, mezuetan eta ahozko erabileran
- Barne- eta kanpo-komunikazioan euskara erabiltzea
- Euskara ikastetxeko funtzionamendurako hizkuntza izendatzea
- Sortutako dokumentu ofizialen balio juridikoa aitortzea, euskaraz soilik egonda ere
- Ahozko erabilera bermatzea
- Hizkuntza-proiektuan jasoa egotea
- Hezkuntza legean jasoa egotea

A. HEZKUNTZA FORMALA

2. DERRIGORREZKO HEZKUNTZA: LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA

2.1. **56. neurria** Bada murgiltze- eta mantentze-sistema orokor bat hizkuntza gutxituan.

Adierazlea: Eskolen %75 baino gehiago hizkuntza gutxituan ematen dituzten ikastetxeen ehunekoa, adin-tarte bakoitzeko. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Murgiltze- eta mantentze-ereduak ikastetxe osoaren funtzionamendua euskaraz izango dela jasotzea (irakaskuntza, barne- eta kanpo-harremanak, langileen arteko harremanak, gurasoekin harremanak...)
- Administrazioek murgiltze- eta mantentze-eredu bakarrari, beharrezkoa denean modu progresiboan, bide emateko erabakia hartzea
- Murgiltze- eta mantentze-ereduak lege-babesa eta haren aplikaziorako lege-garapenak zein finantzazio-lerroak edukitzea
- Administrazioak hezkuntza euskalduntzeko plangintza orokorra garatzea, euskarazko murgiltze- eta mantentze-eredua orokortzeko helburua izango duena
- Ikastetxe guztietan eta batez ere murgiltze- eta mantentze-eredua dutenetan, hizkuntza-proiektuak garatzea edo berritzea Ikasle Euskaldun Eleaniztunak proiektuaren irizpide eta markoaren baitan
- Ikasle Euskaldun Eleaniztunak hizkuntza-proiektua aitortzea, homologatzea eta garatzea
- Lehen urrats gisa, euskarazko zentroak gurasoen herritik urrun daudenean, diru-laguntzak eskaintzea jangela eta garraiorako
- Ikastetxeak euskararentzat desegokiak diren guneeetan daudenean, baliabide gehiago bermatzea ratioak egokitu ditzaten murgiltze-mantentze eredia eraginkorra izan dadin
- Murgiltze- eta mantentze-eredukoak ez diren beste ikastetxeetan murgiltze-ereduranzko bidea planifikatzea, eta administrazioak baliabideak jartzea, prozesu ordenatua eta eraginkorra izan dadin
- Itunpeko eta sare pribatuetako ikastetxeei ere administrazioak oinarriak ezartzea euskararen irakaskuntzari dagokionez
- Ikasleen irteera-profila B2 mailakoa izatea, gutxienez
- Zentroen eta beraien giza unibertsoaren euskararen gaitasunaren arteko erlazioa definituko duen diagnostikoa egitea
- Datu horien jarraipena eta proposatu beharreko neurri zuzentzaileak definitzeko tresna sortzea
- Diagnostikotik jasotako datuen jarraipena eta proposatu beharreko neurri zuzentzaileak definitzeko tresna sortzea
- Murgiltze- eta mantentze-ereduaren beharraz eta onurez informazioa zabaltzea
- Hizkuntza gutxitua bermatzen ez duten ikastetxeei diru-laguntza kentzea
- Hezkuntza euskalduntzeko plangintzan jasoa egotea
- Hezkuntza legean eta dagozkion lege-garapenetan jasoa egotea

A. HEZKUNTZA FORMALA

2. DERRIGORREZKO HEZKUNTZA: LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA

2.2. **57. neurria** Lehen urrats gisa, hizkuntza gutxituko hezkuntza eskuragarri dago eskatzen duten familia guztientzat.

Adierazlea: Derrigorrezko hezkuntza hizkuntza gutxituan jasotzeko eskatu duten familietatik, eskatutakoa jaso dutenen ehunekoa **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Euskarazko eskaintza familia guztiei bermatzeko lege-babes eta baliabideak egotea
- Murgiltze- edo mantentze-eredua eskatzen duten guraso kopurua, ikastetxe bat irekitzeko nahikoa ez denean ere, ezaugarri hori bermatzea, horretarako ratioak eta eraikinak egokituz
- Murgiltze- eta mantentze-ereduaren beharraz eta onurez informazioa zabaltzea
- Lehen urrats gisa, euskarazko zentroak gurasoen herritik urrun daudenean, diru-laguntzak eskaintzea jangela eta garraiorako

A. HEZKUNTZA FORMALA

2. DERRIGORREZKO HEZKUNTZA: LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA

- 2.3. **58. neurria** Hizkuntza gutxiuaren bidezko irakaskuntza, ahozko gaitasunak eta alfabetatzea barne, eskuragarri dago.

Adierazlea: Derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan hizkuntza gutxiuan hizkuntza-gaitasun eta jario egokia egiaztatu duten ikasleen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Administrazioek murgiltze- eta mantentze-eredu bakarrari, beharrezkoa denean modu progresiboan, bide emateko erabakia hartzea
- Ikasleek derrigorrezko hezkuntza amaitzean lehen mailan B1 eta bigarren mailan B2 maila, gutxienez, egiaztatzea
- Derrigorrezko Hezkuntza bukatzerakoan, hizkuntza-kompetentzia ebaluatzea Europako Hizkuntzetarako Erreferentzia Marko Bateratuan oinarrituta
- Euskalkien berezitasuna kontuan harturik ahozkotetasuna lantzeko baliabide material eta giza baliabideak jartzea hizkuntza-proiektuetan aldagai hori jaso dadin
- Administrazioak ikasleen irteera-profilak zehaztea, B2 gutxienez
- Hizkuntza-proiektuan jasoa egotea

A. HEZKUNTZA FORMALA

2. DERRIGORREZKO HEZKUNTZA: LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA

- 2.4. **59. neurria** Eskolarekin zerikusia duten jarduera guztiak -ikastetxe barruan nahiz kanpoan egiten direnak, eskolaz kanpoko jarduerak, etab.- eskuragarri daude hizkuntza gutxituan.

Adierazlea: Hizkuntza gutxituan eskaintako jardueren ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Eskolaz kanpoko jarduerak ikastetxeko hizkuntza-proiektuan jasota egotea eta ikastetxeak betetzeaz arduratzea
- Eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen dituzten elkarte eta enpresek hizkuntza-irizpideak betetzea zerbitzua eskaini eta diru-laguntzak jaso ahal izateko
- Eremu horietarako ere langileen lanpostuetan hizkuntza-eskakizunak ezarriak egotea
- Entitate publikoak direnetan administrazio-arduradunak lanean dauden langile-irakasle ez euskaldunak euskaldundu daitezen plangintza egitea eta bitartekoak bermatzea hizkuntza-proiektua bete dezaten
- Ikastetxeko arduradunek eta eskolaz kanpoko jardueretako arduradunek hizkuntza-proiektua elkarrekin osatzea
- Eskola-kirolean ardura duten administrazioek kirolean euskararen erabilera bultzatzea komunikazio-kanpainak eginez eta trebakuntza-saioak antolatuz
- Guraso-elkarteek egiten dituzten kontratazioetan hizkuntza-irizpideak jasotzea
- Dagokion administrazioak begirale-hezitzaileen kontratazioak egiterakoan, hizkuntza-irizpidea jasotzea, euskaldun izatea ezinbesteko baldintza bezala jasoz
- Hizkuntza-proiektuan jasoa egotea

A. HEZKUNTZA FORMALA

2. DERRIGORREZKO HEZKUNTZA: LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA

- 2.5. **60. neurria** Hizkuntza gutxituko gaitasunak eskuratzeak dakartzan onurei buruzko informazioa aktiboki zabaltzen da etorkinen artean.

Adierazlea: Ba al dago jarraibiderik etorkinak hizkuntza gutxituaren bidezko irakaskuntza lehenestera bultzatzen dituen? **Mota:** P

EZAUGARRIAK

- Administrazioak planifikatuta, etorkinei bideratutako baliabide eta beharrezko errefortzuak ziurtatzea, euskaran murgildu daitezen
- Administrazioak irakasleen formazioa bermatzea etorkinen errealitateari eta beharrei erantzuteko gai izan daitezen
- Murgiltze- eta mantentze-ereduetan matrikulatutako etorkin-kopuruak alderatzea beste ereduetan matrikulatutakoekin ikasturte bakoitzean progresiorik dagoen ikusteko
- Harrera-protokoloan, hizkuntza gutxituko gaitasunak eskuratzeak dakartzan onurei buruzko informazioa zabaltzea
- Gurasoek matrikulazio garaian euskarazko ikasketen garrantziaz jabetzeko ikastaroak izatea
- Etorri berrientzat adingabeentzako harrera-egoitzetan euskarazko formazioa eskaintzea
- Udal zein mankomunitateetako jendarte-zerbitzuetan eragitea, besteak beste, komunikazio-kanpainak eta euskarri eraginkorrak sortuz, kultur aniztasuna balioetsiz...
- Kultur aniztasunaren eremuan lanean dauden eragileekin elkarlana sustatzea
- Hizkuntza-proiektuan jasoa egotea

A. HEZKUNTZA FORMALA

2. DERRIGORREZKO HEZKUNTZA: LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA

- 2.6. **61. neurria** Baliabide osagarriak esleitzen dira.

Adierazlea: Arautua al dago eskola hizkuntza gutxituan jasotzen dituzten taldeek baliabide osagarriak jasotzea? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Baliabide osagarriak egotea hainbat esparrutan: materialgintza, joko didaktikoak, giza baliabideak, pedagogia berritzaileak...
- Testuinguru formal eta informaletarako baliabideak bereiztea
- Ikastetxeak euskararentzat desegokiak diren guneean daudenean, baliabide gehiago bermatzea ratioak egokitu ditzaten murgiltze-mantentze eredu eraginkorra izan dadin
- Hizkuntza-proiektuak garatzeko aholkularitza eta baliabideak eskaintzea
- Hizkuntza-proiektuan jasoa egotea
- Administrazioek baliabide osagarrietarako lerro espezifikoak sortzea

A. HEZKUNTZA FORMALA

2. DERRIGORREZKO HEZKUNTZA: LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA

- 2.7. **62. neurria** Ikastetxeek beren hizkuntza-proiektuak diseinatu dituzte eta aplikatzen ari dira, beren hasierako diagnosi, helburu eta xede-adinekin. Curriculumeko hizkuntza guztien ibilbidea zehazten da proiektu horietan, bai ikasgela barrurako bai ikasgelatik kanporako.

Adierazlea: Protokoloan zehaztutako irizpideak aintzat hartuta, hizkuntza-proiektua aplikatzen ari diren ikastetxeen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Administrazioak hezkuntza euskalduntzeko plangintza orokorrean, hizkuntza-proiektuen inguruko irizpide orokorra zehaztea, non euskararen garapen osoa eta lehentasunezkoa ardatza izango den
- Ikastetxe guztiek hizkuntza-proiektua diseinatu eta garatzeko betebeharra edukitzea
- Hizkuntza-proiektuaren helburuek ikasleen irteera profilari erantzutea
- Ikasleen irteera-profila, gutxienez, B2 mailakoa izatea
- Hizkuntza-proiektuak garatzeko baliabide eta aholkularitza eskaintzea
- Ikastetxeek, administrazioaren plangintza orokorreko irizpideak segituz, hizkuntza-proiektuak haien errealitate soziolinguistikora egokitzea
- Hizkuntza-proiektuek ikastetxeak euskararentzat desegokiak diren eremuetan, tresnak eskaintzea euskararen garapena ziurtatzeko (ratioak, taldekatzeak, irakasleak, formakuntza espezifikoak...), horretarako behar diren baliabideak jasoz
- Hizkuntza-proiektuek kontuan hartzea ikastetxetik kanpoko ingurunea eta bertan eragiteko bokazioa izan behar dutela
- Euskalkien berezitasuna kontuan harturik ahozkoitasuna lantzeko baliabide material eta giza baliabideak jartzea hizkuntza-proiektuetan aldagai hori jaso dadin
- Kasua ematen denean, euskalkien irakaskuntzaren irizpideak finkatzea hizkuntza-proiektuetan
- Administrazioaren irizpideak segitu eta haien errealitatera egokitu ondoren, ikastetxeek hizkuntza-proiektuetan hizkuntza bakoitzak eskola barruan izango duen funtzioa eta hartuko dituen eremuak definituak izatea
- Administrazioaren irizpideak segitu eta haien errealitatera egokitu ondoren, ikastetxeek hizkuntza-proiektuetan euskara ez beste hizkuntza irakaskuntza noiz hasiko den eta ordutegian zein pisu izango duen zehazturik izatea

**62. neurriaren jarraipena*

EZAUGARRIAK

- Hizkuntza-irakasleen eta euskarazko irakaslearen arteko koordinazioa bermatzea hizkuntza-proiektuetan, hain zuzen ere, euskararen egoera gutxituagatik eta beste hizkuntzen nagusitasun egoeragatik
- Ikastetxeek, administrazioaren irizpideak segitu eta haien errealitatera egokitu ondoren, hizkuntza-proiektuetan ikasle euskaldun eta euskaldundu beharrekoen arabeko taldekatzeak definitzea, beharrezkoa denean ratioak egokituz, beti ere helburua euskararen garapena izanik
- Hizkuntza-proiektuen jarraipena egiteko administrazioak arauak eta protokoloak zehaztea, bai eta ikuskaritza ezartzea ere
- Hizkuntza-proiektuen jarraipena egiteko, ebaluazioak eta neurri zuzentzaileak lantzeko baliabide berezituak esleitzea
- Hezkuntza euskalduntzeko plangintza orokorrean jasoa egotea
- Hezkuntza euskalduntzeko legean eta lege-garapenean jasoa egotea

A. HEZKUNTZA FORMALA

2. DERRIGORREZKO HEZKUNTZA: LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA

- 2.8. **63. neurria** Giza baliabideak eta baliabide materialak eskuragarri daude irakasgai guztiak hizkuntza gutxituan irakasteko, bigarren hezkuntzan.

Adierazlea: Irakasgai guztietan hizkuntza gutxituan ahoz nahiz idatziz irakasteko gaitasun egokia duten irakasleen ehunekoa. Irakasgai guztietan hizkuntza gutxituan irakasteko, eskuragarri dagoen materialaren ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Administrazioek sarrera-profilak zehaztu eta arautzea
- Kontratu berri guztietan euskara eskatzea baldintza bezala
- Egun dauden langile ez euskaldunak euskaldundu behar dutela erabakitzea eta bitartekoak ezartzea
- Langile guztiei trebakuntza jasotzeko aukera bermatzea
- Haurraren heziketa-prozesuan lanean dihardutenean, euskalduntze progresiboa planifikatzea aurrez aurreko harremana dutenengandik hasita
- Euskararen ezagutzaz gain, gaitasuna ere erakutsi behar izatea, hala nola, hizkuntza-aberastasunean eta kalitatean
- Euskara irakasten ez duten irakasleek ere hizkuntzaren transmisioaren inguruko formakuntza jasotzea
- Baliabide materialei dagokienez, testuliburuen eta bestelako materialen hautaketan hizkuntza-irizpide argiak ezartzea ikastetxeetan
- Administrazioak argitaletxekin harremana bermatzea eta egonkortzea testuliburuek euskara egokia, zuzena eta aberatsa erabil dezaten
- Administrazioak bestelako baliabide pedagogikoak finantzatzea (berrikuntza pedagogikoa, ingurune digitala...)
- Hizkuntza-proiektuetan jasoa egotea
- Hezkuntza euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea

A. HEZKUNTZA FORMALA

2. DERRIGORREZKO HEZKUNTZA: LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA

- 2.9. **64. neurria** Langile guztiek gaitasuna dute hizkuntza gutxituan aritzeko.

Adierazlea: Hizkuntza gutxituan aritzeko gaitasuna duten langileen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Sarbide-probak, lehiaketak edo oposizioak, euskaraz egitea
- Administrazioek sarrera-profilak zehaztu eta arautzea
- Kontratu berri guztietan euskararen ezagutza eskatzea da baldintza bezala
- Egun dauden langile ez euskaldunak euskaldundu behar dutela erabakitzea eta bitartekoak ezartzea
- Epe zehatzetan langileek hizkuntza-gaitasuna lortu ezean, administrazioak lanpostu-aldaketa edo bestelako erabakiak hartu ahal izatea
- Langile guztiei trebakuntza jasotzeko aukera bermatzea
- Haurraren heziketa-prozesuan lanean dihardutenean euskalduntze progresiboa planifikatzea aurrez aurreko harremana dutenengandik hasita
- Irakasle ez diren lanpostu guztiek gutxienez B2/C1 mailakoak izatea lanpostuaren beharren arabera
- Hezkuntza euskalduntzeko legean jasoa egotea

A. HEZKUNTZA FORMALA

2. DERRIGORREZKO HEZKUNTZA: LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA

- 2.10. **65. neurria** Komunikazioari dagokionez, Administrazio publikoaren eremuko 40-44 neurriak eskola-sistema osoan aplikatzen dira.

Adierazlea: Ba al da Administrazioaren komunikazioari buruzko 40-44 neurrietan jasotako irizpideen inguruko jarraibide loteslerik?

Mota: P

EZAUGARRIAK

- Irudia eta errotulazioa euskaraz egotea
- Euskararen presentzia bermatzea, gutunetan, mezuetan eta ahozko erabileran
- Barne- eta kanpo-komunikazioan euskara erabiltzea
- Euskara ikastetxeko funtzionamendurako hizkuntza izendatzea
- Sortutako dokumentu ofizialen balio juridikoa aitortzea, euskaraz soilik egonda ere
- Ahozko erabilera bermatzea
- Hizkuntza-proiektuan jasoia egotea
- Hezkuntza legean jasoia egotea

A. HEZKUNTZA FORMALA

3. LANBIDE-HEZIKETA ETA -TREBAKUNTZA

- 3.1. **66. neurria** Lanbide-heziketa eta -trebakuntza hizkuntza gutxituan eskuragarri dago eskatzen duten ikasleentzat.

Adierazlea: Lanbide-heziketa eta -trebakuntza hizkuntza gutxituan eskatu duten ikasleentatik, eskaini zaienen ehunekoa.

Mota: %

EZAUGARRIAK

- Lanbide-heziketako euskalduntze-estrategia gidatuko duen lege-garapena osatzea
- Administrazioak lanbide-heziketa euskalduntzeko plangintza osatzea
- Arlo profesionalen eskaintza osoa euskaraz egotea
- Gelak osatzerako garaian ratioak egokitzea, euskarazko ikasgelak egotea bermatzeko
- Irakasleak euskaraz irakasteko gaitasuna izatea
- Hizkuntza-eskakizuna lanpostuen beharretara egokitzea
- Inguruko enpresen beharrak aztertzea euskarazko hezkuntza-eskaintza ahalbidetzeko
- Ikastetxeek inguruko enprekin hitzarmenak egiterakoan hizkuntza-irizpidea txertatzea
- Euskaraz lan egiteko tresnak eskuragarri edukitzea, besteak beste, baliabide informatikoak
- Lanbide-heziketa euskalduntzeko plangintzan jasoia egotea
- Lanbide-heziketa euskalduntzea lege-garapenean jasoia egotea

A. HEZKUNTZA FORMALA

3. LANBIDE-HEZIKETA ETA -TREBAKUNTZA

- 3.2. **67. neurria** Lantokiko prestakuntza eta praktikak eskuragarri daude hizkuntza gutxituan.

Adierazlea: Lantokiko prestakuntza edo praktikak hizkuntza gutxituan eskatu dutenen artetik, aukera izan dutenen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Praktikak euskaraz egiteko gaitasuna duten enpresak detektatzea
- Ikastetxeek enpresekin harremanetan jarri eta horiekin ere haien beharrak aztertu hizkuntza kontuan hartuta
- Administrazioak lantokiei baliabideak eskaintzea prestakuntzak euskaraz eman ditzaten
- Administrazioak praktikak euskaraz emateko trebakuntzak eskaintzea
- Ikastetxeek inguruko enpresekin hitzarmenak egiterakoan hizkuntza-irizpidea txertatzea
- Euskara-plana duten enpresek lehentasuna izatea praktiketako ikasleak hartzeko
- Enpresetan lantokiko prestakuntza eta DUALa euskaraz egiteko, ikastetxeko prozedurak eta erakundearen arteko harremanak euskaraz izan daitezen bideak jartzea, bide batez ikasleek praktikak euskaraz egiteko prozeduraren sistematizazioa abian jartzeko
- Administrazioak enpresei praktikak euskaraz eskaintzeagatik hobariak eskaintzea
- Lanbide-heziketa euskalduntzeko plangintzan praktikak euskaraz egiteko plana jasoa egotea

A. HEZKUNTZA FORMALA

3. LANBIDE-HEZIKETA ETA -TREBAKUNTZA

- 3.3. **68. neurria** Arlo profesional berriak eskuragarri daude hizkuntza gutxituan.

Adierazlea: Arlo profesional berri guztietatik, (gutxienez) hizkuntza gutxituan irakasten direnen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Arlo profesionaleko ziklo berrietako eskaintza euskaraz egotea
- Irakasleek euskaraz irakasteko gaitasuna edukitzea
- Gelak osatzerako garaian ratioak egokitzea, euskarazko ikasgelak egotea bermatzeko
- Hizkuntza-eskakizuna lanpostuen beharretara egokitzea
- Euskaraz lan egiteko tresnak eskuragarri edukitzea
- Inguruko enpresen beharrak aztertzea, euskarazko hezkuntza-eskaintza emateko
- Ikastetxeek inguruko enpresekin hitzarmenak egiterakoan hizkuntza-irizpideak txertatzea
- Enpresen beharrak ezagututa, hezkuntza-eskaintza zabaldu ziklo berriekin
- Arlo profesional berriak eskuratzean, euskarazko plazak bermatzea
- Lanbide-heziketa euskalduntzeko plangintzan jasotzea

A. HEZKUNTZA FORMALA

3. LANBIDE-HEZIKETA ETA -TREBAKUNTZA

- 3.4. **69. neurria** Administrazioak hizkuntza-proiektu bat garatzeko eskatzen die ikastetxeei. Ikastetxearen errealitatearen arabera, hizkuntza nagusia eta atzerriko hizkuntzak noiz eta nola txertatuko diren erabakitzea da proiektu horren zereginetako bat.

Adierazlea: Administrazioak hizkuntza-proiektua eskatu al die ikastetxeei? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Enpresetan lantokiko prestakuntza eta DUALa euskaraz egiteko, ikastetxeko prozedurak eta erakundearen arteko harremanak euskaraz izan daitezen bideak jartzea, bide batez ikasleek praktikak euskaraz egiteko prozeduraren sistematizazioa abian jartzeko
- Hizkuntza-proiektuen inguruko irizpide orokorra zehaztean, euskararen garapen osoa eta lehentasunezkoa ardatza izatea
- Hizkuntza-proiektua ikastetxe guztiek edukitzea
- Hizkuntza-proiektuaren helburuak ikasleen irteera-profilari erantzutea
- Hizkuntza-proiektuak garatzeko baliabide eta aholkularitza eskaintzea
- Hizkuntza-proiektuen jarraipena egiteko administrazioak arauak eta protokoloak zehaztea, bai eta ikuskaritza ezartzea ere
- Hizkuntza-proiektuen jarraipena egiteko ebaluazioak eta neurri zuzentzaileak lantzeko baliabide berezituak esleitzea
- Hizkuntza-proiektuen irizpideak lanbide-heziketako zikloen euskalduntze plangintza orokorrean jasotzea Hizkuntza-proiektuek ikastetxeak euskararentzat desegokiak diren eremuetan, tresnak eskaintzea euskararen garapena ziurtatzeko (ratioak, taldekatzeak, irakasleak, formakuntza espezifikoa...), horretarako behar diren baliabideak jasoz
- Lanbide-heziketako euskalduntzearen lege-garapenean jasoa egotea

A. HEZKUNTZA FORMALA

3. LANBIDE-HEZIKETA ETA -TREBAKUNTZA

- 3.5. **70. neurria** Hizkuntza gutxituan aritzeko gaitasuna dute langile guztiek.

Adierazlea: Hizkuntza gutxituan ahoz nahi idatziz aritzeko gaitasuna duten langileen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Sarbide-probak, lehiaketak edo oposizioak, euskaraz egitea
- Administrazioek sarrera profilak zehaztu eta arautzea
- Kontratu berri guztietan euskara eskatzea baldintza bezala
- Egun dauden langile ez euskaldunak euskaldundu behar dutela erabakitzea eta bitartekoak ezartzea
- Epean langileek hizkuntza-gaitasuna lortu ez badute administrazioak lanpostu aldaketa edo bestelako erabakiak hartu ahal izatea
- Langile guztiei trebakuntza jasotzeko aukera bermatzea
- Irakasle ez diren lanpostu guztiak gutxienez B2/C1 mailakoak izatea lanpostuaren beharren arabera
- Hezkuntza euskalduntzeko legean jasota egotea

A. HEZKUNTZA FORMALA

3. LANBIDE-HEZIKETA ETA -TREBAKUNTZA

- 3.6. **71. neurria** Komunikazioari dagokionez, Administrazio publikoaren eremuko 40-44 neurriak lanbide-heziketa zentroetan eta –trebakuntza zentroetan aplikatzen dira.

Adierazlea: Ba al da Administrazioaren komunikazioari buruzko 40-44 neurrietan jasotako irizpideen inguruko jarraibide loteslerik? **Mota:** P

EZAUGARRIAK

- Irudia eta errotulazioa euskaraz egotea
- Euskararen presentzia bermatzea, gutunetan, mezuetan eta ahozko erabileran
- Barne- eta kanpo-komunikazioan euskara erabiltzea
- Euskara ikastetxeko funtzionamendurako hizkuntza izendatzea.
- Sortutako dokumentu ofizialen balio juridikoa aitortzea, euskaraz soilik egonda ere
- Ahozko erabilera bermatzea
- Hizkuntza-proiektuan jasoa egotea
- Hezkuntza legean jasoa egotea

A. HEZKUNTZA FORMALA

4. UNIBERTSITATEA ETA GAINERAKO GOI MAILAKO HEZKUNTZA

- 4.1. Ikasketa plana
- 4.1.1. **72. neurria** Goi-mailako hezkuntzako fakultate guztiek beren plangintza dute hizkuntza gutxituko langile eta ikasleak identifikatu, eta haien beharrei lehentasuna emateko.

Adierazlea: Protokoloan zehaztutako irizpideak aintzat hartuta, plangintza aplikatzen ari diren fakultateen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Unibertsitate- eta goi-mailako zentroetako langile, irakasle eta ikasle euskaldunak identifikatzea
- Ikasleen behar eta lehentasunei buruzko azterketa egitea
- Goi-mailako ikasketak eta ikerketa arautzen eta planifikatzen dituen administrazioak behar horien arabera euskalduntze-plana osatu eta abian jartzea, modu progresiboan ikasgai eta ikasketa berriak txertatuz
- Irakasleen euskalduntze-plana definitzea, diseinatzea eta abian jartzea

A. HEZKUNTZA FORMALA

4. UNIBERTSITATEA ETA GAINERAKO GOI MAILAKO HEZKUNTZA

4.1. Ikasketa plana

- 4.1.2. **73. neurria** Unibertsitate mailako ikasgai guztiak hizkuntza gutxituan eskuragarri daude.

Adierazlea: Hizkuntza gutxituan eskuragarri dauden ikastaro guztien ehunekoa.

Mota: %

EZAUGARRIAK

- Goi-mailako ikasketak euskaraz egiteko eskubidea legez aitortzea
- Goi-mailako ikasketak arautzen eta planifikatzen dituen administrazioak euskalduntzeko plangintza osatzea
- Eremu horrek atal propioa edukitzea dagokion aginte gobernuan eta hezkuntza-politika sailean ere atal propioa edukitzea, euskalduntze plangintzaren jarraipena egiteko
- Unibertsitate- eta goi-mailako hezkuntzako zentroek plangintza garatzeko irizpideak, aholkularitza eta baliabideak jasotzea arduraduna den administrazioetik
- Goi-mailako ikasketak euskalduntzeko plangintzan ikasgaiak (hautazko asignaturak barne) euskalduntzeko behar diren bitarteko, baliabide eta epeak zehaztea ikasketa plan osoa euskaraz eskain dadin
- Lehen urratsa gisa, goi-mailako ikasketak euskalduntzeko plangintzan ratioei buruzko irizpideak egotea eta hizkuntza nagusiarenak baino apalagoak izatea
- Ordezkapenak ez ematea euskararen kaltetan
- Euskaraz irakasten ez dute irakasleei trebakuntza eskaintzea euskaraz irakats dezaten
- Doktoregoa eta bestelako ikerketak zein ikasketak euskaraz egin daitezen finantzazio-lerroa zabaltzea, besteak beste, beka-sistema berezituaren bidez

A. HEZKUNTZA FORMALA

4. UNIBERTSITATEA ETA GAINERAKO GOI MAILAKO HEZKUNTZA

4.1. Ikasketa plana

- 4.1.3. **74. neurria** Hizkuntza gutxituko ikastaro eta jardueren benetako eskuragarritasunari buruzko txosten bat idazten eta argitaratzen da aldiro-aldi.

Adierazlea: Argitaratzen al da hizkuntza gutxituko ikastaro eta jardueren benetako eskuragarritasunari buruzko txostena?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Administrazioak baliabideak jartzea txostenaren sorkuntza, edizio eta banaketarako
- Txostenaren maiztasuna zehaztea
- Goi-mailako ikasketak euskalduntzeko plangintzan jasoa egotea

A. HEZKUNTZA FORMALA

4. UNIBERTSITATEA ETA GAINERAKO GOI MAILAKO HEZKUNTZA

4.2. Ikerketa

- 4.2.1. **75. neurria** Jatorrizko ikerketa egin eta dibulgazio akademikoa argitaratu daiteke hizkuntza gutxituan.

Adierazlea: Ikerketak hizkuntza gutxituan argitaratzeko aukera ematen duten diziplina-arloen ehunekoa.

Mota: %

EZAUGARRIAK

- Jatorrizko ikerketa eta dibulgazioa arautzen eta planifikatzen dituen administrazioak eremu hori euskalduntzeko plangintza osatzea
- Jatorrizko ikerketa eta dibulgazio akademikoa euskaraz egiteko finantzazio-lerro espezifikoa egotea, bai eta laguntza sistema egonkorra ere
- Jatorrizko ikerketa eta dibulgazio akademikorako beharrezkoa den trebakuntza egotea, (formakuntza metodologikoak, baliabide teoriko-praktikoak...)
- Unibertsitateak dibulgaziorako dituen bideetan euskarazkoak lehenestea
- Euskaraz egindako edozein ikerketak balio juridiko edo ofizial berdina duela jasotzea legeak

A. HEZKUNTZA FORMALA

4. UNIBERTSITATEA ETA GAINERAKO GOI MAILAKO HEZKUNTZA

4.2. Ikerketa

- 4.2.2. **76. neurria** Ebaluazio-agentzia eta -instituzioek ez dituzte hizkuntza gutxituan egindako ekarpen zientifikoak gutxiago baloratzen.

Adierazlea: Ebaluazio-agentzia eta -instituzioek hizkuntza gutxituan egindako ekarpen zientifikoak besteen maila berean baloratzen al dituzte?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Euskarazko ekarpen zientifikoetan eta ikerketak ebaluatu zein zabaltzean hizkuntzagatiko diskriminaziorik ez egitea
- Lehen urrats gisa, euskarazko ekarpen zientifikoak eta ikerketak ebaluatzerakoan hizkuntza nagusiaren irizpide berak izatea, gutxienez

A. HEZKUNTZA FORMALA

4. UNIBERTSITATEA ETA GAINERAKO GOI MAILAKO HEZKUNTZA

- 4.3. **77. neurria** Komunikazioari dagokionez, Administrazio publikoaren eremuko 40-44 neurriak unibertsitateetan aplikatzen dira.

Adierazlea: Ba al da Administrazioaren komunikazioari buruzko 40-44 neurrietan jasotako irizpideen inguruko jarraibide loteslerik? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Irudia eta errotulazioa euskaraz egotea
- Euskararen presentzia bermatzea, gutunetan, mezuetan eta ahozko erabileran
- Barne eta kanpo komunikazioan euskara erabiltzea
- Euskara unibertsitate edo zentroko funtzionamendurako hizkuntza izango dela izendatzea
- Sortutako dokumentu ofizialen balio juridikoa aitortzea soilik euskaraz egon arren
- Ahozko erabilera euskara bermatzea
- Goi-mailako ikasketak euskalduntzeko plangintzan jaso egotea

A. HEZKUNTZA FORMALA

5. ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

- 5.1. **78. neurria** Jabetza publikoko musika- eta arte-eskola guztietako ikastaro guztiak eskuragarri daude hizkuntza gutxituan.

Adierazlea: Jabetza publikoko musika- eta arte-eskoletako ikastaroetatik, hizkuntza gutxituan eskuragarri dauden ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Eskola guztiek diagnosis egitea eskaintzen dituzten ikastaroetan euskarazkoak zenbat diren jakiteko
- Irakasleen hizkuntza-gaitasunari buruzko diagnosis egitea
- Ikastaro guztiak euskaraz eskaintze-aldera epekako plangintza diseinatzea, izaera orokorra duten ikastaroak euskaraz egotea lehenetsiz, bai eta ikasleen ohiko eskaera diren ikastaroak ere
- Plangintza hizkuntza-proiektuan txertatzea

A. HEZKUNTZA FORMALA

5. ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

- 5.2. **79. neurria** Administrazioak hizkuntza-proiektu bat garatzeko eskatzen die ha-lako ikastetxeei. Egungo errealitatearen arabera, hizkuntza gutxituan zer eskaintzen den zehaztea eta programa osoa hizkuntza gutxituan eskaintzeko egutegi bat finkatzea izango da hizkuntza-proiektuaren zereginetako bat.

Adierazlea: Administrazioak eskolaz kanpoko jardueri lotutako hizkuntza-proiektua eskatu al die ikastetxeei?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Administrazio publikoak eskolaz kanpoko jardueri buruzko araudia zehaztea eta bertan hizkuntza-proiektuaren jarduerak zehaztea
- Hizkuntza-proiektuaren irizpideak hezkuntza euskalduntzeko plangintzan jasoa egotea
- Gelak osatzerako garaian ratioak egokitzea, euskarazko aukera bermatzeko
- Hizkuntza-proiektuen jarraipena egiteko administrazioak arauak eta protokoloak zehaztea, bai eta ikuskaritza ezartzea ere
- Hizkuntza-proiektuen jarraipena egiteko, administrazioak arauak eta protokoloak zehaztea eta ikuskaritza ezartzea
- Hizkuntza-proiektuek, zentroak euskararentzat desegokiak diren eremuetan tresnak eskaintzea euskararen garapena ziurtatzeko (ratioak, taldekatzeak, Irakasleak, formakuntza espezifikoa...), horretarako behar diren baliabideak edukiz
- Lanean dauden langile eta irakasle ez-euskaldunak euskaldundu daitezen plangintza egitea eta bitartekoak bermatzea hizkuntza-proiektuak ezarritakoa betetzeko
- Euskarazko eskaintza bermatze-aldera, kontratazio berri guztietan hizkuntza-irizpideak ezartzea, irakasleei eta beste langileei
- Irakasgai diren alorretan erabiliko den idatzizko materiala euskaraz eskuragarri egongo dela bermatzea
- Hezkuntza alorra euskalduntzeko lege-garapenean jasotzea

A. HEZKUNTZA FORMALA

5. ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

- 5.3. **80. neurria** Jabetza publikoa ez duten, baina zuzenean edo zeharka diru-lagun-tza publikoak jasotzen dituzten ikastetxeek ere antzeko ezaugarriak dituen hizkuntza-proiektua aurkeztu behar dute.

Adierazlea: Administrazioak eskolaz kanpoko jardueri lotutako hizkuntza-proiektua eskatu al die ikastetxeei?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen dituzten elkarte eta enpresek hizkuntza-proiektua betetzea, zerbitzua eskaini ahal izateko eta diru-laguntzak jaso ahal izateko
- Gelak osatzerako garaian ratioak egokitzea, euskarazko aukera bermatzeko
- Hizkuntza-proiektuak garatzeko baliabide eta aholkularitza izatea
- Hizkuntza-proiektuaren irizpideak hezkuntza euskalduntzeko plangintzan jasoa egotea
- Hizkuntza-proiektuen jarraipena egiteko administrazioak arauak eta protokoloak zehaztea, bai eta ikuskaritza ezartzea ere

A. HEZKUNTZA FORMALA

5. ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

- 5.4. **81. neurria** Komunikazioari dagokionez, Administrazio publikoaren eremuko 40-44 neurriak aplikatuko dira musika- eta arte-eskoletan.

Adierazlea: Ba al da Administrazioaren komunikazioari buruzko 40-44 neurrietan jasotako irizpideen inguruko jarraibide loteslerik? **Mota:** P

EZAUGARRIAK

- Irudia eta errotulazioa euskaraz egotea
- Euskararen presentzia bermatzea, gutunetan, mezuetan eta ahozko erabileran
- Barne- eta kanpo-komunikazioan euskara erabiltzea
- Euskara ikastetxeko funtzionamendurako hizkuntza izango dela izendatzea
- Sortutako dokumentu ofizialen balio juridikoa aitortzea soilik euskaraz egon arren
- Ahozko erabilera euskara bermatzea
- Hizkuntza-proiektuan jasoia egotea

B. HEZKUNTZA INFORMALA

1. AISIALDI-ZENTROAK, KIROL-TALDE ETA FEDERAZIOAK

- 1.1. **82. neurria** Jabetza publikoko aisialdi-zentroetako jarduera guztiak eskuragarri daude hizkuntza gutxituan.

Adierazlea: Jabetza publikoko aisialdi-zentroetako jarduera guztietatik, (gutxienez) hizkuntza gutxituan eskuragarri daudenen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Aisia eta kirolean euskara sustatu eta babesteko lege-garapena egotea
- Aisia eta kirolak la-lerro berezitua edukitzea non hizkuntza-politikako irizpideak txertatuko diren
- Administrazioak hizkuntza-politikako atalean lerro espezifikoak edukitzea aisia eta kirolean euskara sustatu eta babesteko
- Administrazioak aisia eta kirolean euskara sustatu eta babesteko plangintza osatzea
- Plangintzaren helburuak hizkuntza-eskubideen irizpideen arabekoak direla ziurtatzea
- Administrazioak eragileei zerbitzua eskaintzeko euskarazko zirkuituak osatzea tresna gisa
- Administrazioak eragileei eskaintzen dien zerbitzua (diru-laguntza eskakizunak eta abar...) epeetan eta euskaraz emateko baliabideak jartzea
- Aisialdi- eta kirol-eskaintza euskaraz izatea eredu eta maila guztietan
- Euskara eta kultura sustatzeko eskaintza egitea
- Gutxienez hizkuntza nagusiaren eskaintza bera izatea
- Kalitatekoa eta hizkuntza-maila altuko eskaintza izatea
- Ikasle-kopurua edozein delarik ere, euskarazko taldeak bermatzea
- Aisian eta kirolean euskara sustatu eta babesteko lege-garapenean jasoia egotea

B. HEZKUNTZA INFORMALA

1. AISIALDI-ZENTROAK, KIROL-TALDE ETA FEDERAZIOAK

- 1.2. **83. neurria** Administrazioak hizkuntza-proiektu bat garatzeko eskatzen die hainbat zentroi. Egungo errealitatearen arabera, hizkuntza gutxituan zer eskaintzen den zehaztea eta programa osoa hizkuntza gutxituan eskaintzeko egutegi bat finkatzea izango da hizkuntza-proiektuaren zereginetako bat.

Adierazlea: Ba al da hizkuntza-proiektu bat garatzeko eskakizunik? **Mota:** P
Bete al da proiektua?

EZAUGARRIAK

- Erraztasunak eta baliabideak eskaintzea hizkuntza-proiektuak garatzeko (aholkularitza...)
- Administrazioak hezkuntza eskalduntzeko plangintza orokorrean, hizkuntza-proiektuen inguruko irizpide orokorra zehaztea non euskararen garapen osoa eta lehentasunezkoa ardatza izango den
- Ikastetxe guztiek hizkuntza-proiektua diseinatu eta garatzeko betebeharrak edukitzea
- Hizkuntza-proiektuek, ikastetxeak euskararentzat desegokiak diren eremuetan, tresnak eskaintzea euskararen garapena ziurtatzeko (ratioak, taldekatzeak, irakasleak, formakuntza espezifikoak...), horretarako behar diren baliabideak jasoz
- Administrazioak mekanismoak ezartzea hizkuntza-proiektuen ebaluazioa eta jarraipena egiteko
- Kontrol-mekanismoak ezartzea hizkuntza-irizpideak betetzen direla ziurtatzeko

B. HEZKUNTZA INFORMALA

1. AISIALDI-ZENTROAK, KIROL-TALDE ETA FEDERAZIOAK

- 1.3. **84. neurria** Jabetza publikoa ez duten, baina zuzenean edo zeharka diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten zentroek ere antzeko ezaugarriak dituen hizkuntza-proiektua aurkeztu behar dute.

Adierazlea: Ba al da hizkuntza-proiektu bat garatzeko eskakizunik? **Mota:** B/E P
Bete al da proiektua?

EZAUGARRIAK

- Administrazioak eragileei eskaintzen dien zerbitzua (diru-laguntzak, eskakizunak eta abar...) epeetan eta euskaraz emateko baliabideak jartzea
- Jabetza publikoa ez duten eta euskara hutsean mugitzen diren aisialdi-zentroak euskaraz partzialki ari direnengandik bereiztea eta modu ezberdinean neurtzea diru-laguntzak esleitzerakoan
- Euskaraz soilik ari direnei laguntza gehigarriak ematea
- Diru-laguntzak hizkuntza-irizpideek eta hizkuntza-proiektuak baldintzatuak izatea
- Gutxienez, hizkuntza-nagusiaren eskaintza bera izatea
- Ikasle-kopurua edozein delarik ere, euskarazko taldeak bermatzea
- Hizkuntza-proiektuaren helburuak hizkuntza-eskubideak bermatzeari zuzenduta daudela ziurtatzea
- Administrazioak mekanismoak ezartzea hizkuntza-proiektuen ebaluazioa eta jarraipena egiteko
- Erraztasunak eta baliabideak eskaintzea hizkuntza-proiektuak garatzeko (aholkularitza...)
- Kontrol-mekanismoak ezartzea hizkuntza-irizpideak betetzen direla ziurtatzeko
- Administrazioak aisia eta kirolean euskara sustatu eta babesteko plangintzan jasotzea

C. IRAKASLEEN ETA HEZITZAILEEN TREBAKUNTZA

1. IRAKASLEAK

- 1.1. **85. neurria** Irakasle-eskolek hizkuntza gutxituaren ezagutza eta erabileran trebatzen dituzte irakasleak.

Adierazlea: Irakasle-eskola guztietatik, irakasleak hizkuntza gutxituan gaitzen dituztenen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Irakasle-lanpostuak eskuratzeko oposizio eta azterketak euskaraz egitea
- Irakasleen formazio-estrategia osoa euskararen erabileraren eremuko administrazioak kudeatzea eta horretarako baliabideak edukitzea
- Irakasleen trebakuntza bermatzea murgiltze-ereduaren oinarrietan
- Euskararen erabilgarritasuna zabaltzea esparru akademiko normatibotik harago
- Irakaslegaien irteera profila C2 mailakoa izatea
- Aktiboan dauden irakasleen (ikastetxetako irakasleak eta irakasle eskoletako irakasleak) euskalduntze-plangintza zehaztea eta garatzeko bitartekoak ezartzea
- Administrazioak, unibertsitateak eta eragileek adosturik sortutako erakunde independente batek gaitasuna ebaluatzeko frogak eta irizpide espezifikoak arautu eta zehaztea
- Irakaslegaien euskara-maila ebaluatzeko mekanismoak egotea, (sarrera frogak eta irteera frogak, formakuntza jarraikia, inspezioak...)
- Froga horiek hizkuntzaren ezagutzaz gain hizkuntzaren zuzentasuna, aberastasuna, edota ikasle eta irakasleak erabiltzaile estrategikoak direla frogatzeko helburua ere izatea
- Irakasle-eskoletan formatzen ez diren lanbide-heziketako irakasleak euskalduntzeko eta trebatzeko bitartekoak egotea
- Euskara hizkuntza gisa irakatsiko ez duten beste irakasleek ere hizkuntza-formakuntza jasotzea
- Programazio bereziak sortzea irakaskuntza espezializatuan euskarazko baliabideak eskaintzeko
- Hezkuntza euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea

C. IRAKASLEEN ETA HEZITZAILEEN TREBAKUNTZA

1. IRAKASLEAK

- 1.2. Hizkuntza gutxituan egoerari erantzuteko trebakuntza berezia ematen da ondoren zehazten den moduan:

- 1.2.1. **86. neurria** Irakasle-eskolek beren irakasgaiak hizkuntza gutxituan irakasteko trebatzen dituzte irakasleak, hizkuntza-maila altuarekin.

Adierazlea: Urte bakoitzeko lizentziadun guztien artetik, hizkuntza gutxituan irakasteko gaitasun nahikoa duten lizentziadun guztien ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Irakaslegaien irteera profila C2 mailakoa izatea
- Euskalkien berezitasuna kontuan harturik, ahokotasuna lantzeko bitartekoak eskaintzea
- Administrazioak, unibertsitateak eta eragileek adosturik sortutako erakunde independente batek gaitasuna ebaluatzeko frogak eta irizpide espezifikoak arautu eta zehaztea
- Irakasleen euskara-maila ebaluatzeko mekanismoak egotea (sarrera frogak eta irteera frogak, formakuntza jarraitua, inspezioak...)
- Froga horiek hizkuntzaren ezagutzaz gain hizkuntzaren zuzentasuna, aberastasuna, edota ikasle eta irakasleak erabiltzaile estrategikoak direla frogatzeko helburu ere izatea
- Trebakuntza horretan ahokotasunaren garrantzia areagotzea

C. IRAKASLEEN ETA HEZITZAILEEN TREBAKUNTZA

1. IRAKASLEAK

1.2. Hizkuntza gutxituan egoerari erantzuteko trebakuntza berezia ematen da ondoren zehazten den moduan:

1.2.2. **87. neurria** Egoera eleaniztun batean murgiltze-eredua gauzatzeko gai izateko beharrezko trebakuntza espezifikoa ematen zaie irakasleei.

Adierazlea: Urte bakoitzeko lizentziadun guztien artetik, egoera eleaniztun batean murgiltze-eredua gauzatzeko gai direnen ehunekoa **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Irakasleen trebakuntza bermatzea hizkuntza gutxituko murgiltze-eredua oinarri
- Egoera soziolinguistikoari buruzko formakuntza eskaintzea
- Euskara desabantaila egoeran dagoen kasuetarako formakuntza espezifikoa edukitzea
- Hizkuntzen trataerari buruzko trebakuntza eskaintzea
- Eleaniztasunari buruzko trebakuntza eskaintzea

C. IRAKASLEEN ETA HEZITZAILEEN TREBAKUNTZA

2. HEZITZAILEAK

2.1. **88. neurria** Hezitzaileek (kirol eta aisialdikoak) hizkuntza gutxituan aritzeko gai izan behar dute titulazioa eskuratzeko.

Adierazlea: Titulazioa eskuratzeko eskakizunen artean hizkuntza gutxituko gaitasuna eskatzen duten ikastaroen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Hezitzaile izateko matrikulazio garaian C1 maila egiaztatzea
- Hezitzaile izateko froga euskaraz egitea
- Hezitzailea jardun espezifiko batekoa denean ere euskalduna izatea
- Hezitzaileek tresna espezifikoak edukitzea etengabeko formakuntzan euskararen erabilera bultzatzeko
- Aisian eta kirolan euskara babestu eta sustatzeko lege-garapenean, titulazioa eskuratzeko euskara-maila frogatu behar izatea jasotzea

C. IRAKASLEEN ETA HEZITZAILEEN TREBAKUNTZA

2. HEZITZAILEAK

- 2.2. **89. neurria** Tresna egokiak eskaintzen dira hezitzaileen trebakuntzan, hizkuntza gutxituarentzat txarrak diren testuinguruetan moldatu ahal izateko, eta etengabeko prestakuntza nahiz ikasitakoa eguneratzeko aukera ematen da.

Adierazlea: Alor horretako trebakuntza berezia eskaintzen duten etengabeko prestakuntzako zentrozen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Trebakuntza espezifikoa sortu eta proiektu pilotuak abian jartzea
- Hezitzaile guztiek prestakuntzan parte hartzen dutela bermatzea eta jarraipena egitea
- Hezitzaileek tresna espezifikoak edukitzea etengabeko formakuntzan euskararen erabilera bultzatzeko
- Soziolinguistika gaiak hezitzaileen formakuntzan ikasgai beharrezkoa izatea
- Hizkera ez-formalaren inguruko saioak egotea formakuntza espezifikoan
- Hezitzaileek arloko hiztegia garatzeko baliabide espezifikoak edukitzea
- Baliabide ekonomiko berezituak egotea
- Euskara desabantaila egoeran dagoen testuinguruetan baliabide ekonomiko espezifikoak jartzea eta erabaki horrek lege-garapenaren babesa edukitzea
- Administrazioak ikuskaritza eta adituak jartzea jarraipena egiteko
- Administrazioak aisia eta kirolean euskara sustatu eta babesteko plangintzan jasotzea

C. IRAKASLEEN ETA HEZITZAILEEN TREBAKUNTZA

3. ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

- 3.1. **90. neurria** Etengabeko trebakuntzaren barruan hizkuntza gutxitua irakasten da.

Adierazlea: Etengabeko prestakuntza-zentroetatik, hizkuntza gutxituko ikastaroak eskaintzen dituztenen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Irakasleen etengabeko trebakuntzaren deialdietan euskara sartzea
- Administrazioak etengabeko trebakuntzaren ardura hartu eta irakasleen hizkuntza-mailaren hobekuntza prozesu progresibo eta planifikatuaren baitan kokatzea

D. HELDUEK HIZKUNTZA GUTXITUA IKASTEA

1. **91. neurria** Hizkuntza gutxitua ikasi nahi duten herritarrek dohainik ikasteko aukera dute.

Adierazlea: Hizkuntza gutxituko ikastaro guztietatik, dohainik diren ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Helduak euskalduntzeko lege-garapena onartzea eta horrekin batera finantzazio-lerro espezifikoa irekitzea
- Administrazioak helduen euskalduntzearen zerbitzua departamentu bakarretik kudeatzea: finantzazioa, baliabide-esleipena, sektoreari buruzko azterketak, matrikulazioak, etab.
- Helduen euskalduntzearen zerbitzuaren kostea definitzea eta koste horren %95 administrazioak bere gain hartzea
- Modu progresiboan ikasleen matrikula kostuak jaistea, gehienez ere %10eko tasa moduko batera iritsi arte
- Norabide berean doakotasuna ikastaroen %100era iristea
- C1era arteko prozesua doakoa izatea
- Baliabideak jarri eta egiaztatzearekin bakarrik lortuko ez den sistema landu eta onartzea
- Helduen euskalduntzearen sektorea egonkortzeko lan-baldintza zehazterakoan derrigorrezko irakaskuntza arautuaren erreferentzia hartzea
- Etengabeko prestakuntzaren deialdietan helduak euskalduntzeko formakuntza egotea
- Helduak euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea

D. HELDUEK HIZKUNTZA GUTXITUA IKASTEA

2. **92. neurria** Ikastaroak lurralde osoan eskaintzen dira, herri-ekimenekin elkarlanean.

Adierazlea: Hizkuntza gutxitua ikasteko aukera dagoen udalerrien ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Administrazioen arteko elkarlana sustatzea
- Administrazioak zerbitzua finantzatzea euskaltegiek zerbitzua eman dezaten EH osoan
- Helduen euskalduntzearen sektorea egonkortzeko lan-baldintza zehazterakoan irakaskuntza arautuaren erreferentzia hartzea
- Euskaltegien mapa egitea, lurraldeen beharrak ikusita horiei erantzungo dien azpiegitura eraginkor eta profesionala sortzeko
- Sektoreko euskaltegien arteko lotura (metodologia, helburuak, baliabideak...) handitzea
- Curriculum bera erabili, osatu eta hobetzea
- Euskara ikasten ari diren ikasleen bizilekuak zerrendatzea, eta herri bakoitzeko ikasle kopuruak jasotzea
- Euskaltegirik ez dagoen herrietako matrikulazio datuak jasotzea
- Eskaera-datuak kontuan hartuz, euskaltegi berriak zabaltzeko beharra aztertzea
- Zerbitzua bermatzeko euskaltegi berririk zabaldu beharko balitz, edota gela desplazatuak zabaldu beharko balira, horretarako prozedurak zehaztea
- Helduak euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea

D. HELDUEK HIZKUNTZA GUTXITUA IKASTEA

3. **93. neurria** Hizkuntza gutxitua irakasten da langabetuei zuzendutako trebakuntzan.

Adierazlea: Langabetuentzako ikastaroak eskaintzen dituzten zentroetatik, hizkuntza gutxitua irakasten dutenen ehunekoa.

Mota: %

EZAUGARRIAK

- Euskarazko trebakuntza-ikastaroak lehenestea
- Lantegietan trebakuntza euskaraz egin dutenak lehenestea
- Langabetuei zuzendutako trebakuntzako irakasleak euskaraz gaituak egotea
- Langabetuei zuzendutako trebakuntzarako beharrezko baliabide pedagogikoak sortzea
- Euskara doan ikastea bermatzea langabetuei, diru-laguntzen bidez
- Helduen euskalduntzeaz arduratzen den egitura administratiboak eta langabetuen bulegoek modu koordinatuan lan egitea
- Langabetuen bulegoetan ikastaroak euskaraz eskaintzea eta euskararen ikaskuntza-prozesua euskaltegien bidez egitea
- Langabetuei zuzendutako trebakuntzan, euskara ikasteko aukeraz eta onurez informazioa zabaltzea
- Helduak euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea

D. HELDUEK HIZKUNTZA GUTXITUA IKASTEA

4. **94. neurria** Hizkuntza gutxitua irakasten da helduen etengabeko prestakuntzan.

Adierazlea: Helduen etengabeko prestakuntzarako ikastaroak eskaintzen dituzten zentroetatik, hizkuntza gutxitua irakasten dutenen ehunekoa

Mota: %

EZAUGARRIAK

- Helduentzako etengabeko prestakuntzan euskara doan ikasteko eskaintza orokortzea
- Euskararen ikaskuntza euskaltegien bidez egitea
- Helduak euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea

D. HELDUEK HIZKUNTZA GUTXITUA IKASTEA

5. **95. neurria** Hizkuntza gutxituan alfabetatzeko ikastaroak dohainik ematen dira.

Adierazlea: Hizkuntza gutxituan alfabetatzeko ikastaro guztietatik, **Mota:** %
dohainik direnen ehuneko.

EZAUGARRIAK

- Berariazko kanpainak egitea euskaldunen alfabetatzeari begira
- Finantzazio-lerro espezifikoa egotea helduen alfabetatzeari begira
- Helduentzako etengabeko prestakuntzan euskara doan ikasteko eskaintza orokortzea modu progresiboan alfabetatuak ez diren euskaldunei ere
- Helduen alfabetatzea doakoa izan dadin urratsak egitea
- Etengabeko prestakuntzaren deialdietan helduak alfabetatzeko formakuntza egotea
- Helduak euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea

E. CURRICULUMAK ETA MATERIALAK

1. CURRICULUMAK

- 1.1. **96. neurria** Ikasketak amaitzerako ikasleak gai dira hizkuntza gutxituan, hizkuntza nagusian eta atzerriko hizkuntza bat edo bitan aritzeko; hizkuntza gutxituko hiztun eleaniztunak dira, beraz.

Adierazlea: Ikasketak amaitzen dituzten ikasleetatik, hizkuntza gutxituko hiztun eleaniztunak direla frogatu dutenen ehuneko. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Murgiltze-mantentze ereduak lege-babesa eta haren aplikaziorako lege-garapenak edukitzea
- Hezkuntza euskalduntzeko plangintza orokorrak murgiltze-mantentze ereduaren helburuak edukitzea
- Aurreko ataletan zehaztutako hizkuntza-proiektuen ezaugarri guztiak kontuan hartzea
- Irteera profilak zehaztea: B2, gutxienez
- Euskalkien berezitasuna kontuan harturik, ahozotasuna lantzeko baliabide material eta giza baliabideak jartzea hizkuntza-proiektuetan aldagai hau jasoa dadin
- Baliabide pedagogikoak, ingurune digitala barne, euskararen beharrei egokituak egotea
- Hezkuntza euskalduntzeko plangintza orokorrean jasoa egotea
- Hezkuntza euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea

E. CURRICULUMAK ETA MATERIALAK

1. CURRICULUMAK

- 1.2. **97. neurria** Bertako kultura ardatz hartuta, Europako kultura eta kultura unibert-
sala lantzen dira curriculumean.

Adierazlea: Curriculum zehazteko araudian lantzen al dira Europako kultura eta kultura unibert-
sala, bertako kultura ardatz hartuta, hezkuntza-maila eta adin-tarte
bakoitzean? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Euskaraz eta oinarria euskal kulturaren daukaten testuliburu eta materialen gida bat osatzea ikastetxeen eskura jartzeko
- Ikastetxeetan euskararen lurraldea erakutsiko duten mapak (egungoak, historikoak...) ikusgai izan eta lanketarako eskuragarri izatea
- Euskal kultur adierazpenen lanketa egitea ikastetxeetan eta horretarako herri-auzoetako komunitatearekin harremanean aritzea
- Curriculumean zehaztua egotea euskararen galerari buruzko ezagutza
- Curriculum instituzioek, eragileek eta herritarrek batera adostea
- Curriculumaren garapen, ebaluazio eta ikerketaren agentzia sortzea
- Hezkuntza euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea

E. CURRICULUMAK ETA MATERIALAK

1. CURRICULUMAK

- 1.3. **98. neurria** Curriculumean gai hauek jorratzen dira, bereziki: soziolinguistika, hiz-
kuntza-aniztasuna eta ukipen-egoeran dauden hizkuntzei buruzko
oinarriak.

Adierazlea: Curriculum zehazteko araudian lantzen al dira soziolinguistika, hizkuntza-aniztasuna eta
ukipen-egoeran dauden hizkuntzei buruzko oinarriak? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Hizkuntza berreskurapenari buruzko edukien lanketa toki nabarmena izatea, besteak beste, soziolinguistika, ahozkoitasuna, transmisioa, garapena,...
- Irakasleen formakuntzarako curriculumean txertatzea
- Ikasleen curriculumean egokiturik txertatzea
- Euskal Herrian euskarak bizi dituen errealitate ezberdinen ezagutza aztertu eta transmititzea

E. CURRICULUMAK ETA MATERIALAK

1. CURRICULUMAK

- 1.4. **99. neurria** Gurasoekin egiten diren bileretan hizkuntza gutxitua curriculumean egoteak dakartzan onurak azaltzen zaizkie aldiro-aldi.

Adierazlea: Gurasoekin egiten diren bileretan hizkuntza gutxitua curriculumean egoteak dakartzan onuren frogak azaltzen dizkieten ikastetxeen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Ikastetxeetako hizkuntza-proiektuetan txertatzea
- Hizkuntza-proiektuaren barruan gurasoei zuzendutako atala egotea
- Gurasoentzako euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko plangintza egotea hizkuntza-proiektuaren baitan eta horretarako baliabideak esleitzea
- Gurasoen bileretan hizkuntza-eskubideak bermatzen direla ziurtatzea

E. CURRICULUMAK ETA MATERIALAK

2. IRAKAS-MATERIALA

- 2.1. **100. neurria** Hizkuntza gutxituan irakasteko material egokia eskuragarri dago.

Adierazlea: Irakaskuntzarako materialetik hizkuntza gutxituan irakasteko eskuragarri dagoen materialaren ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Hizkuntza gutxituan arlo guztietan irakasteko materiala sortzea (hezkuntza, lanbide-heziketa, helduen irakaskuntza...) eta kudeatzea
- Materialgintzan hizkuntzaren zuzentasuna, kalitatea eta bateratasuna lantzea
- Itzulpengintza baino, bertako errealitatea oinarri hartuz sortzea
- Baliabide informatikoak eta softwareak euskaraz eskaintzea
- Euskarazko eta euskararen irakaskuntzak dituen behar digitalei erantzutea
- Ikus-entzunezko baliabideak sortzea
- Baliabide berezituak materialgintzarako
- Hedabideekin elkarlana garatzea
- Materialgintza ikuspegi estrategikoarekin lantzea
- Materialak bateratu eta banaketa ziurtatzea
- Hezkuntza euskalduntzeko plangintzan jasoa egotea
- Hezkuntza euskalduntzeko lege-garapenean jasotzea

E. CURRICULUMAK ETA MATERIALAK

2. IRAKAS-MATERIALA

- 2.2. 101. neurria Testuliburuak hizkuntza gutxituan prestatzen dituzten argitaletxeek diru-laguntzak jasotzen dituzte.

Adierazlea: Hizkuntza gutxituan testuliburuak argitaratzeko laguntzak eskuragarri daude urtero.

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Materialgintzarako finantzazio-lerro espezifikoa garatzea
- Materialgintza berritzeko diru-laguntza politika iraunkorra egotea
- Diru-laguntzak politikan gehiago baloratzea euskaraz sortzen den materialgintza, itzultzen dena baino
- Administrazioak bestelako baliabide pedagogikoak finantzatzea (berrikuntza pedagogikoa, ingurune digitala...)

3. EREMUA:

EREMU SOZIOEKONOMIKOA

A. ARAUBIDEA

1. HERRITARREK ZERBITZUAK HIZKUNTZAN GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA LEGEZ BABESTUTA DAGO

B. HIZKUNTZA GUTXITUA KONTSUMO-HARREMANETAN

1. OSASUNAREN ETA SEGURTASUNAREN BABESA
2. PRODUKTU ETA ZERBITZUEI BURUZKO INFORMAZIO PUBLIKOA
3. GATAZKAK
4. EKONOMIAKO FUNTSEZKO SEKTORE ETA ZERBITZUETAKO KONTSUMITZAILEEN ESKUBIDEAK HIZKUNTZA GUTXITUAN ERE BERMATZEN DIRA

C. HIZKUNTZA GUTXITUA LAN-EREMUAN ETA LAN-MERKATUAN

D. ENPRESEN GIZARTE-ERANTZUKIZUNA

A. ARAUBIDEA

1. HERRITARREK ZERBITZUAK HIZKUNTZAN GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA LEGEZ BABESTUTA DAGO

1. **102. neurria** Behar bezala araututa dago hizkuntza gutxituko kontsumitzaileen eskubideen aitortza.

Adierazlea: Ba al da hizkuntza gutxituko kontsumitzaileak errekonozitu eta babesteko araurik?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Kontsumitzaile euskaldunen eskubideak aitortzen dituen legea osatzea
- Legeak, gutxienez, osasuna, segurtasunaren babesa eta produktu eta zerbitzuen informazioari dagokionez, bai eta kontsumo gatazkei eta ekonomiako funtsezko sektoreei begira ere, kontsumitzaile euskaldunen eskubideak babestea
- Kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzeko helburuarekin lege-garapena osatzea
- Eremu hori garatzeko aurrekontu propioa izatea
- Xedapenak egotea urraketak ematen direnerako kontrol-mekanismoak garatzea lege-garapenean jasotakoa betetzen dela ziurtatzeko
- Enpresen tipologia osatzea; batetik, funtsezko sektore eta zerbitzuak; eta, bestetik, funtsezko gune soziolinguistikoak (arnasguneak) bereiziz
- Ondoren, sektore eta gune horien betebeharrak zehaztea kontsumitzaile euskaldunen eskubideei dagokienez
- Sektore eta gune horietan kokatzen diren enpresek euskara-planak ezartzeko legezko betekizuna izatea
- Beste enpresei begira, euskara-planak sustatzea laguntza eta hobarien bidez
- Euskara-planak harremanak, barne eta kanpo komunikazioa eta euskaraz lan egiteko baliabideak ezartzeko helburuei erantzutea
- Euskaingintzarekin batera eskubideen bermea egiaztatzen duen ziurtagiria sortzea enpresa guztientzat baliagarria, kalitatezko seinale gisa
- Administrazioak prozesu planifikatua osatzea legeak eta lege-garapenak agintzen dituen irizpideak kontuan hartuz (kontsumitzaileen babesa, diru-laguntza politika, baliabideak, kontrol-mekanismoak, epeak,...)

B. HIZKUNTZA GUTXITUA KONTSUMO-HARREMANETAN

1. OSASUNAREN ETA SEGURTASUNAREN BABESA

- 1.1. **103. neurria** Produktuen osasun eta segurtasunari buruzko mezuak, hala nola sendagaien jarraibideak, produktuen arriskuei buruzko informazioa, etab., hizkuntza gutxituan ere eskuragarri daude.

Adierazlea: Araututa eta bermatuta al dago mezu horiek hizkuntza gutxituan ere egon behar dutela?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Osasun- eta segurtasun-arauetan hizkuntza-irizpidea jasotzea, eman beharreko informazioari eta oharrei dagokienez
- Administrazioak osasun- eta segurtasun-jarraibideetako mezuen homologazioa egitea eta zabaltzea
- Formulazio magistraleko botiken prospektuak botiketara egiten direnez, administrazioak euskaratzeko jarraibideak ematea
- Epe zehatzak ezartzea enpresek eta establezimenduek beharrezko aldaketak egiteko
- Sentsibilizazio-lana egitea enpresei zuzendua
- Neurria enpresa guztientzat legez bete beharrekoa izatea
- Kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideen lege-garapenean jasoa egotea

B. HIZKUNTZA GUTXITUA KONTSUMO-HARREMANETAN

1. OSASUNAREN ETA SEGURTASUNAREN BABESA

- 1.2. **104. neurria** Merkataritza-lokaletako osasun eta segurtasunari buruzko jakinarazpen eta jarraibideak hizkuntza gutxituan ere eskuragarri daude.

Adierazlea: Araututa eta bermatuta al dago jakinarazpen eta jarraibide horiek hizkuntza gutxituan ere egon behar dutela?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Osasun- eta segurtasunari buruzko jakinarazpen eta jarraibideen arauetan hizkuntza-irizpidea jasotzea, eman beharreko informazioari eta oharrei dagokienez
- Administrazioak osasun eta segurtasunari buruzko mezu-bankua osatzea eta eskuragarri jartzea
- Euskaratzeko tresnak eskuragarri egotea: gidak, liburuxkak...
- Epe zehatzak ezartzea enpresek eta establezimenduek beharrezko aldaketak egiteko
- Sentsibilizazio-lana egitea enpresei zuzendua
- Neurria enpresa guztientzat legez bete beharrekoa izatea
- Kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideen lege-garapenean jasoa egotea

B. HIZKUNTZA GUTXITUA KONTSUMO-HARREMANETAN

2. PRODUKTU ETA ZERBITZUEI BURUZKO INFORMAZIO PUBLIKOA

- 2.1. **105. neurria** Informazioa hizkuntza gutxituan eskuragarri dago (fakturak, aurrekontuak, tarifak, produktuen katalogoak, ziurtagiriak, produktu eta zerbitzuak erabiltzeko gidak, etab.).

Adierazlea: Araututa eta bermatuta al dago mezu horiek hizkuntza gutxituan ere egon behar dutela?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Administrazioak informazioa euskaraz egoteko dokumentu-bankua eskuragarri jartzea
- Hizkuntza-aholkularitza eskaintzea
- Sentsibilizazio-lana egitea enpresei zuzendua
- Epe zehatzak ezartzea enpresek eta establezimenduek beharrezko aldaketak egiteko
- Neurria enpresa guztientzat legez bete beharrekoa izatea
- Kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideen lege-garapenean jasoa egotea

B. HIZKUNTZA GUTXITUA KONTSUMO-HARREMANETAN

2. PRODUKTU ETA ZERBITZUEI BURUZKO INFORMAZIO PUBLIKOA

- 2.2. **106. neurria** Kontsumo-harremanak hizkuntza-eremuaren kanpotik kudeatzen direnean ere produktu eta zerbitzuei dagokienez antzeko neurriak hartzen dira.

Adierazlea: Araututa eta bermatuta al dago mezu horiek hizkuntza gutxituan ere egon behar dutela? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Administrazioak informazioa euskaraz egoteko dokumentu-bankua eskuragarri ezartzea
- Produktu eta zerbitzuak komertzializatzeko baimenak hizkuntza-irizpideak baldintzatua izatea osasun, segurtasun eta informazioari dagokienez, eta legeak agintzen duen moduan
- Sentsibilizazio- eta komunikazio-lana egitea enpresei zuzendua
- Epe zehatzak ezartzea enpresek eta establezimenduek beharrezko aldaketak egiteko
- Neurria enpresa guztientzat legez bete beharrekoa izatea
- Kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideen lege-garapenean jasoa egotea

B. HIZKUNTZA GUTXITUA KONTSUMO-HARREMANETAN

2. PRODUKTU ETA ZERBITZUEI BURUZKO INFORMAZIO PUBLIKOA

- 2.3. **107. neurria** Errotulazioa eta merkataritza-informazioa hizkuntza gutxituan eskuragarri daude.

Adierazlea: Araututa eta bermatuta al dago errotulazioak eta merkataritza-informazioak hizkuntza gutxituan ere egon behar dutela? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Administrazioak informazioa euskaraz egoteko dokumentu-bankua eskuragarri ezartzea
- Hizkuntza-aholkularitza eskaintzea
- Epe zehatzak ezartzea enpresek eta establezimenduek beharrezko aldaketak egiteko
- Sentsibilizazio-lana egitea enpresei zuzendua
- Neurria enpresa guztientzat legez bete beharrekoa izatea
- Kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideen lege-garapenean jasoa egotea

B. HIZKUNTZA GUTXITUA KONTSUMO-HARREMANETAN

2. PRODUKTU ETA ZERBITZUEI BURUZKO INFORMAZIO PUBLIKOA

- 2.4. **108. neurria** Produktuen aplikazio informatiko, software, interfaze eta abarrak hizkuntza gutxituan ere eskuragarri daude.

Adierazlea: Araututa eta bermatuta al dago aplikazio informatikoen **Mota:** B/E hizkuntza gutxituan ere egon behar dutela?

EZAUGARRIAK

- Administrazioak informazioa euskaraz egoteko dokumentu-bankua eskuragarri ezartzea
- Euskarazko software librearen garapen etengabekoa sustatzea, momentuko beharrei erantzun ahal izateko eta bateraezintasunak ekiditeko
- Sentsibilizazio-lana egitea enpresei zuzendua
- Administrazioaren ingurune digitalaren politikak hizkuntza-politikako sailetik aparte kudeatzen denean ere, hizkuntza-irizpideak izatea (adibidez industria arloan...)
- % 100 itzulita ez dauden zerbitzu informatikoak euskarara itzultzea
- Argitaratzen diren zerbitzu informatiko berrietan euskarak hasieratik %100eko presentzia izatea
- Euskara hizkuntza lehenetsi moduan ezartzea
- Euskaingintzarekin batera, ziurtagiri moduko bat eratzea, zeinak aitortuko duen hornitzaileak euren zerbitzu digitalak hizkuntza gutxituan emateko gai direla
- Neurria euskara-planean jaso egotea
- Diru-laguntza deialdietan eta bestelako laguntza ekonomikoetan puntuazio-irizpide gisa euskara erabiltzea jasotzea
- Sustapen-lana egitea diru-laguntzen bidez software-enpresek lokalizatu (itzuli) dezaten, enpresek euskaraz eskuratzeko aukera izan dezaten eta hizkuntza-industriako erakundeek lokalizazio-proiektu zehatzak aurkez ditzaten

B. HIZKUNTZA GUTXITUA KONTSUMO-HARREMANETAN

2. PRODUKTU ETA ZERBITZUEI BURUZKO INFORMAZIO PUBLIKOA

- 2.5. **109. neurria** Merkataritza-jardueretan hizkuntza gutxiuaren erabilera bultzatze-ko marketin- eta publizitate-jarraibideak sustatzen dira.

Adierazlea: Araututa eta bermatuta al dago marketin- eta **Mota:** B/E publizitate-jarraibideek hizkuntza gutxituan ere egon behar dutela?

EZAUGARRIAK

- Marketing- eta publizitate-jarraibideen bankua eskuragarri egotea
- Hizkuntza-aholkularitza eskaintzea
- Sustapen-, identifikazio- eta erabilera-kanpainak bultzatzea
- Euskara erabiltzen duten enpresen sustapena egitea

B. HIZKUNTZA GUTXITUA KONTSUMO-HARREMANETAN

3. GATAZKAK

- 3.1. **110. neurria** Kontsumo-gatazkak ebazteko garaian, hizkuntza gutxituko hiztunen kontsumo-eskubideak bermatzen dira.

Adierazlea: Hizkuntza gutxituko hiztunei errekonozitzen al zaie beren hizkuntzan jarduteko eskubidea?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Kontsumo-harremanerako eskubidea aitortzen duen legean, hizkuntza-irizpideak berariaz jasotzea
- Kontsumitzaile babeserako zerbitzuaren barruan hizkuntza-eskubideez arduratuko den saila sortzea
- Euskarazko kontsumitzaileen eskubideen inguruko trebakuntza ziurtatzea kontsumo-gatazkak ebazten dituzten langileei
- Sentsibilizazio-kanpainak egitea enpresentzat eta herritarrentzat
- Lan-ikuskaritzetan hizkuntza-irizpidea egotea
- Neurria enpresa guztientzat legez bete beharrekoa izatea
- Kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideen lege-garapenean jasoa egotea

B. HIZKUNTZA GUTXITUA KONTSUMO-HARREMANETAN

4. EKONOMIAKO FUNTSEZKO SEKTORE ETA ZERBITZUETAKO KONTSUMITZAILEEN ESKUBIDEAK HIZKUNTZA GUTXITUAN BERMATZEN DIRA.

- 4.1. **111. neurria** Honako alor hauetan hizkuntza-plangintzak garatzen dira: asegu-ru-etxeak, energia-hornitzaileak, garraio-zerbitzuak, finantza-erakundeak, telefono-hornitzaileak, gizarte-prestazioak, osasungintza, posta-zerbitzua...

Adierazlea: Ba al dago Protokoloko Administrazio ataleko 1-23. neurriak betetzen dituen plangintza orokorrik ekonomiako funtsezko sektore eta zerbitzuetan?

Mota: P/D

EZAUGARRIAK

- Dokumentu-bankua eskuragarri egotea
- Euskaratzeko tresnak eskuragarri egotea: gidak, liburuxkak...
- Hizkuntza-aholkularitza eskaintzea
- Osasun- eta segurtasun-arauetan hizkuntzaren irizpidea jasotzea, eman beharreko informazioari eta oharrei dagokienez
- Ahozko zein idatzizko zerbitzua, irudi korporatiboa eta hizkuntza paisaia, kanpo-eta barne-harremanak kontuan hartzen dituen plangintza garatzen dutela ziurtatzea
- Euskara-plana enpresaren estrategian txertatuta dagoela ziurtatzea
- Plangintzaren helburuak urterik urte betetzen dituztela egiaztatzeko ziurtagiria osatzea euskalgintzarekin batera
- Neurria arlo horretako enpresa guztientzat legez bete beharrekoa izatea
- Kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideen lege-garapenean jasoa egotea

C. HIZKUNTZA GUTXITUA LAN-EREMUAN ETA LAN-MERKATUAN

1. **112. neurria** Legez babestuta dago langileek lantokian hizkuntza gutxituan lan egiteko duten eskubidea.

Adierazlea: Legez babestuta al dago langileek lantokian hizkuntza gutxituan lanerako duten eskubidea? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Langileen hizkuntza-eskubideak (eta betebeharrak) lan-eskubideak direla aitortu lege bidez
- Lan-mundua euskalduntzeko prozesuak lege-babesa edukitzea
- Enpresen tipologia osatzea; batetik, funtsezko sektore eta zerbitzuak; eta, bestetik, funtsezko gune soziolinguistikoak (arnasguneak) bereiziz
- Ondoren, funtsezko sektore eta gune horien betebeharrak zehaztea langile euskaldunen eskubideei dagokienez
- Funtsezko sektore eta gune horietan kokatzen diren enpresek euskara-planak ezartzeko legezko betekizuna izatea
- Beste enpresei begira euskara-planak sustatzea laguntza eta hobarien bidez
- Euskara-planak ahozko zein idatzizko zerbitzua, harremanak, barne eta kanpo komunikazioa eta euskaraz lan egiteko baliabideak ezartzeko helburuei erantzutea
- Kontratazio berriek hizkuntza-irizpideak edukitzea diru-laguntza edo hobariak jasotzeko
- Langileak euskalduntzeko trebakuntza-planak finantzatzea
- Langileari euskaraz lan egiteko baliabideak eta tresnak eskaintzea
- Beste laguntzak eskatzerakoan ere (inbertsiorako laguntzak, nazioartekotze laguntzak...) administrazioak hizkuntza-irizpideak ezartzea
- Administrazioak prozesu planifikatua osatzea legeak eta lege-garapenak agintzen dituzten irizpideak kontuan hartuz (kontsumitzaileen babesa, diru-laguntza politika, baliabideak, kontrol-mekanismoak, epeak,...)
- Lan-mundua euskalduntzeko lege-garapenean jaso egotea

C. HIZKUNTZA GUTXITUA LAN-EREMUAN ETA LAN-MERKATUAN

2. **113. neurria** Enpresek hizkuntza gutxituaren erabilera bultzatzen dute: trebakuntza-planak; etengabeko prestakuntza; lan-kontratuak eta lan-hitzarmenak; txosten, mezu, jakinarazpen eta bestelako dokumentuak; barneko lan-prozedurak; hizkuntza-paisaia; hizkuntza erabiltzen duten materialak (katalogoak, Interneteko saltokiak, publizitatea...).

Adierazlea: Araututa al dago enpresek hizkuntza gutxituaren erabilera bultzatu behar dutela? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Enpresaren estatutuetan eta barne-araudian jasotzea
- Hizkuntza-plangintza kudeaketa-planean txertatua izatea
- Euskara-planak sustatzea laguntza eta hobarien bidez
- Euskara-planak harremanak, barne eta kanpo komunikazioa eta euskaraz lan egiteko baliabideak ezartzeko helburuei erantzutea
- Langileei trebakuntza-planak eskaintzea
- Langileei euskaraz lan egiteko baliabideak eskaintzea
- Administrazioak prozesu planifikatua osatzea legeak eta lege-garapenak agintzen dituen irizpideak kontuan hartuz (kontsumitzaileen babesa, langileen hizkuntza-eskubideak, diru-laguntza politika, baliabideak, kontrol-mekanismoak, epeak,...)
- Administrazioa eta enpresen arteko klausula sozialetan hizkuntza-irizpidea egotea
- Eskubideen bermea egiaztatzen duen ziurtagiria sortzea euskalgintzarekin batera, enpresa guztientzat baliagarria, kalitatezko seinale gisa
- Lan-mundua euskalduntzeko lege-garapenean jaso egotea

C. HIZKUNTZA GUTXITUA LAN-EREMUAN ETA LAN-MERKATUAN

3. **114. neurria** Enpresek bermatu egiten dute hizkuntza gutxitua lantokian erabiltzeko aukera, eta lan-eremuan hizkuntza gutxitua ez debekatzea bermatzen dute.

Adierazlea: Langileek hizkuntza gutxitua erabiltzea arauz babesten duten enpresen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Enpresaren estatutuetan eta barne-araudian euskararen balio ofizial eta juridikoa onartzen dela jasotzea
- Enpresaren funtzionamendua euskalduntzea euskara-plan arautu, neurtu eta kontrolpekoa ezarriz
- Euskaraz formatu diren pertsonak lanean euskaraz aritzeko eskubidea egikaritzea
- Klausula sozialetan eta hitzarmen kolektiboetan, hizkuntza-irizpidea txertatzea
- Enpresetan lantokiko prestakuntza eta DUALa euskaraz egiteko, ikastetxeko prozedurak eta erakundearen arteko harremanak euskaraz izan daitezen bideak jartzea, bide batez ikasleek praktikak euskaraz egiteko prozeduraren sistematizazioa abian jartzeko

D. ENPRESEN GIZARTE-ERANTZUKIZUNA

1. **115. neurria** Sindikatuek hizkuntza gutxituari buruzko klausulak sartzen dituzte negoziazio kolektiboan, langileen hizkuntza-eskubideak eta gizarte-erantzukizuna bermatzeko.

Adierazlea: Klausulak sartzen dituzten hitzarmen kolektiboen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Hizkuntza-klausulak zehaztea
- Enprekin batera lantzea
- Administrazioak ekimen horiek bultzatzea eta babestea

D. ENPRESEN GIZARTE-ERANTZUKIZUNA

2. **116. neurria** Enpresek modu proaktiboan jarduten dute hizkuntza gutxituko komunitateekin gizarte-erantzukizuna garatzeko garaian.

Adierazlea: Hizkuntza gutxituko komunitateekin gizarte-erantzukizuna garatzeko plangintza duten enpresen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Enpresak eragile gisa herriko udal dinamiketan ere txertatzea
- Arnasgune funtzionalen sare sektoriala eratzea
- Arnasgune funtzionalen garapena bermatzeko araudi eta plangintzak sustatzea
- Erakundearen jarduera hizkuntza gutxituan garatzea eta inbertsio errentagarri bihurtzen duen behar soziala sortzea sentsibilizazio-lanen bidez
- Erakundearen erantzukizun soziala kalitateari lotzea
- Euskara-plana garatua duten enpresen ikusgarritasuna eta praktika onak lantzea

D. ENPRESEN GIZARTE-ERANTZUKIZUNA

3. **117. neurria** Enpresek modu proaktiboan jarduten dute esparru sozioekonomikoan hizkuntza gutxitua sustatzeko batzordeak eratzeko garaian.

Adierazlea: Esparru sozioekonomikoan hizkuntza gutxitua sustatzeko batzordeetan ordezkatua dagoen enpresen ehunekoa. **Mota:** %

EZAUGARRIAK

- Enpresen arteko kontratu guztietan hizkuntzaren klausula soziala txertatzea
- Enpresetan lantokiko prestakuntza eta DUALa euskaraz egiteko, ikastetxeko prozedurak eta erakundearen arteko harremanak euskaraz izan daitezen bideak jartzea, bide batez ikasleek praktikak euskaraz egiteko prozeduraren sistematizazioa abian jartzeko
- Arnasgune funtzionalen sare sektoriala eratzea
- Arnasgune funtzionalen garapena bermatzeko araudi eta plangintzak sustatzea
- Erakundearen jarduera hizkuntza gutxituan garatzea eta inbertsio errentagarri bihurtzen duen behar soziala sortzea sentsibilizazio-lanen bidez
- Erakundearen erantzukizun soziala kalitateari lotzea
- Euskara-plana garatua duten enpresen ikusgarritasuna eta praktika onak lantzea

D. ENPRESEN GIZARTE-ERANTZUKIZUNA

4. **118. neurria** Sindikatuek hizkuntza gutxituaren aldeko neurriak eta babesak bultzatzen dute barne-mailan.

Adierazlea: Barne-mailako planak bultzatu dituzten sindikatuen ehunekoa.

Mota: %

EZAUGARRIAK

- Barne eta kanpo euskalduntze plana egitea
- Euskara-irizpidea txertatzea sindikatuei bideratutako laguntzetan

4. EREMUA:

ONOMASTIKA

A. ENTITATE AUTONOMO BAT ONOMASTIKA ESTANDARITZEKO

B. PERTSONA-IZENAK

C. LEKU-IZENAK

A. ENTITATE AUTONOMO BAT ONOMASTIKA ESTANDARIZATZEKO

1. **119. neurria** Entitate autonomo bat (hizkuntza-akademia bat, esaterako) arduratzen da hizkuntza gutxituko izenak estandarizatzeaz, hizkuntzaren aniztasuna errespetatuz.

Adierazlea: Ba al da entitate autonomorik?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Hizkuntza-komunitatearen aitortza duen entitatea izatea
- Jakintza maila altua kreditatua izatea
- Eragile eta instituzioek onartzea
- Entitateak estatus berezia izatea administrazioaren aurrean
- Administrazioak finantzazio-lerro espezifikoak esleitzea
- Administrazioak bestelako baliabideak ere esleitzea

A. ENTITATE AUTONOMO BAT ONOMASTIKA ESTANDARIZATZEKO

2. **120. neurria** Administrazioak eta instituzioek hizkuntza-akademiak zehaztutako izendegiak hartzen dituzte erreferentziatzat.

Adierazlea: Araituta al dago Administrazioak eta instituzioek zerrenda hori erabiliko dutela?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Jarraipen- eta kontrol-mekanismoak jartzea
- Lege batek akademiak izendegietan hartutako erabakiak jasotzea, erabilera ofiziala bermatzeko

A. ENTITATE AUTONOMO BAT ONOMASTIKA ESTANDARIZATZEKO

3. **121. neurria** Hizkuntza-akademiei askatasuna errekonozitzen zaie hizkuntza ba-koitzaren ezaugarrietan oinarritutako izendegiak sortzeko, eta ez daude hizkuntza nagusiaren irizpideak hartzera behartuta.

Adierazlea: Errekonozituta al dago hizkuntza-akademiaren askatasuna? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Akademiak euskararen ezaugarriei begirako irizpideak zehaztea
- Akademiari modu independentean jardutea ahalbidetzea
- Administrazioak aintzat hartu eta onartzea

A. ENTITATE AUTONOMO BAT ONOMASTIKA ESTANDARIZATZEKO

4. **122. neurria** Goi-mailako administrazio-organoa arduratzen da hizkuntza-akademiek onartutako izendegiak instituzio guztien esku jartzeaz.

Adierazlea: Goi-mailako administrazio-organoez jartzen dituzte instituzio guztien eskura izendegiak? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Administrazioan hori bideratzeko atal berezitua egotea
- Giza baliabide eta baliabide material egokiak bermatzea
- Administrazioa akademiarekin harreman iraunkorra izatea
- Aldiro izendegiak gaurkotu eta zabaltzen direla bermatzea

B. PERTSONA-IZENAK

1. **123. neurria** Beren izen-abizenak erregistro ofizialetan hizkuntza gutxituan eta jatorrizko grafian erregistratzeko eskubidea legez errekonozitzen zaie herritarrei.

Adierazlea: Beren izen-abizenak erregistro ofizialetan hizkuntza gutxituan eta jatorrizko grafian erregistratzeko eskubidea legez errekonozitzen zaie herritarrei. **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Administrazioak sentsibilizazio- eta informazio-lana egitea herritarren artean
- Legeak jasoa egotea
- Herritarrei laguntza eskaintzea kanpo-administrazio edo erakunde pribatu batek izena errespetatzen ez duenean

B. PERTSONA-IZENAK

2. **124. neurria** Erregistroek aukera ematen diete herritarrei beren izen-abizenak hizkuntza gutxitura itzuli edota hizkuntza gutxituaren grafia aldatzeko.

Adierazlea: Araututa al dago izenak hizkuntza gutxitura aldatzeko aukera? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Baliabide egokiak esleitzea
- Legean jasota egotea

B. PERTSONA-IZENAK

3. **125. neurria** Administrazioak ezin du herritarren izen-abizenen grafia aldatu edo aldarazi, ez eta haien forma itzulia erabili edo erabilarazi ere.

Adierazlea: Araututa al dago ezin dela inor behartu bere izena aldatu edo itzultzeraz? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Herritarren grafia babesten duen administrazioak herritarrari laguntza eskaintzea, beste administrazio batek grafia errespetatu ezean
- Lege-babesa izatea

C. LEKU-IZENAK

1. **126. neurria** Legez araututa dago erregistro ofizial, errotulazio eta mapa ofiziale-tan hizkuntza gutxituko leku-izenek agertu behar dutela beti.

Adierazlea: Legez araututa al dago hizkuntza gutxituko leku-izenek beti agertu behar dutela? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Lurralde osoan eta errepide-maila, mapa eta bestelako euskarri guztietan aplikatzea
- Euskarri informatikoetan egotea
- Lege-babesa izatea

C. LEKU-IZENAK

2. **127. neurria** Hizkuntza gutxituko leku-izenen estatus legala bermatzen du legeak.

Adierazlea: Bermatuta al dago hizkuntza gutxituko leku-izenen estatus legala? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Izendegia osatzea
- Lege-babesa bermatzea

C. LEKU-IZENAK

3. **128. neurria** Enpresa pribatuak hizkuntza gutxituko leku-izenak erabiltzera behartuta daude berek kudeatutako garraio-ibilbide eta autobideetan.

Adierazlea: Araututa al dago enpresa pribatuek hizkuntza gutxituko leku-izenak erabili behar dituztela? **Mota:** (B/E)

EZAUGARRIAK

- Administrazioek egiten dituzten kontratu eta esleipen guztietan toponimo ofizialak erabili beharra jasotzea, eta egin ezean laguntza edo esleipena kentzea
- Jarraipenerako kontrol-mekanismoak abian jartzea
- Lege-babesa bermatzea

C. LEKU-IZENAK

4. **129. neurria** Leku-izen guztiak biltzen dituen datu-base bat jarri dute eskuragarri administrazio publikoek.

Adierazlea: Eskuragarri al dago leku-izen guztiak biltzen dituen datu-baserik?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Datu-basea kudeatuko duen atala sortzea
- Akademiarekin harreman iraunkorra bermatzea
- Informazioa herritarren, eragileen, enpresen eta beste instituzioen eskuetan uztea

C. LEKU-IZENAK

5. **130. neurria** Hizkuntza gutxituko leku-izenak berreskuratu, berrezarri eta ofizializatu egiten dira hizkuntzaren erabilera-eremu historikoan.

Adierazlea: Ba al da hizkuntza gutxituko leku-izenak berreskuratu eta berrezartzeko planik?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Horren kudeaketarako atala sortzea eta gizarte eragileekin zein unibertsitateekin lankidetzan jardutea
- Baliabide berezituak esleitzea

C. LEKU-IZENAK

6. **131. neurria** Administrazio publikoekin hitzarmenak dituzten edo diru-laguntzak (zuzenak zein zeharkakoak) jasotzen dituzten enpresek eta bestelako erakundeek hizkuntza gutxituko leku-izenak erabili behar dituzte.

Adierazlea: Araututa al dago enpresa eta erakunde horiek hizkuntza gutxituko leku-izenak erabili behar dituztela? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Jarraipenerako eta kontrol-mekanismoak abian jartzea
- Enpresei eta bestelako erakundeei datu-baserako sarbidea helaraztea
- Izendegi ofizialak erabiltzen ez dituztenei laguntzak kentzea edo hitzarmenak etetea

C. LEKU-IZENAK

7. **132. neurria** Administrazio publikoek jarraibide batzuk ematen dituzte, enpresa pribatuek kartografia- nahiz lokalizazio-xedeetarako egiten dituzten gailu eta tresnetan (GPSan, esate baterako) hizkuntza gutxituko leku-izenak erabil ditzaten.

Adierazlea: Administrazio publikoak eman al die halako jarraibiderik enpresa pribatuei? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Sentsibilizazio- eta kontzientziazio-kanpainak egitea

5. EREMUA:

HEDABIDEAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

A. OINARRIZKO NEURRIAK

B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

1. JABETZA PUBLIKOKO HEDABIDEAK
2. JABETZEA PRIVATUKO ETA HERRI-EKIMENEO HEDABIDEAK
3. IKUSGARRITASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK
4. EDUKIA
5. HEDABIDE BERRIAK
6. HEDABIDEETAKO PROFESIONALAK
7. MUGAZ GAINDIKO HARREMANAK

C. TEKNOLOGIA BERRIAK

A. OINARRIZKO NEURRIAK

1. **133. neurria** Administrazio publikoak diseinatu eta garatutako hizkuntza-politikaren barruan bada informazio- eta komunikazio-teknologiei (IKT) buruzko atal bat, hedabideek eta IKTek hizkuntza-politikan duten lekua zehazten duena. Era berean, bere komunikazio- eta IKT-politikak diseinatzeko garaian, Administrazio publikoak hizkuntzari buruzko atal bat prestatzen du.

Adierazlea: Ba al da IKTei buruzko atalik hizkuntza-politiken barruan? **Mota:** B/E
Aintzat hartzen al da hizkuntza gutxitua IKT-politiketan?

EZAUGARRIAK

- Administrazioak hizkuntza-politikako atalean lerro espezifikoak edukitzea hedabideetako ingurune digitalak eta gainontzeko ingurune digitalak bereizten dituen
- Bai hedabideen garapen digitalean, bai eta hedabideak ez diren ingurune digitaletan ere, finantzazio-irizpideak eta proiektuak baloratzeko baremoak egokituak izatea euskararen alde
- Administrazioak arloko adituez osatutako batzorde batean, ingurune digitaletan eta Interneten euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko herri-aginteei gomendioak biltzen dituen txostena osatzea eta garatzea
- Administrazioaren ingurune digitalaren politikak hizkuntza-politikako sailetik aparte kudeatzen denean ere hizkuntza-irizpideak edukitzea

A. OINARRIZKO NEURRIAK

2. **134. neurria** Komunikazio-sistema bat garatzen da hizkuntza gutxiturako, komunikazio-esparru guztiak aintzat hartuz. Hizkuntzaren erabilera-eremuko erakunde eta instituzioek kudeatzen dute sistema hori.

Adierazlea: Ba al da hizkuntza gutxiturako komunikazio-sistematik, **Mota:** B/E
neurri honen ezaugarriei jarraiki?

EZAUGARRIAK

- Komunikazio-sistema euskalduntzeko legea ezartzea, non euskarazko hedabideen izaera estrategikoa aitortuko den
- Komunikazio-legea lantzeko organo mixtoa sortzea (administrazioa / sektorea)
- Komunikazio-eremu propioa eta euskalduna sortzeko plangintza osatzea
- Lege-babesa behar duten neurri guztiak lege-garapenean jasoak egotea

A. OINARRIZKO NEURRIAK

3. **135. neurria** Komunikazio-sistema hedabide publikoetako eta herri-ekimeneko hedabideetako ordezkariak kudeatzen dute modu osagarrian, eta elkarrekin lan egiten dute, baldintza berberetan eta elkarren lana errepikatzea saihestuz.

Adierazlea: Komunikazio-sistema hedabide publikoetako eta herri-ekimeneko ordezkariak kudeatzen al dute modu osagarrian? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Elkarlan-estrategia gauzatzea hedabide publikoak eta herri ekimeneko hedabideen artean
- Mapa egitea bikoizketak saihestu eta aukerak identifikatzeko, komunikazio-sistema egonkorra eta eraginkorra izan dadin
- Herri-ekimeneko hedabideen produkzio-baldintzak eta gaitasunak hobetzea baldintza berberetan aritzeko
- Elkarlana errazteko hedabide publikoetako edukiak lizentzia libreak jartzea

A. OINARRIZKO NEURRIAK

4. **136. neurria** Hizkuntza gutxituari laguntzeko komunikazio-politika bat garatzen da, administrazio publikoen eta herri-ekimeneko erakundeen edo erakunde pribatuen arteko elkarlanean oinarrituta.

Adierazlea: Ba al da haien arteko lankidetzak garatzeko marko iraunkorrik? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Administrazioak lerro espezifikoak garatzea aurrekontu orokorreko hizkuntza-politikako atalean, hedabideentzat eta hedabideen atal digitalarentzat
- Administrazioaren eta herri-ekimeneko hedabideen arteko finantzazio-marko egonkorra egotea
- Administrazioaren eta herri-ekimeneko hedabideen arteko ituna gauzatzea eta jarraipena egitea
- Aurrera begira sektoreak egin beharreko bidearen gaineko hausnarketa konpartitua egitea
- Komunikazio-sistema euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea

A. OINARRIZKO NEURRIAK

5. **137. neurria** Administrazio publikoek egitura bat sortzen dute hizkuntza gutxituek hedabideetan duten presentziaren jarraipena egiteko.

Adierazlea: Sortu al da hedabideen jarraipena egiteko egiturarik? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Euskal hedabideen behategi bat sortzea, hizkuntza gutxituek hedabideetan duten presentziaren jarraipena egiteko
- Behategia hiru hankako egitura izatea, Administrazioa, sektorea eta unibertsitateak osaturik
- Finantzazio-marko iraunkorraren jarraipena egiteko funtzioa izatea
- Prospekzio-ariaketak, ikerketak eta abarrekoak egitea
- Euskal hedabideen sektoreak egin behar duen bidearen gaineko gomendioak egitea eta hurrengo kontratuak jasotzeko proposamenak egiteko funtzioa izatea
- Komunikazio-eremua euskalduntzen joateko eta proiektu berriak sustatzeko azterketak egiteko funtzioa izatea

B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

1. JABETZA PUBLIKOKO HEDABIDEAK

- 1.1. **138. neurria** Bada programazio osoa hizkuntza gutxituan ematen duen jabetza publikoko irrati-kate bat.

Adierazlea: Ba al da hizkuntza gutxituko irrati publiko bat gutxienez? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Hedabide publikoaren kontratazioetan, formazio-planetan... hizkuntza-irizpideak kontuan hartzea
- Baliabide aldetik, hizkuntza nagusian programazioa ematen duen jabetza publikoko irrati-katearen antzeko baliabideak bermatzea (inbertsioak eta gastuak)
- Lanerako materiala eta baliabideak euskaraz egotea
- Komunikazio-sisteman euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea

B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

1. JABETZA PUBLIKOKO HEDABIDEAK

- 1.2. **139. neurria** Bada programazio osoa hizkuntza gutxituan ematen duen jabetza publikoko telebista-kate bat.

Adierazlea: Ba al da hizkuntza gutxituko telebista-kate publiko bat gutxienez? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Hedabide publikoaren kontratazioetan, formazio-planetan... hizkuntza-irizpideak kontuan hartzea
- Baliabide aldetik, hizkuntza nagusian programazioa ematen duen jabetza publikoko telebista-katearen antzeko baliabideak bermatzea (inbertsioak eta gastuak)
- Lanerako materiala eta baliabideak euskaraz egotea
- Komunikazio-sistema euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea

B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

1. JABETZA PUBLIKOKO HEDABIDEAK

- 1.3. **140. neurria** Nagusiki hizkuntza nagusian diharduten jabetza publikoko hedabide guztietan bermatuta dago hizkuntza gutxituaren gutxieneko presentzia. Hedabide bakoitzari egokitutako baliabideak esleitzen dira horretarako: prentsaren kasuan, atal batzuk hizkuntza gutxituan; irradian, hizkuntza gutxituko segmentuak programazioan; telebistan, segmentu batzuk azpi-idatziekin edo bigarren audio-kanal batekin ematen dira; Interneteko hedabideetan, hizkuntza-bertsioak eskaintzen dira. Elementu horien presentzia kuota zehatzen bidez araututa dago, hizkuntza-politikan finkatutako gutxieneko batzuekin.

Adierazlea: Ba al dago nagusiki hizkuntza nagusian diharduten jabetza publikoko hedabide guztietan hizkuntza gutxituaren presentzia bermatzen duen kuota sistematik? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Kuota-sistema bat ezartzea hizkuntza nagusiko kate publikoetan euskararen presentzia bermatzeko
- Epeka kuotaren berrikuspenera egitea, euskara dakitenen pertsona-kopuruak gora egin ahala euskarazko ehunekoa emendatzeko
- Komunikazio-sistema euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea

B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

2. JABETZA PRIBATUKO ETA HERRI-EKIMENENKO HEDABIDEAK

- 2.1. **141. neurria** Bada eduki guztia hizkuntza gutxituan argitaratzen duen eta finantzazioa bermatuta duen egunkari bat.

Adierazlea: Ba al da eduki guztia hizkuntza gutxituan eta finantzazioa bermatuta duen egunkaririk?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Administrazioak lerro espezifikoak garatzea aurrekontu orokorreko hizkuntza-politikako atalean, hedabideentzat eta hedabideen atal digitalarentzat
- Administrazioaren eta herri ekimeneko hedabideen arteko finantzazio-itunaren marko egonkorra egotea
- Administrazioaren eta herri-ekimeneko hedabideen arteko ituna gauzatzea eta jarraipena egitea
- Administrazioa eta euskaraz eduki guztia argitaratzen duen egunkariaren arteko ituna gauzatzea, adostutako zerbitzu publikoa eta produkzioa bermatzeko nahikoa berme emango duen finantzazio publikoarekin
- Itunean aurrera begirako ikuspegia (egunkariak inbertsio eta garapen aldetik egin beharreko bidea) jasotzeko marko iraunkorra egotea
- Komunikazio-sistema euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea
- Lanerako baliabideak euskaraz edukitzea (materiala, dokumentuak, datuak, ingurumen digitala...)

B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

2. JABETZA PRIBATUKO ETA HERRI-EKIMENENKO HEDABIDEAK

- 2.2. **142. neurria** Hizkuntza gutxituan oinarritutako edo guztiz hizkuntza horretan diren hedabideek gainerako lege-estatus bera dute.

Adierazlea: Ba al dute hizkuntza gutxituan oinarritutako edo guztiz hizkuntza horretan diren hedabideek gainerako lege-estatus bera?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Administrazioak lerro espezifikoak garatzea aurrekontu orokorreko hizkuntza-politikako atalean, hedabideentzat eta hedabideen atal digitalarentzat
- Administrazioaren eta herri-ekimeneko hedabideen arteko finantzazio-marko egonkorra egotea
- Administrazioaren eta herri-ekimeneko hedabideen arteko ituna gauzatzea eta jarraipena egitea
- Aurrera begira sektoreak egin beharreko bidearen gaineko hausnarketa konpartitua egitea
- Lege estatus bera bermatzeko, publizitate instituzionalaren inbertsio-maila areagotzea (proportzionalki) erabat euskaraz ari diren hedabideetan, hizkuntza-irizpideetan oinarrituta
- Erakunde publikoek publizitate instituzionalaren hizkuntza-irizpideak arautzea eta epekako berrikuste egoera berrietara egokitzeko
- Komunikazio-sistema euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea

B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

2. JABETZA PRIBATUKO ETA HERRI-EKIMENEN HEDABIDEAK

- 2.3. **143. neurria** Hizkuntza gutxituko hedabideek ez dute beste hizkuntzarik erabili beharrik.

Adierazlea: Hizkuntza gutxituko hedabideek guztiz hizkuntza horretan egitea (legez) babestua al dago?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Euskara hutsez egonda ere, hizkuntza nagusiko hedabideen baldintza eta berme juridiko berak esleitzen dizkion lege-babesa egotea
- Komunikazio-sistema euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea

B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

2. JABETZA PRIBATUKO ETA HERRI-EKIMENEN HEDABIDEAK

- 2.4. **144. neurria** Administrazioarekin kontraturen bat duten edo harengandik zerbitzu, laguntza edo prestaziorik jasotzen duten jabetza pribatuko hedabideek hizkuntza gutxitua bultzatzeko kuota eta neurri batzuk bete behar dituzte.

Adierazlea: Ba al dago, Administrazioaren aldetik, eurekin kontraturen bat duten, laguntza edo prestazioak jasotzen dituzten jabetza pribatuko hedabideentzat hizkuntza gutxitua bultzatzeko kuota edo neurri betebeharrik?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Kuota bat ezartzea administrazioarekin kontratua, laguntza edo prestazioa jasotzen duten hedabideek euskara bultzatzeko
- Kuotaren berrikuspena epeka egitea, euskara dakiten pertsona kopuruak gora egin ahala euskarazko ehunekoa igotzeko
- Komunikazio-sistema euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea

B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

2. JABETZA PRIBATUKO ETA HERRI-EKIMENeko HEDABIDEAK

- 2.5. **145. neurria** Administrazio publikoek kuota-sistemak aplikatzen dituzte, publizitate instituzionalean eskualdeko hizkuntzak, bereziki hizkuntza gutxitua, erabiltzen dela bermatzeko.

Adierazlea: Ba al dago Administrazioaren aldetik publizitate instituzionalean hizkuntza gutxitua erabiltzeko kuota-sistemarik?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Kuota-sistema ezartzea, eskualde horretan hizkuntza gutxituaren ezagutza tasaren ginetik (+%10)
- Kuota-sistemaren epekako berrikuspina eta egokitzapena egitea
- Kuota-sistemaren betetze maila ikuskatzeko kontrol-mekanismoak egotea
- Komunikazio-sistema euskalduntzeko lege-garapenean jaso egotea

B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

2. JABETZA PRIBATUKO ETA HERRI-EKIMENeko HEDABIDEAK

- 2.6. **146. neurria** Programazio osoa hizkuntza gutxituan duten hedabideek laguntza bereziak jasotzen dituzte.

Adierazlea: Ba al dago halako hedabideentzat laguntza lerro espezifikorik?
Xede horretarako erabilitako giza baliabideak,
diru-baliabideak eta baliabide materialak.

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Administrazioak lerro espezifikoak garatzea euskarazko hedabideentzako aurrekontu orokorreko hizkuntza-politikako atalean
- Lerro espezifikoak hiztun-komunitatearen garapenarekin batera joatea progresibotasunez

B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

3. IKUSGARRITASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK

- 3.1. **147. neurria** Inbertsio-politika jarraitu bat aplikatzen da, hizkuntza gutxituko hedabideen eskaintza normalizatzeko, diskriminazio positiboaren bidez.

Adierazlea: Ba al dago hizkuntza gutxituko hedabideak normalizatzeko, kontzertazio bidezko inbertsio-politikarik?
Xede horretarako erabilitako giza baliabideak, diru-baliabideak eta baliabide materialak.

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Administrazioak lerro espezifikoa garatzea aurrekontu orokorreko hizkuntza-politikako atalean, hedabideentzako eta hedabideen atal digitalarentzako
- Administrazioaren eta herri-ekimeneko hedabideen arteko finantzazio-marko egonkorra egotea
- Administrazioaren eta herri-ekimeneko hedabideen arteko ituna gauzatzea eta jarraipena egitea
- Aurrera begira sektoreak egin beharreko bidearen gaineko hausnarketa partekatua egitea

B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

3. IKUSGARRITASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK

- 3.2. **148. neurria** Administrazio publikoek hizkuntza gutxituko hiztunek beren hizkuntzan aritzeko baliabideak jartzen dituzte, eta hizkuntza gutxituko produkzioa sustatzen dute, hizkuntza nagusiko hedabideen artean hizkuntza gutxituen presentzia bermatzeko.

Adierazlea: Ba al da hizkuntza gutxituko produkzioa sustatzeko plangintzarik?
Xede horretarako erabilitako giza baliabideak, diru-baliabideak eta baliabide materialak.

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Euskararen presentzia hizkuntza nagusiko hedabide publikoetan bermatzeko planifikazioa egitea eta horretarako finantzazioa egotea
- Euskaraz egiten dutenei hizkuntza nagusian egitera ez behartzea, azpitoluak jarri, adibidez
- Azpitoluzioa eta itzulpengintza bermatzea
- Kuota-sistema bat ezartzea hizkuntza nagusiko hedabide publikoetan euskararen presentzia bermatzeko
- Kuota hizkuntza gutxituaren ezagutza tasaren gainera jartzea, epeka berrikustea eta kontrol-mekanismoak ezartzea
- Hizkuntza nagusiko beste hedabideetan kuota-sistema publizitate instituzionalaren bidez baldintzatua egotea
- Euskara hutsez ari diren hedabideen eskaintza aberasteko politika publikoak abian jartzea

B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

3. IKUSGARRITASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK

- 3.3. **149. neurria** Administrazio publikoek neurriak hartzen dituzte hizkuntza gutxitu-ko hedabideen ikusgarritasuna sustatzeko, komunikazio-kanpainen bidez, hizkuntza gutxituko prentsa leku publikoetan egoteko laguntzen bidez, eta abar.

Adierazlea: Ba al da administrazio publikoen aldetik hizkuntza gutxituko hedabideen ikusgarritasuna sustatzeko plangintzarik?

Mota: P

EZAUGARRIAK

- Administrazioek, zeinek bere eskumenen arabera, euskarazko hedabideen sustapen-plana egitea prestigioa emateko eta ikusgarritasuna sustatzeko
- Hedabide publikoetan herri-ekimeneko hedabideen ikusgarritasuna sustatzeko, espazioak doan eskaintzea
- Hedabideek beren burua promozionatzeko laguntza-lerro berezitua sortzea
- Komunikazio-sistema euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea

B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

4. EDUKIA

- 4.1. **150. neurria** Hizkuntza gutxituari buruzko estereotipoak edo jarrera arrazistak bultzatzen dituzten hedabideak zigortu egiten dira.

Adierazlea: Finkatu al da jarrera horiek sustatzen dituztenentzako zigorrik?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Publizitate instituzionala ez sartzeari eragotzea hedabideetan
- Komunikazio-sistema euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea

B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

4. EDUKIA

- 4.2. **151. neurria** Hedabideek beharrezko neurriak eskaintzen dituzte, hizkuntza gutxituko hiztunen hizkuntza-hautuari erantzuteko.

Adierazlea: Ba al daude tresna zehatzak hautuari erantzuteko?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Euskararen presentzia hizkuntza nagusiko hedabide publikoetan bermatzeko planifikazioa egitea eta horretarako finantzazioa egotea
- Euskaraz egiten dutenei hizkuntza nagusian egitea ez behartzea, adibideak, azpigituluak jarritz
- Komunikazio-sistema euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea

B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

4. EDUKIA

- 4.3. **152. neurria** Eduki lokala sustatzen da hedabideetan, hizkuntzaren eta haren erabilera-eremuaren arteko lotura sendotzeko.

Adierazlea: Ba al du Administrazioak eduki lokala sustatzeko laguntza-lerro espezifikorik?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Eduki lokala bermatzeko erakundeek politika publikoak ezartzea
- Politika publiko koordinatua ezartzea, hedabideen informatzeko markoa diren mailak kontuan hartuz eta haien arteko oreka bultzatuz
- Laguntza-lerro espezifikoak egotea

B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

5. HEDABIDE BERRIAK

- 5.1. **153. neurria** Irrati- edo telebista-lizentzia berriak ematen direnean, lizentzia batzuk gordetzen dira programazio osoa hizkuntza gutxituan ematen duten irrati- eta telebista-kateentzat.

Adierazlea: Irrati- edo telebista-lizentzia berriak ematen direnean, gordetzen al dira lizentzia batzuk programazio osoa hizkuntza gutxituan ematen dutenentzat? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Kuota-sistema egotea lizentziak emateko garaian
- Euskarazko lizentziek lehentasuna izatea
- Lurralde-irizpidea kontuan hartzea
- Lizentziak banatzerakoan berdintasun-kuota ezartzea hizkuntza gutxituaren eta nagusiaren artean
- Komunikazio-sistema euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea

B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

5. HEDABIDE BERRIAK

- 5.2. **154. neurria** Irrati- eta telebista-lizentzia berriak ematen direnean, hizkuntza kudeatzeko jarraibide batzuk ematen zaizkie hizkuntza gutxituan emititzen ez duten kateei, emisio batzuk hizkuntza gutxituan egiten dituztela bermatzeko.

Adierazlea: Administrazioak lizentzia berriak banatzerakoan baldintzarik jartzen al die hizkuntza gutxituan emisio batzuk egiten direla bermatzeko? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Kuotak ezartzea hizkuntza nagusiko hedabide guztiei eta haien berrikuspen progresiboa egitea
- Komunikazio-sistema euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea

B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

6. HEDABIDEETAKO PROFESIONALAK

- 6.1. **155. neurria** Unibertsitate-mailako ikastaroak ematen dira, komunikazio-profesionalak hizkuntza gutxituan trebatzeko.

Adierazlea: Ba al da unibertsitate-mailako komunikazio-trebakuntzarik hizkuntza gutxituan?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Euskal Herriko gunen administratibo guztietan komunikazio-ikasketak euskaraz egiteko aukera bermatzea, euskarazko hedabideetarako profesionalak formatzeko
- Euskarazko hedabideetarako langile eta profesionalak formatzea
- Profesional berrien euskarazko gaitasuna ziurtatzea

B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

6. HEDABIDEETAKO PROFESIONALAK

- 6.2. **156. neurria** Hizkuntza gutxituan lan egiten duten komunikazio-sektoreko profesionalak beren elkarateak osatu ditzakete.

Adierazlea: Araututa al dago beren erakundeak osatzeko eskubidea?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Euskarazko komunikazio-sektoreko elkarateek homologazioa hizkuntza nagusiko baldintza berberetan izatea
- Euskaraz lan egiten duten profesionalen gremio propioa izatea

B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

7. MUGAZ GAINDIKO HARREMANAK

- 7.1. **157. neurria** Hizkuntza gutxitu bat lurralde batean baino gehiagotan hitz egiten denean, hedabideen emisioak beste lurraldeetan ere jasotzen direla bermatzen da.

Adierazlea: Araututa al dago emisioak beste lurraldeetan ere jasoko direla? **Mota:** B/E
Aurututa al dago Administrazioak ez duela emisioak jasotzea debekatuko?

EZAUGARRIAK

- Mugaz gaindiko hitzarmenetan jasoa egotea
- Administrazioak lerro espezifikoak garatzea aurrekontu orokorreko hizkuntza-politikako atalean, hedabideentzat eta hedabideen atal digitalarentzat mugaz gaindiko harremanetan inbertitzeko

B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

7. MUGAZ GAINDIKO HARREMANAK

- 7.2. **158. neurria** Hedabiderik ez badago, gutxienez telebista-kate batek eta irrati-kate batek komunitatearen hizkuntzan emititzen duela eta egunkari bat komunitatearen hizkuntzan argitaratzen dela bermatzen dute administrazio publikoek, behar denean elkarlanean arituz.

Adierazlea: Abiarazi al dute telebista- edo irrati-katea bermatzeko ekimenik? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Euskarazko hedabiderik ez badago, beste lurraldeetako instituzioekin hitzarmenak egitea
- Mugaz-gaindiko markoaren babesa izatea
- Administrazioak lerro espezifikoak garatzea aurrekontu orokorreko hizkuntza-politikako atalean, hedabideentzako eta hedabideen atal digitalarentzako mugaz gaindiko harremanetan inbertitzeko

C. TEKNOLOGIA BERRIAK

1. **159. neurria** Administrazio publikoen softwarea hizkuntza gutxituan lokalizatuta edo hizkuntza gutxitura itzulita dago, eta herritarren esku jartzen da.

Adierazlea: Herritarrei begira Administrazio publikoak erabiltzen duen softwaretik hizkuntza gutxituan dagoenaren ehunekoa.

Mota: %

EZAUGARRIAK

- Ingurune digitala euskalduntzeko erabakiek lege-babesa edukitzea
- Administrazioak lerro berezitua garatzea aurrekontu orokorreko hizkuntza-politikaren atalean, ingurune digitalarentzat
- Ingurune digitalaren finantzazio-irizpideak eta proiektuak baloratzeko baremoak egokituak izatea euskararen alde
- Erakundeek estrategia digitala diseinatzea eta garatzea herri ekimeneko eragileekin lankidetzan
- Estrategia digitala delakoak euskararen garapenarentzat beharrezkoak diren hizkuntza-teknologiak garatzeko estrategiak diseinatzea
- Administrazioaren ingurune digitalaren politikak hizkuntza-politikako sailetik aparte kudeatzen denean ere, hizkuntza-irizpideak izatea
- Software erabilien eta garrantzitsuenen zerrenda egitea, eta euskaraz zer dagoen aztertzea
- Administrazio publikoaren *mapeoa* egitea
- % 100 itzulita ez dauden zerbitzuak euskarara itzultzea
- Argitaratzen diren zerbitzu berrietan euskara hasieratik %100eko presentzia izatea
- Euskara hizkuntza lehenetsi moduan ezartzea
- Ingurune digitala euskalduntzeko lege-garapenean jaso egotea

C. TEKNOLOGIA BERRIAK

2. **160. neurria** Administrazio publikoaren laguntza zuzena edo zeharkakoa jasotzen duten antolakunde, enpresa eta negozio guztiek beren zerbitzu digitalak hizkuntza gutxituan eman behar dituzte, diru-laguntzak jasotzeko baldintza gisa.

Adierazlea: Araututa al dago enpresa horiek hizkuntza gutxituan eman behar dituztela beren zerbitzuak?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Hizkuntza-irizpidea txertatzea esleipen eta diru-laguntza deialdietan
- Euskalgintzarekin batera, hornitzaileek euren zerbitzu digitalak hizkuntza gutxituan emateko gai direla aitortuko duen tresna abian jartzea
- Diru-laguntza deialdietan eta bestelako kolaborazio ekonomikoetan puntuazio-irizpide gisa euskararen erabilera jasotzea
- Softwarearen kontratazio-politikan euskaraz egotea bermatzea
- Sustapen lana egitea diru-laguntzen bidez: software-enpresek lokalizatu (itzuli) dezaten, enpresek euskaraz eskuratzeko aukera izan dezaten eta hizkuntza-industriako erakundeek lokalizazio-proiektu zehatzak aurkez ditzaten
- Ingurune digitala euskalduntzeko lege-garapenean jaso egotea

C. TEKNOLOGIA BERRIAK

3. **161. neurria** Araututa dago Administrazioaren hornitzaileek eskainitako zerbitzu digital guztiak hizkuntza gutxituan egongo direla.

Adierazlea: Araututa al dago zerbitzu guztiak hizkuntza gutxituan egongo direla? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Ingurune digitala euskalduntzeko erabakiek lege-babesa izatea
- Hornitzaileek eskainitako zerbitzuen katalogoa egitea eta euskararen presentzia aztertzea
- Hizkuntza-irizpideak txertatzea esleipen berrietan
- Administrazioaren ingurune digitalaren politikak, hizkuntza-politikako sailetik aparte kudeatzen denean ere, hizkuntza-irizpideak izatea
- % 100 itzulita ez dauden zerbitzuak euskarara itzultzea
- Argitaratzen diren zerbitzu berrietan euskarak hasieratik %100eko presentzia izatea
- Euskara hizkuntza lehenetsi moduan ezartzea
- Euskaraz ez dauden zerbitzuen hornitzaileei zerbitzua euskaraz ere eskaintzeko eskatzea eta egin ezean, beste zerbitzu bat bilatzea
- Erregistro bat eratzea, hau frogatzen dela egiaztatzeko
- Ingurune digitala euskalduntzeko lege-garapenean jaso egotea

C. TEKNOLOGIA BERRIAK

4. **162. neurria** Produktuak hizkuntza gutxituan egotea eskatzen dute IKTetarako diru-laguntza guztiek.

Adierazlea: Araututa al dago produktuetan hizkuntza gutxituaren presentzia IKTetarako diru-laguntzetan? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Diru-laguntza deialdietan eta bestelako lankidetzak ekonomikoetan puntuazio-irizpide gisa euskararen erabilera jartzea
- Diruz laguntzen diren erakundeek konpromiso-maila erakustea, euskara-plan edo antzeko plangintza bidez
- Softwarearen kontratazio-politikan eta esleipenetan euskaraz egotea bermatzea
- Sustapen-lana egitea diru-laguntzen bidez: software-enpresek lokalizatu dezaten, enpresek euskaraz eskuratzeko aukera izan dezaten eta hizkuntza-industriako erakundeek lokalizazio-proiektu zehatzak aurkez ditzaten
- Ingurune digitala euskalduntzeko lege-garapenean jaso egotea

C. TEKNOLOGIA BERRIAK

5. **163. neurria** Hizkuntza gutxituaren erabilera errazten duten tresnak (zuzentzaileak, itzulpen-softwarea, etab.) herritarren esku jartzen dira.

Adierazlea: Ba al dago hizkuntza gutxituaren erabilera errazten duten tresnak herritarren esku jartzeko programarik? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Softwarea euskaraz erabiltzeko komunikazio-ekintza multzoa egotea
- Software katalogoa, software biltegia egotea
- Itzulitako softwarearen gizarteratzea erraztea
- Software katalogoari erabilgarritasun eta ikusgarritasun handiagoa emateko formazio- eta sustapen-plana egitea
- Ingurune digitala euskalduntzeko estrategian batzorde zientifikoa eratzea, euskararen garapen digitalean beharrezko diren tresnak identifikatzeko eta garapen estrategiak definitzeko
- Administrazioak egiten dituen erosketak lizentzia librean liberatzea
- Ingurune digitalaren kudeaketa burujabea garatzea, estrategia digital orokorra landuz eta finantzazio-lerroa kudeatuz, non estrategia horretan itzulpenak lantzeaz gain bertako beharrei bideratutako hizkuntza-teknologiako tresnak sortzea baloratuko den

C. TEKNOLOGIA BERRIAK

6. **164. neurria** Administrazio publikoek hitzarmenak sinatzen dituzte enprekin, hizkuntza gutxituaren presentzia digitala handitzeko.

Adierazlea: Ba al du Administrazio publikoak hizkuntza gutxituaren presentzia digitala handitzeko enprekin hitzarmen-programarik? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Aurrekontu orokorren hizkuntza-politikaren atalean ingurune digitalarentzat atal berezitua egotea
- Erakundeek estrategia digitala diseinatzea eta garatzea herri ekimeneko eragileekin lankidetzan
- Ingurune digitaleko enprekin interlokuzio bateratua egotea
- Enprekin egin beharreko hitzarmenak bete daitezten plana abian jartzea eta hori betetzen dela ziurtatzea
- Administrazio publikoarekin lan egin nahi duten enpresei euskararen presentzia handitzeko hitzarmenak eskatzea
- Hitzarmen horiek abian jartzea Euskal Herriko enpresak eta ikerketa-zentroak zein unibertsitateak kontuan hartuz
- Ingurune digitala euskalduntzeko estrategian, batzorde zientifiko bat eratzea, garatu beharreko teknologiaren ibilbide-orria definitu eta abiatzeko
- Euskalgintzarekin batera, hornitzaileek euren zerbitzu digitalak hizkuntza gutxituan emateko gai direla aitortuko duen tresna abian jartzea
- Ingurune digitala euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea

C. TEKNOLOGIA BERRIAK

7. **165. neurria** Gazteei zuzendutako produktu digitalak eskuragarri daude hizkuntza gutxituan. Horretarako baliabideak eta epeak zehazten dira.

Adierazlea: Ba al du administrazio publikoak gazteei zuzendutako produktu digitalak hizkuntza gutxituan eskaintzeko programarik? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Ingurune digitala euskalduntzeko estrategian gazteei zuzendutako atala egotea
- Haur eta gazteentzat lehenasunezko produktu digitalak identifikatu eta hauek euskaraz egoteko ibilbide-orria definitzea
- Atzerriko erakunde nagusiekin harremanak landu eta euskara beraien programetan txertatuko dela bermatzea
- Euskal Herrian ekoizten diren produktu digitalen hizkuntzaren erabileraren katalogoa eratzea eta bertan jasotzen diren produktuek baldintza hori betetzen dutela ziurtatzea
- Gazteei bideratutako egitasmo digitalak euskaraz egotea, eta hori izatea komunikazio hizkuntza nagusia
- Hizkuntza-irizpidea material digitalean txertatzea

C. TEKNOLOGIA BERRIAK

8. **166. neurria** Hizkuntza gutxituan garatutako proiektu digitalek lehenasuna dute diru-laguntzetan.

Adierazlea: Araututa al dago hizkuntza gutxituko proiektuek lehenasuna dutela? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Hizkuntza-irizpidea txertatzea esleipen eta diru-laguntza deialdietan
- Euskalgintzarekin batera, hornitzaileek euren zerbitzu digitalak hizkuntza gutxituan emateko gai direla aitortuko duen tresna abian jartzea
- Diru-laguntza deialdietan eta bestelako lankidetzak ekonomikoetan puntuazio-irizpide gisa euskara erabiltzea jartzea
- Softwarearen kontratazio-politikan euskaraz egotea bermatzea
- Sustapen-lana egitea diru-laguntzen bidez: software-enpresek lokalizatu dezaten, enpresek euskaraz eskuratzeko aukera izan dezaten eta hizkuntza industriako erakundeek lokalizazio-proiektu zehatzak aurkez ditzaten
- Euskararen garapenerako estrategikoak diren proiektuek lehenasuna edo aitortza eta ondorioz babes ekonomikoa (hitzarmen, itun,...)
- Diru-laguntza deialdietan ezinbesteko baldintza moduan ezartzea
- Ingurune digitala euskalduntzeko lege-garapenean jasoa egotea

6. EREMUA:

KULTURA

A. KULTURA JASOTZEKO ESKUBIDEA

B. HIZKUNTZA GUTXITUAN SORTUTAKO KULTURA

1. SORKUNTZARAKO LAGUNTZA

2. TRANSMISIOA

3. IKUSGARRITASUNA

C. KANPOKO KULTURA HIZKUNTZA GUTXITUAN

A. KULTURA JASOTZEKO ESKUBIDEA

1. **167. neurria** Legeak onartzen dira hizkuntza gutxituko kultura jende guztiarentzat eskuragarri egon dadin.

Adierazlea: Legez errekonozituta al dago hizkuntza gutxituko kulturak eskuragarri egon behar duela jende guztiarentzat? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Kultura eragile anitzez osatuta dagoen ekosistema gisa aitortzea
- Euskararen eremuko instituzio eta gobernuek euskal kultura jasotzeko eskubidea aitortzen duen legea onartu eta gauzatzea
- Legeak euskal kulturak babes eta sustapen neurriak behar dituela jasotzea
- Zein diren euskal kultur eragileak (bakarkakoak zein taldekakoak), hala kontsideratuak izateko, bete behar dituzten baldintzak eta beharrak, eta hola izateagatik dauzkaten eskubideak (zerga-mailako abantailak, eta abar) lege-garapenean jasotzea
- Administrazioak bere aurrekontua duen kultura saila estrategikotzat jo eta indartzea
- Administrazioak kultura sustatu eta babesteko dituen aurrekontuetan, euskal kultura izatea oinarri, eta estrategiko ikusten denez, indartzea bertara bideratu beharreko baliabideak
- Euskal kulturaren sustapen eta babeserako lege-garapena onartzea
- Instituzioek onartutako lege eta lege-garapenak aurrera eramateko eta administrazioak ematen dituen baliabideak kudeatzeko erakunde autonomoa eratzea
- Erakunde autonomoa euskal kultur eragileek, sortzaileek eta instituzioek osatzea
- Erakundearen funtzioak honakoak izatea: proiektuen kudeaketa, sustapena, ikusgarritasuna, laguntza eta inbertsioen kudeaketa, kuoten irizpideak, planifikazioa, kultura unibertsalaren euskaratzeko irizpideen kudeaketa...
- Erakunde autonomoak kulturaren sustapen eta babeserako plangintza osatzea
- Neurria euskal kulturaren sustapen eta babeserako lege-garapenean jasoa egotea

A. KULTURA JASOTZEKO ESKUBIDEA

2. **168. neurria** Administrazio publikoek aurrekontu orokorretan kontu-sail berezi batzuk dituzte hizkuntza gutxituko kultura sustatu eta kultura unibertsala hizkuntza gutxituaren bidez jasotzeko aukera bermatzeko.

Adierazlea: Ba al dute administrazio publikoek hizkuntza gutxituko kultura sustatu eta kultura unibertsala hizkuntza gutxituaren bidez jasotzeko aurrekontu sail berezia? (B/E) **Mota:** B/E
Xede horretarako erabilitako giza baliabideak, diru-baliabideak eta baliabide materialak.

EZAUGARRIAK

- Administrazioak kultura sustatu eta babesteko dituen aurrekontuetan, euskal kultura izatea oinarri, eta estrategiko ikusten denez, indartzea bertara bideratu beharreko baliabideak
- Diru-laguntzetatik inbertsio-politikara pasako den politika adostea kultur eragileekin, eta abian jartzea erakunde autonomoaren bidez
- Euskal kultura sustatu eta babesteko erakunde autonomoak finantza-baliabideak eduki eta kudeatzea
- Administrazioak lerro espezifikoak garatzea aurrekontu orokorretan nazioarteko kultur ekoizpenak euskaratzeko
- Aurrekontu orokorretan, industria sailean euskal kultura sartzeko aukera bermatzea
- Kultura herritarren artean sustatzeko, administrazio sail ezberdinetan plangintzak eta aurrekontuak onartzea, bereziki hizkuntza-politikan, hezkuntzan, aisian, azpiegiturretan, turismoan eta eremu sozioekonomikoan
- Neurri hau euskal kulturaren sustapen eta babeserako lege-garapenean jasoa egotea

B. HIZKUNTZA GUTXITUAN SORTUTAKO KULTURA

1. SORKUNTZARAKO LAGUNTZA

- 1.1. **169. neurria** Hizkuntza gutxituan sorkuntza egiten duten artisten lana errekonozitzen eta babesten da, eta sortzailearen estatutua sortu da haien eskubideak babesteko.

Adierazlea: Ba al dago sortzaileen estatuturik?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Euskal sortzaileen estatutua aitortuko eta definituko duen legea onartzea eta aplikatzea
- Zein diren euskal kultur eragileak (bakarkakoak zein taldekoak), hala kontsideratuak izateko, bete behar dituzten baldintzak eta beharrak, eta hola izateagatik dauzkaten eskubideak (zerga mailako abantailak, eta abar) lege-garapenean jasotzea
- Lan-baldintzei buruzko zehaztasun guztiak lege-garapenean jasotzea
- Sortzaileen lana jasotzeko bitartekoak eta espazioak ahalbidetzea, (plazak, hedabideak, eta hezkuntza arautuan zein ez arautuan transmisioa)
- Sorkuntza pertsonaren garapenerako curriculumean txertatua egotea (hezkuntza)
- Neurria euskal kulturaren sustapen eta babeserako lege-garapenean jasoa egotea

B. HIZKUNTZA GUTXITUAN SORTUTAKO KULTURA

1. SORKUNTZARAKO LAGUNTZA

- 1.2. **170. neurria** Bada kontu-sail bat hizkuntza gutxituko kultur proiektuetan inbertitzeko.

Adierazlea: Ba al da inbertsiorako kontu-sailik?
Xede horretarako erabilitako giza baliabideak,
diru-baliabideak eta baliabide materialak.

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Aurrekontu orokorretan, industria sailean euskal kultura jasotzeko aukera bermatzea
- Diru-laguntzetatik inbertsio-politikara pasako den politika adostea kultur eragileekin eta martxan jartzea
- Administrazioak lerro espezifikoak garatzea aurrekontu orokorrean euskal kultura sustatu eta babesteko
- Administrazioak lerro espezifikoak garatzea aurrekontu orokorretan nazioarteko kultur ekoizpenak euskaratzeko
- Neurria kulturaren sustapen eta babeserako plangintzan jasoa egotea
- Neurria euskal kulturaren sustapen eta babeserako lege-garapenean jasoa egotea

B. HIZKUNTZA GUTXITUAN SORTUTAKO KULTURA

1. SORKUNTZARAKO LAGUNTZA

- 1.3. **171. neurria** Bada laguntza-sistema bat hizkuntza gutxituko sortzaileentzat.

Adierazlea: Ba al da sortzaileentzako laguntza-sistemarik?
Xede horretarako erabilitako giza baliabideak,
diru-baliabideak eta baliabide materialak

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Euskal sortzaileen estatutua definitzen duen lege-garapenean jasoa egotea
- Sorkuntza modu iraunkorrean sustatzeko estrategia, eta kudeaketa euskal kultura babestu eta sustatzeko erakunde autonomoaren esku egotea
- Sortzaileen lana jasotzeko bitartekoak eta espazioak ahalbidetzea (plazak, hedabideak, eta hezkuntza arautuan zein ez arautuan transmisioa)

B. HIZKUNTZA GUTXITUAN SORTUTAKO KULTURA

1. SORKUNTZARAKO LAGUNTZA

- 1.4. **172. neurria** Administrazioak inbertsio-politika batzuk finkatzen ditu hizkuntza gutxituan aritzen diren kultur eragileak eta kultur industria babesteko.

Adierazlea: Ba al dago hizkuntza gutxituko kultur eragileak eta kultur industria babesteko kontzertazio bidezko inbertsio-politikarik?
Xede horretarako erabilitako giza baliabideak,
diru-baliabideak eta baliabide materialak.

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Aurrekontu orokorretan, industria sailean euskal kultura jasotzeko aukera bermatzea
- Administrazioak ematen dituen baliabideen kudeaketa erakunde autonomoaren esku uztea
- Diru-laguntzetatik inbertsio-politikara pasako den politika adostea kultur eragileekin eta martxan jartzea
- Administrazioak lerro espezifikoak garatzea aurrekontu orokorrean euskal kultura sustatu eta babesteko
- Administrazioak lerro espezifikoak garatzea aurrekontu orokorretan nazioarteko kultur ekoizpenak euskaratzeko
- Euskal kulturaren babeserako lege-garapenean jasoa egotea

B. HIZKUNTZA GUTXITUAN SORTUTAKO KULTURA

1. SORKUNTZARAKO LAGUNTZA

- 1.5. **173. neurria** Bada kuota bat instituzioek antolatutako edo haiek diruz lagundutako kultur programazioetan hizkuntza gutxituan sortutako kultur adierazpideak bermatzeko.

Adierazlea: Ba al dago kultur programazioetan hizkuntza gutxituan sortutako kultur adierazpideak bermatzeko kuota-sistematik?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Edozein laguntza jasotzeko euskaraz programatzea derrigorrezkoa izango duen kuota-sistema ezartzea
- Kuota-sistema horretan programazioaren %50 gutxienez euskaraz, eta euskaldunen kopurua hortik gorakoa bada, kopuru hori > %50 gutxienez izatea
- Kuota-sistema programazioez gain, zabalkundean eta aurkezpenetan ere aplikatzea
- Euskal hiztun kopurua %80tik gora denean kuota %100koa izatea laguntzak jasotzeko
- Kulturaren sustapen eta babeserako plangintzan zehaztua egotea
- Euskal kulturaren babeserako lege-garapenean jasoa egotea

B. HIZKUNTZA GUTXITUAN SORTUTAKO KULTURA

1. SORKUNTZARAKO LAGUNTZA

- 1.6. **174. neurria** Tresnak eskaintzen dira sorkuntza-esparru guztietako terminologia hizkuntza gutxituan eskuragarri egon dadin.

Adierazlea: Ba al dago sorkuntza-esparru guztietako terminologia hizkuntza gutxituan eskuragarri egon dadin tresnak eskaintzeko programarik?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Euskalterm terminologia-hiztegia, osatzea
- Neurria estrategikotzat jotzea eta behar duen diruz hornitzea
- Kulturaren sustapen eta babeserako plangintzan jasoa egotea
- Euskal kulturaren babeserako lege-garapenean jasoa egotea

B. HIZKUNTZA GUTXITUAN SORTUTAKO KULTURA

2. TRANSMISIOA

- 2.1. **175. neurria** Hedabide publikoek hizkuntza gutxituan sortutako kulturaren berri zabaltzeko programak dituzte.

Adierazlea: Hedabide publikoek programa horiek ematen dituzte? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Kultur adierazpideak ezagutzera emateko kultur saioak abian jartzea, eta iraunkorrak izatea
- Saioak ugaritu eta mantentzea
- Erakunde autonomoaren eta hedabide publikoen arteko elkarlan iraunkorra eta egituratua egotea, euskarazko kulturaren hedapenari buruzko estrategia diseinatzeko
- Euskal kulturaren babeserako lege-garapenean hedabide publikoek duten funtzioa jasoa egotea

B. HIZKUNTZA GUTXITUAN SORTUTAKO KULTURA

2. TRANSMISIOA

- 2.2. **176. neurria** Hedabide publikoetako albistegietan tarte bat eskaintzen zaio hizkuntza gutxituko kulturari, eta era guztietako kultur adierazpideen berri ematen da bertan.

Adierazlea: Ba al dago hedabide publikoen albistegietan hizkuntza gutxituko kultur adierazpide guztiei buruzko atalik? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Euskarazko kultur eskaintzari albistegietan egunero lekua egitea
- Kulturaren sustapen eta babeserako plangintzan jasoa egotea
- Euskal kulturaren babeserako lege-garapenean hedabide publikoek duten funtzioa jasoa egotea

B. HIZKUNTZA GUTXITUAN SORTUTAKO KULTURA

2. TRANSMISIOA

- 2.3. **177. neurria** Zuzenean nahiz zeharka diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten hedabideek hizkuntza gutxituko kultur sorkuntza berriei buruz eman beharreko informazioa arautzen duen kuota bat ezarri da.

Adierazlea: Ba al dago diru-laguntzak jasotzen dituzten hedabideentzat hizkuntza gutxituko kultur sorkuntza berriei buruzko informazioa emateko kuota-sistematik? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Kulturaren sustapen eta babeserako plangintzan kuoten inguruko irizpideak jasoak egotea, non irizpideek diskriminazio positiboaren printzipioari jarraituko dioten
- Euskal kulturaren sustapen eta babeserako lege-garapenean jasoak egotea

B. HIZKUNTZA GUTXITUAN SORTUTAKO KULTURA

3. IKUSGARRITASUNA

- 3.1. **178. neurria** Hizkuntza gutxituan egindako arte- eta kultur adierazpideak bermatuta daude azpiegitura publikoetan.

Adierazlea: Arautua al dago azpiegitura publikoetan hizkuntza gutxituan egindako arte- eta kultura-adierazpideak bermatu beharra? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Kuota batzuk ezartzea azpiegitura publikoetan euskarazko ekoizpen ezberdinek, ahozkoak lehenetsiz, leku nabarmena izan dezaten
- Kulturaren sustapen eta babeserako plangintzan kuoten inguruko irizpideak jasoak egotea, non irizpideek diskriminazio positiboaren printzipioari jarraituko dioten
- Euskal kulturaren babeserako lege-garapenean azpiegitura publikoen funtzioa jasoak egotea

B. HIZKUNTZA GUTXITUAN SORTUTAKO KULTURA

3. IKUSGARRITASUNA

3.2. **179. neurria** Bada hizkuntza gutxituaren kultur agenda bat Interneten.

Adierazlea: Ba al dago hizkuntza gutxituaren kultur agenda interneten?

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Erakunde publikoek finantzaturako kultur atari bat egotea
- Kulturaren sustapen eta babeserako erakunde autonomoak kultur agenda kudeatzea, elikatzea eta zabaltzea
- Kulturaren sustapen eta babeserako plangintzan jasoa egotea

B. HIZKUNTZA GUTXITUAN SORTUTAKO KULTURA

3. IKUSGARRITASUNA

3.3. **180. neurria** Banaketa eta sustapenerako laguntza ekonomikoa ematen zaie hizkuntza gutxituan sortutako produktu guztiei, haien ikusgarritasuna bermatzeko.

Adierazlea: Ba al dago hizkuntza gutxituan sortutako produktu guztien banaketa eta sustapenerako laguntza lerrorik? Xede horretarako erabilitako giza baliabideak, diru-baliabideak eta baliabide materialak.

Mota: B/E

EZAUGARRIAK

- Laguntza publikoak ekoizpenera, banaketara eta zabalkundera bideratzea
- Kulturaren sustapen eta babeserako erakunde autonomoa arduratzea kudeaketaz
- Euskal kulturaren babeserako lege-garapenean jasoa egotea

B. HIZKUNTZA GUTXITUAN SORTUTAKO KULTURA

3. IKUSGARRITASUNA

- 3.4. **181. neurria** Kultur ekitaldietan (programetan, paisaian, edukian, etab.) hizkuntza-irizpideak finkatzen dira, hizkuntza gutxituaren ahozko nahiz idatzizko presentzia bermatzeko.

Adierazlea: Ba al dago kultur ekitaldietarako hizkuntza-irizpiderik? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Hizkuntza-irizpideak zehaztea eta aplikatzea, kultur ekitaldietan euskararen erabilera bermatzeko
- Irudi eta errotuluen identifikazioa eta inbentarioa jasoa egotea
- Irudi korporatiboaren gidaliburuan hizkuntza-irizpidea txertatzea
- Behin betiko eta behin-behineko elementuak kontuan hartzea
- Euskara lehenestea
- Antzeko idazketa duenean, euskaraz izatea, eta piktogramak baliatzea
- Azpigituluak eta itzulpenak baliatzeko
- Arte-katalogoak euskaraz sortzeko baliabideak ezartzea
- Kulturaren sustapen eta babeserako plangintzan jasoa egotea

B. HIZKUNTZA GUTXITUAN SORTUTAKO KULTURA

3. IKUSGARRITASUNA

- 3.5. **182. neurria** Nazioarteko sorkuntza-foroetan hizkuntza gutxituaren ikusgarritasuna bultzatzen da modu proaktiboan (sarien bidez, nazioarteko jaialdietan, etab.).

Adierazlea: Ba al dago nazioarteko sorkuntza-foroetan hizkuntza gutxituaren ikusgarritasuna bultzatzeko irizpiderik? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Euskal kultura nazioartean sustatzeko inbertsio-politika abian jartzea
- Erakunde autonomoak kudeatuko lukeen euskal kulturaren nazioarteko agentzia bat sortzea euskal kulturaren sustapenerako eta babeserako
- Nazioartean ikusgarritasuna lantzeko plangintza osatzea
- Euskal kulturaren babeserako lege-garapenean jasoa egotea

C. KANPOKO KULTURA HIZKUNTZA GUTXITUAN

1. **183. neurria** Beste hizkuntza batzuetan sortutako kultur produktuak eskuragarri daude hizkuntza gutxituan (itzulpenaren bidez).

Adierazlea: Eskuragarri dauden produktuen kopurua.

Mota: K

EZAUGARRIAK

- Administrazioak lerro espezifikoak garatzea aurrekontu orokorretan nazioarteko kultur ekoizpenak euskaratzeko
- Euskal kulturaren sustapena eta babeserako erakunde autonomoak urtero zehaztea nazioarteko kultur ekoizpenen euskaratzeko kopurua
- Kultur ekoizpenen hautaketa erakunde autonomoaren esku uztea eta osagarritasun irizpideari jarraitzea
- Kultur ekoizpenen hautaketa euskarazko kultur ekoizpen eta ekosistemaren arabera egitea
- Kultur ekoizpenen hautaketa hezkuntzako curriculumarekin ere zerikusia edukitzea
- Kulturaren sustapen eta babeserako plangintzan jasoa egotea
- Euskal kulturaren babeserako lege-garapenean jasoa egotea

C. KANPOKO KULTURA HIZKUNTZA GUTXITUAN

2. **184. neurria** Filmak hizkuntza gutxitura itzultzen dira (azpi-idatziekin nahiz bikoiztuta).

Adierazlea: Itzulitako filmen kopurua

Mota: K

EZAUGARRIAK

- Administrazioak lerro espezifikoak garatzea aurrekontu orokorretan nazioarteko kultur ekoizpenak, haien artean filmak, euskaratzeko, azpigitulu edo bikoizketa bidez
- Euskaraz ematen ez diren film guztiak euskarazko azpigituluak eta bikoizketa eduki dezaten plangintza osatzea, baliabideak jartzea eta modu progresiboan betetzea
- Euskal kulturaren sustapena eta babeserako erakunde autonomoak urtero zehaztea euskaratuko diren nazioarteko filmen kopurua
- Filmaren hautaketa erakunde autonomoaren esku uztea eta osagarritasun-irizpideari jarraitzea
- Filmaren hautaketa euskarazko film ekoizpenen eta ekosistemaren arabera egitea
- Filmaren hautaketa hezkuntzako curriculumarekin ere zerikusia edukitzea

C. KANPOKO KULTURA HIZKUNTZA GUTXITUAN

3. **185. neurria** Hizkuntza gutxituan eman beharreko kuota bat ezartzen zaie zine-aretoei.

Adierazlea: Ba al dago zine-aretoentzat hizkuntza gutxituan eman beharreko proiektzioen kuota-sistematik? **Mota:** B/E

EZAUGARRIAK

- Euskal kulturaren sustapena eta babeserako erakunde autonomoak zehaztea zine-aretoei ezarri beharreko kuota, bertako filmei lehentasuna emateko eta kanpotik datozen ekoizpenak euskaraz emateko
- Kulturaren sustapen eta babeserako plangintzan jasoa egotea
- Euskal kulturaren babeserako lege-garapenean kuoten aplikaziorako araua jasoa egotea



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN

KONTSEILUA

